


Islama eta Mendebaldea



Islama, ezinbesteko elkarrizketa

LUIS SOLS



Iritzi bilketa: Islama eta Mendebaldea, aurrez aurre?

- MIKEL ARAMENDI
- GABIREL EZKURDIA
- JOSE MARI PASTOR
- JUANJO SANCHEZ ARRESEIGOR
- JESUS TORQUEMADA

Egunen gurpilean

- JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

JAKiN

129

martxoa
apirila
2002



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)




*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura
eta Euskara Departamentuaren laguntza jaso du*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aurkibidea



Zenbaki honetan

► 7

Gai nagusia

Islama eta Mendebaldea

Islama, ezinbesteko elkarrizketa ► 11
LUIS SOLS

Iritzi bilketa: Islama eta Mendebaldea, aurrez aurre? ► 57
MIKEL ARAMENDI / GABIREL EZKURDIA / JOSE MARI PASTOR /
JUANJO SANCHEZ ARRESEIGOR / JESUS TORQUEMADA

Egunen gurpilean

JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI ► 97
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

© JAKIN

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti


IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07
jakin@jalgi.com

2002ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	39 €	—
Ale arrunta	6,50 €	8,40 €
KANPOAN		
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,60 €

Summary



Islam and the West

- *Islam, a necessary dialogue*


The professor Luis Sols provides us with an extensive and didactic presentation of the world of Islam, both from its religious and its political, historical, sociological and cultural points of view. The author provides us with an analysis of the conflictive relations existing between Islam and the West, the historical-religious evolution of Islam, the situation of the Near East in the 20th century, the origins and evolution of Islamism, the different political attitudes of the Islamic movements, the social situation in Muslim countries, the situation of women in Islamic society, the most recent military conflicts and in short, the current socio-political situation of Islam and Islamic countries and on the international front. ▶ LUIS SOLS

- *Opinions regarding relations between Islam and the West*

The experts in matters of international politics Mikel Aramendi, Gabirel Ezkurdia, Jose Mari Pastor, Juanjo Sanchez Arreseigor and Jesus Torquemada provide us with their view of the conflictive relations existing between the Islamic world and the West. Thus, they emphasize multiple controversial matters, each one from his own particular perspective: the concept of «war of civilizations», the Western interpretation of Islamism, the identification of Islam with fundamentalism, the religious magnitude of Islamic societies, the incompatibility of Islam with democracy and modernity and the bases for dialogue between Islam and the West. ▶ *Various Authors*

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Joseba Balerdi, Iñaki Martínez de Luna, Amatiño and Laura Mintegi. ▶ *Various Authors*



e skuetan duzun hau bigarren aldiko 129. zenbakia da eta 2002. urteko bigarreana.

Zenbaki honetako *Gai nagusia* saila azken hilabeteotan, batik bat 2001eko irailaren 11tik aurrera, pil-pilean dagoen auzi bat jorratzera dator: Islamaren eta Mendebaldearen arteko gatazka. Erro historiko, erlijioso, ekonomiko eta kultural sakonak dituen gatazka hau bizitu eta larritu egin da azkenaldian, eta horrek guztiak iritzi polarizatu eta manikeistenak nagusitzea ekarri du. Abagune interesgarria iruditu zaigu honako hau Islamaren mundu sarritan ezezagunera hurbiltzeko, beti ere pentsatuz elkarriketa emankorraren ezinbesteko baldintza dela elkar ezagutza.

Bi atalek osatzen dute sail hau. Batetik, Luis Sols irakaslearen artikuluak Islamaren munduaren aurkezpen orokor bat eskaintzen digu. Bestetik, Islamaren eta Mendebaldearen arteko harremanen inguruko iritziak bildu ditugu.

Lehenik, beraz, Luis Solsek Islamari buruz idatzitako liburuska bat itzuli dugu, edukiz eta formaz oso egokia eta didaktikoa iruditu baitzaigu auzia aurkezteko. Izan ere, artikulu honetan zehar, Islamaren alderdi politiko, historiko, soziologiko eta oro har kulturalak azaltzen dizkigu egileak, Islamaren eta Mendebaldearen arteko erlazioen inguruko gairik esanguratsu eta eztabaidatuenak ukituz: Ekialde Hurbilaren egoera XX. mendean, islamismoaren sorrera eta bilakaera, mugimendu islamisten jarrera politikoak, herrialde musulmanetako egoera soziala, emakumearen

egoera gizarte islamikoetan, azkenaldiko gatazka eta gerrak, herrialde islamikoek gaur egun eta nazioarteko ordenan duten egoera... Jatorrizko testua 1998koa denez, azken urte hauetako gertakariak eta bilakaera aintzat hartuz beharrezko zuzenketa eta eransketak egin ditzan eskatu diogu Solsi. Lerro hauen bidez biziki eskertu nahi diogu moldaketa hori eginez *Jakin*-ekin kolaboratzeko erakutsi duen ardura eta interesa. Gure eskerrak, baita ere, jatorrizko liburuaren argitaratzaileari, hau da, *Cristianisme i Justícia* lan talde katalanari, guri laguntzeko izan duen jarrera irekiagatik.

Sail honetako bigarren atalean bost aditurengana jo dugu Islamaren eta Mendebaldearen arteko erlazio gatazkatsuaren inguruko auzi nagusiei buruz galdeginez. Horrela, Mikel Aramendi, Jose Mari Pastor eta Jesus Torquemada kazetariak, Gabirel Ezkurdia nazioarteko gaietan adituak eta Juanjo Sanchez Arreseigor historialariak, nork bere ikuspegitik, hainbat auzi ukitzen dituzte beren erantzunetan: «zibilizazioen arteko gerra» kontzeptua, islamismoaren mendebaldar interpretazioa, Islamaren eta fundamentalismoaren eta integrismoaren arteko identifikazioa, gizarte islamikoetan erlijioak duen dimentsioa, Islamaren eta demokrazia eta modernitatearen arteko bateraezintasuna, Islamaren eta Mendebaldearen arteko elkarrizketarako oinarriak...

Egunen Gurpilean saila dator azken orrialdeetan. Ohi denez, azken hilabeteotako berrien iruzkin labur eta bi-ziak dakartzate Joseba Balerdik Kultura alorrean, Laura Mintegik Literaturan, Iñaki Martinez de Lunak Soziolin-quistikan eta Amatiñok Telepolis atalean.¶

Islama eta Mendebaldea



Islama, ezinbesteko elkarriketa

LUIS SOLS w *11*

Iritzi bilketa:

Islama eta Mendebaldea, aurrez aurre?

MIKEL ARAMENDI / GABIREL EZKURDIA / JOSE MARI PASTOR /

JUANJO SANCHEZ ARRESEIGOR / JESUS TORQUEMADA w *57*

Islama, ezinbesteko elkarrizketa

b

L U I S S O L S

b

Mendebaldea eta Islama

XX. mendearen amaieran 1.000 milioi baino musulman gehiago zeuden munduan¹. XXI. mendean zehar Islama jarraitzaile gehien izango dituen erlijioa bihurtuko dela aurreikus daiteke, urtero %3ko erritmoa hazten ari baita; hau da, egun 1.900 milioi fededun inguru dituen kristautasuna baino askoz azkarrago.

Islamaren lurralde esparrua munduko hainbat eremutan hazten ari da, bereziki Afrika Beltzean, eta ez dirudi inon ere atzera egiten has daitekeenik.

Mendebaldeko zibilizazioa ere hedatze prozesuan dago, ezbairik gabe. Lehenik lurralde mailako hedatzea izan zen, baina gaur egun batik bat kultura mailako hedatzeaz hitz egin behar da. Azkartasun harrigarriaz ari da munduko kultura guztiak asimilatu eta homogeneizatzen. Bere sistema ekonomikoa, egitura politikoak, janzkera, kirolak eta eskema mentalak inposatzen ditu. Japonia, Txina, Afrika Beltza, guztiak Mendebaldeko bizimodurantz leratzen ari direla esan daiteke.

Islama bakarrik agertzen zaigu —milaka urteko zibilizazio hinduarekin batera— asimilazio honen eraginetik

Luis Sols Historia katedraduna da bigarren hezkuntzan, eta *Cristianisme i Justicia* (Cij) lan taldeko kidea.

at. Mendebaldearekiko alternatiba handi gisa aurkezten da epe laburreko etorkizunean. Azken milurteko honetan zehar aurrez aurre egondako kultura lehiakideak izan dira biak. Islamak bere nagusitzari eutsi dio mende askotan, eta hegemonia hau berriro ere noizbait itzuliko dela uste izateko joera dute musulmanek.

Baina, gainera, ezberdintasunak oso sakonak dira. Mendebaldar bizimoduan erlijioa errealitatearen atal bat da, berezko konsistentzia duten beste atal batzuekin batera —Zientzia, Politika, Artea— irauten duena. Esparru hauek elkarri eragin eta taxutu arren, independenteak dira. Errealitatearen ikusmolde zatikatua gailentzen da. Erlijioa auzi pertsonaltzat jotzen da, nolabaiteko esangura soziala ere baduena. Islamean, aldiz, gauza guztiak erlijioaren inguruan eratzen dira: gizabanakoa, gizartea, egitura ekonomiko edo kulturalak. Musulmanek errealitate sakratu bat hautematen dute, non erlijioak bizitzaren alderdi guztiak jasotzen eta bateratzen baititu. Mendebaldarrentzat, aitzitik, errealitatea funtsean materiala da. Mendebaldar batentzat materiaren hautemate zientifikoa funtsezkoa da, eta horrek erlijioaren planteamenduren bat kontraesaten badu, azken hori berrikusi edo egokitu behar da. Musulmanen aburuz, erlijioa beti gailentzen zaio materiaren arloari; eta, gainera, dagoeneko guztiz perfekzionatuta dago, hau da, ez du egokitzapenik behar.

Asimilazioa —edo kulturen arteko elkarrizketa— are zailagoa da honakoa kontuan hartzen badugu: musulmanen ustez, nazioarteko kultura homogeneizatzaile horren hainbat alderdi, Islamak Azken Orduaren gertutasunaren zeinu gisa aurkezten dituen ideia batzuekin identifikatzen dira: hau da, zintzotasunaren galerarekin, boterea duintasunik gabeko jendearen esku geratzearekin, ohituren degradazioarekin, lukumeriaren zabalkundearekin, emakumeen nagusitzarekin gizonen gain, gazteen matxinadarekin, debozioaren ahuleziarekin, Benetako Ezagutzaren atzerakadarekin...

Islamaren eboluzioa

Islama, zibilazio guztiak bezala, bere iraganak oso sakon baldintzatzen du. Erdi Aroaren amaieratik ez da ia egokitu munduak ezagutu dituen izugarritzko aldaketetara. Horregatik, kontzeptu gehienak iraganean bezala formulatzen ditu, eta arazorik gehienak Islam sortu berriaren garaietan bezalaxe konpondu nahi ditu.

1. Bere hastapenetik beretik, VII. mendearen hasieran, Islamak berebiziko hedapena izan zuen. Bere bizitzaren lehenengo mendearen ondoren jadanik Iberiar Penintsulatik Indiako iparralderaino zabaltzen zen. Garai horretan definitu ziren erlijio islamikoaren aldagai erlijioso eta filosofiko nagusiak, gaur egun arte iraun dutenak. Lehenengo lau kalifen aroan —«kalifa ongi gidatuak» (632-659)— *Koranaren* behin-betiko testua finkatu zen eta Alak Mahomari igorritako errebelazioak idatziz jarri ziren, ordura arte Profetaren jarraitzaileek oroimenean fideltasunez gorde baitzituzten. *Sunnaren* —Profetaren esanen eta irakasgaien bilduma— lehenengo idazketa ere orduan egin zen. *Koranak* eta *Sunnak* gordetzen dute lege islami-koa, *Xaria*. Hasierako aldi honetan garatu zen *Jihad* kontzeptua ere (Islamaren aldeko ahalegin berezia; oker itzultzen da «gerra santu» gisa). Ahalegin hori barneko etsaiaren aurka (musulman bakoitzaren baitan) ez ezik kanpoko etsaiaren aurka ere zuzentzen da beharrezkoa bada, hots, Islama larriki erasotzen bada.

2. Erlijio islamikoan gaur egun oraindik irauten duten *bereizketa nagusiak* Aliren inguruan —Mahomaren suhia eta kalifa handien artean laugarrena— agertu ziren. 659an Omeia familiako Muauija-k kendu zuen boteretik, eta bi urte beranduago erahil egin zuten.

Une horretan sortzen da Aliren jarraitzaileen alderdia —*Xia*—, eta horrek ez ditu zilegitzat hartzen Omeia kalifa gobernariak, Aliren seme diren Hussein eta Hassan eta beren ondorengoen eskubideak defendatuz. *Xiita* hauek *Sunna* errespetatzen dute, baina ez dute bere izaera sakra-

tua onartzen, gainerako musulman guztiek, *sunitek*, egiten duten bezala. Horren ordez, garrantzi berezia ematen diote Aliren ondorengo hamabi *Imanek* ahoz igorri omen zuten ezagutzari. Jakituria horren atal bat klero xiitaren-gana (*mulah*) iritsi omen zen. Horien artean batzuek *Xaria* interpretatzeko gaitasun berezia dute, eta *aiatola* gisa aintzatesten dira. Tradizio xiitaren arabera, Iman handien artean hamabigarrena eta azkena —*Mahdi-a*, «ongi gidatua»— ez da hil, Justizia berreztazera itzuli behar duen Imana baita.

3. *Imana* liderra da, «aurrean mantentzen den» hura. Sunitek izen hau erabiltzen dute otoitz kolektiboa zuzentzen duten autoritate erlijioso jakin batzuk izendatzeko, baina ez diete onartzen xiiten ustez duten funtsezko izaera. Beren imanak ez dira Aliren ondorengoak eta ez dira Profetak igorritako inolako jakituria sekreturen jabe. Suniten —musulman ortodoxoen— artean laster garatu ziren *Korana* eta *Sunna* interpretatzeko lau eskola juridiko handiak². IX. mendearen erdialdean eskola horiek finkatuta zeuden, eta gaur egun ere oraindik, gehiengo sunitaren arabera, eskola ortodoxo bakarrak dira.

4. *Kultura islamikoak*, hasieran, izaera eklektikoa eduki zuen. Erlijio musulmana bera hein handi batean judaismotik eta kristautasunetik dator. Bizantziarrei eta per-siar sasanidei, garai hartan garatuenetakoak ziren bi kulturei, konkistatu zizkieten lurraldeak. Beren ekarpenak tradizio arabiarrean integratu ziren, zibilizazio islamikoa deitzen duguna taxutuz. Erdi Aroan zehar, zibilizazio horixe izan zen —urruneko txinatar zibilizazioa alde batera utzita— mundu mailan garatuena. Omeiatar (659-750) zein Abbastar (750etik) Kaliferriek distira handiko urteak izan zituzten, Mendebaldeko Europan iluntasun kulturala gailentzen zen garai berean.

5. Zatiketa politikoak zibilizazio islamikoaren indarra ahulduko zuela zirudienean, Al Andalusen *Kordobako Kaliferri* distiratsua fundatu zen (929-1031), Erdi Aroko gai-

lur kulturaletako bat. XI. mendetik aurrera, jadanik Islamera bihurtutako turkiarren agerpenak indar militar eta politikoa eskaini zion hainbat estatu islamikori. Horiek gelditu zuten Gurutzaden erasoak. Jerusalem urte gutxi batzuk baino ez zen egon kristauen eskuetan.

6. Otomandar *turkiarren* agerpenak, XV. mendean, musulmanen lurralde-hedapenaren aro berri bat ireki zuen Europan. Bizantziar inperioa konkistatu zuten (Konstantinopla, 1453) eta Europa Erdialderantz egin zuten aurrera. XVII. mendean bi aldiz egon ziren Viena hiria hartzekotan. Horixe da Islamaren lurralde-hedapenaren gorengo unea Europan.

7. Europa mendeetan zehar aberastu da zibilizazio islamikotik iristen zitzaizkion ekarpen kulturelekin —Literatura, Zientzia, Filosofia—. Haatik, Erdi Aroaren amaieratik aurrera, *kultur geldialdia* pairatu zuen Islamak, europar kulturaren bizitasunarekin kontrastatuko baitu. XV. mendetik aurrera Europa kristauak berebiziko hedapen ekonomiko eta komertziala izan zuen; ondorioz, Islamaren aurrean nagusitza politiko eta militar nabarmena eskuratu zuen. XVIII eta XIX. mendeko iraultza industrial eta burgesek prozesu hori sendotu eta areagotu zuten. Frantsesek eta ingelesak Afrika Iparraldea okupatu zuten XVIII. mendean; erusiarrak Asia Erdialdea okupatu zuten XIX.ean; ingelesak eta frantsesek Turkiar Inperioa banatu zuten XX.ean: *europar kolonialismoak* indar handiz jotzen ditu herrialde musulmanak, umiliazio sentimendu sakona eraginez.

8. Erlijio islamikoak argi uzten du musulmanak (fededunak) direla Gizateriaren Abangoardia. Halaxe izan zen mende askotan zehar. Baina hala izateari utzi zionean, beren burua atzeratuta eta betidanik beraien etsai izandako zibilizazioak menperatuta ikusi zutenean, *ezinegon itzelean* erori ziren: ikusten zuten errealitatearen eta beren sinesmenen arteko kontraesanak krisi erlijioso sakona eragin zien.

Ekialde Hurbila XX. mendean

Ekialde Hurbileko arabiar herrialdeek osatzen dute zibilizazio islamikoaren funtsezko muina, nahiz eta biztanle-dentsitate txikiko eskualde batean kokatuta egon. Lurralde tradizional horretan daude Meka, Medina eta Jerusalem, erlijio musulmanaren leku sakratu nagusiak. Arabiarrek, Mahomaren predikua baino lehenago ere, berezko hizkuntza eta kultura zuen talde etnikoa osatzen zuten. Islamaren hedapenak ahalbidetu zuen beren hizkuntza bestelako jatorriko herri batzuek ere har zezaten, batik bat Afrika Iparraldean. Gaur egun, oraindik, musulman orok eduki behar dituz arabiera nozio batzuk, otoitz egiteko hizkuntza baita.

XX. mendeko une batzuetan hizkuntza hori partekatzen duten herrialdeek *arabiar nazioaren* baitako izatearen sentimendua garatu dute, baita prozesu integratzaile iragankorren bat ere. Dena dela, arabiarrek berezko kultura baten jabe izateaz kontziente dira, eta ez dira gehiegi identifikatzen beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituzten beste herrialde musulman batzuekin —turkiarrak, irandarrak, kurduak, berberek—.

Otomandar Inperioaren deskonposaketa eta deskolonizazioa

1. XX. mendearen hasieran Turkia Europako «gizaki gaisoa» da. Inperio zabala, baina erabat ahuldua, potentzia handien arteko mesfidantzei esker soilik irauten du zutik. Lehen Mundu Gerra pizten denean, Alemaniar eta Austrohungariar Inperioekin aliatzen da. Ekialde Hurbileko arabiar herrialdeek aspalditik jasaten zuten otomandar turkiarren menperaldia. Ingelesentzat ez zen zaila izan Hussein Mekako xerifearekin ituna egitea, eta, independentzia lortzeko promesetan oinarrituz, arabiar tribuak turkiaren aurka matxinatu zitezten sustatzea. Baina, aldi berean, frantsesek eta ingelesek isilean hango lurraldeen banaketa hitzartu zuten (Sykes-Picot ituna, 1916), gogoia eskualde hartako baliabide naturaletan jarrita.

Banatutako lur horiek, gerraren ondoren, Nazioen Elkartek babestutako kolonia eta protektoratu multzo ba-

tean taxutu ziren. Siria eta Libano frantsesen kontrolpean geratu ziren. Irak eta Jordania, aldiz, britainiarren eraginpean geratu ziren —baita Egipto eta Palestina ere— eta erresuma bilakatu zituzten, tronuak Hussein Mekako xerifearen bi semeri utziz. Haatik, Husseinek ez zuen inoiz lortu agindu zitzaion arabiar erresuma handia sortzea, eta 1924an bere burua kalifa izendatzen saiatu zenean, Ibn Saud-ek —Najd-eko emirrak— haren lurraldea inbaditu zuen eta Arabia osoko errege aldarrikatu zuen bere burua.

2. 1923an, Mustafa Kemal Ataturk-ek zuzendutako Turkiar Nazio Mugimenduak, armeniar herria suntsitu eta kurduak zapaldu ondoren, atzerritar okupatzaileak botatzea eta Errepublikak diktatorial bat ezartzea lortu zuen. Erregimen nazionalista eta autoritario horrek derrigorrezko mendebaldetzea ekarri zuen, politika eta kultur esparruetatik agerpen islamiko oro ezabatuz.

Kemalen turkiar ereduari jarraituz, 1925ean Reza Khan buruzagi kosakoak Persiako Sha izendatu zuen bere burua eta mendebaldar kutsuko erreformen egitasmo zabal bati ekin zion.

3. Prozesu deskolonizatzaileak, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Frantziak eta Ingalaterrak eskualde horretan zuten nagusitza uztera behartu zituen. Sozialismo nazionalista eta arabizatzailea gailendu zen Siria eta Iraken —Baas Alderdia— eta Nasserren Egipton. Arabiar gizartea kultur sustraiei muzin egin gabe modernizatzeko eta ekonomikoki garatzeko saiakerarik ganorazkoenaren aurrean gaude. Proiektu hauen porrotak batere alternatibarik gabe utzi zuen arabiar jendea, pobrezia ren ondorioz gero eta suminduago, Israelgo Estatuaren ezarpenagatik gero eta umiliatuago.

XX. mendean zehar petrolio erreserba ikaragarriak aurkitu ziren Ekialde Hurbilean. Aberastasun natural itzel horrek petrolioaren jabe ziren herrialde islamikoei ahalmen politiko nabaria eskaini zien. 1973an Arabiar Lurralde Petrolio-Esportatzaileen Erakundeak erabakitako boikotak arabiar-israeldar gatazkarekiko jarrera aldatzera de-

rriortu zituen Mendebaldeko herrialdeak. Jende musulmanak orduantxe ikusi zuen bazuela protagonismoa eta galdutako duintasuna itzuliko zien tresna boteretsu bat, baina beren buruzagiek batez ere beren probetxurako bakarrik baliatzen zutela.

Palestinar arazoa

1. XIX. mendean, hainbat europar herrialdetan *jarre-ra antisemitak* berpiztu ziren. Errusian egoera bereziki larritu zen, 1881 eta 1882ko progrom beldurgarriekin. Tsarrek juduak ghettoetan bizitzera behartu zituzten, eta lur jabetza eta hezkuntza eskuratzea eragotzi. Milaka askenaztar judu emigratzera derrigortu zituzten. Horietako batzuk Palestinan finkatu ziren, Rothschild bankariak finantzatuta. Inmigrazio judu moderatuari ongi etorria egin zitzaion hasiera batean, eta zertxobait handitu zenean baino ez zuen mesfidantzarik eragin.

2. Europar judu gehienak bakoitzaren herrialdean guztiz integratzearen eta asimilatzearen aldekoak ziren. Hala ere, gero eta antisemitismo handiagoaren ondorioz, zenbaitek nazio diferentziatu bat osatzeko premia planteatzen hasi ziren, beren identitatea askatasun osoz bizitzeko ahamena eskuratzearren. Era horretan, XIX. mende amaieran —nazionalismoen agerpenaren mendean— *sionismoa* sortu zen, Agindutako Lurrera itzultzeko amets zaharra errealitate bihurtzeko asmoa duen nazionalismo judua. 1897an lehenengo Batzar Sionistak Palestinan berezko bizilekua edukitzeko herri juduaren eskubidea aldarrikatu zuen.

3. 1971n, Lord Balfour britainiar Atzerri ministroak xede hori babestu zuen, baldin eta palestinar biztanleei kalterik ekartzen ez bazien. Deklarazio horrekin, Iparamerikako komunitate judu itzaltsuak AEBek Lehen Mundu Gerran esku-hartzeari babes ematea lortu zuen Lord Balfourrek. Doktrina horrek Turkiar Inperioaren banaketa koloniala baldintzatu zuen: Palestina Siria eta Libanotik

banatu zen eta *britainiarren kontrolpean* geratu zen. Ordu-tik areagotu egin zen juduen inmigrazioa eta lurren erosketa masiboa. Lehenengo gatazkak azaldu ziren, eta, ondorioz, zenbait garaitan, inmigrazio judua mugatu zen.

4. Bigarren Mundu Gerraren ondoren Holokaustoa-
ren izuak gobernu askori juduen xedeen aldeko jarrera harrarazi zien. Britainia Handiak, arazoa hobekien ezagutzen baitzuen, Estatu interkonfesional bakarra sortzea proposatu zuen. Muturreko sionistek eraso terrorista bati ekin zioten, egoera desorekatzeko eta aldeko soluzio bat behartzeko asmoz. Izan ere, horiek eraman zuten terrorismoa lehen aldiz munduko lurralde haietara³. Nazio Batuek, azkenean, *bi Estatu independenteren sorrera* hitzartu zuten, Jerusalem nazioarteko hiriaren estatutua emanaz. Gatazkako ezein alde ez zen proposatutako lurralde banaketarekin ados agertu, nahiz eta azken orduan juduek formalki onartu zuten. Izan ere, arabiarrek akordioa baztertu zutela jakin zuten, eta horiek agresore gisa agertzea interesatzen zitzairen. Horrela, bada, 1948ko Israelgo Estatuaren aldarrikapenak elkarren arteko erasoari eta gerra gatazkari bidea ireki zion. Israeldarrak, gutxiago izanagatik mendebaldar armamentuari esker hobeto prestatuta zeudenez, garaile atera ziren: Jerusalemen ateetan geratu ziren, baina Palestinar Estatuaren sorrera ekidin zuten. Konkistatu ezin izan zituzten lurraldeak Jordania eta Egiptoren artean banatu ziren.

5. 1956an Israelek Sinaiko penintsula inbaditu zuen, Indikoko komertzioari Egiptok egindako blokeoari erantzunez. NBERen esku-hartzeak hasierako egoerara itzultzera behartu zuen. Nasser egiptoarraren lidergopean, arabiar nazionalismo indartsua garatu zen. Haren xede nagusia Israelgo Estatu sortu berria deuseztea zen. 1967an beste blokeo batek israelarren eraso azkar bat eragin zuen. «*Sei Eguneko Gerra*» deitutakoaren amaieran, Israelek Golan, Gaza, Sinai eta Zisjordania okupatu zituen. Hau da, palestinar lurralde guztiak kontrolpean hartu zituen. Suezko kanala itxita geratu zen. Jerusalem galtzeak umiliazio ika-

ragarria ekarri zien mundu osoko musulmanei, Mahoma zerura igo zen lekua izategatik musulmanen hirugarren hiri sakratua baita.

6. 1973an siriarren eta egiptoarren eraso gertatu zen, nazioarteko *petrolio boikotaren* babesarekin. AEBen laguntza masiboak hasiera batean erabateko porrotetik salbatu zuen Israel, bere hegazkin gehienak birrinduta gertatu ziren unean. 1979an, Arabiar Lurralde Petrolio-Esportatzaileen presioak Egiptorekin akordio bat sinatzera bultzatu zuen Israel, Sinairen itzulera eta Suezko kanala berriro irekitzea barne.

7. 1964tik palestinar talde ezberdinak PAEn bilduta daude (Palestina Askatzeko Erakundea). 1969tik Jasser Arafat Al Fatako liderrak —talde gerrillarien artean bote-retsuen— zuzentzen du erakundea. 1974 arte Arafatek terrorismoa praktikatu zuen, baina data horretatik aurrera bere proposamenak moderatuz joan dira. Israelen ezabapenetik Estatu multikonfesional bakar bar defendatzera pasatu da, eta, azkenik, amestutako Palestinar Estatuaren ondoan Israelgo Estatuaren existentzia onartzera ere iritsi da.

8. 1982an Israelek Libano inbaditu zuen, palestinarren gerrilla-jardueren guneekin amaitzeko asmoz. Ariel Sharon jenerala izan zen ekimen horren arduradun nagusia; herrialde horren hegoaldeko eskualde baten kontrolak hamazazpi urte iraun zuen, eta galera larriak eragin zizkion israeldar armadari. Beiruteko setioan zehar, Sharonek Sabra eta Xatila palestinar kanpamenduak —armarik gabeko zibilek osatutakoa— kontrolpean zituen bitartean, bertara sartzen utzi zien kristau-libanoar miliziei, gatazka hauen historiako sarraskirik izugarrienetakoa egin ahal izan zezaten.

9. 1967ko gerran zehar konkistatutako palestinar lurraldeek okupatuta jarraitu zuten, nahiz eta Nazio Batuen ebazpenek israeldarrei atzera egitea agintzen zien. Lurral-

de horien guztien erabateko anexioa defendatzen duen Likud alderdi erradikala gobernura iritsi zenean, Nazioarteko Zuzenbidearen arabera guztiz legez kontrakoak diren *asentamenduak* eraikitzen hasi zen. Bertan, Ekialdeko Europatik etorritako inmigrante juduak kokatu ziren. Asentamendu horiek herrialde garatu bati dagozkion erosotasun guztiak dituzte. Aitzitik, eskualde horietan bizi diren palestinarrek ez dute inolako estatu mailako zerbitzurik, ezin dute jarduera ekonomiko arruntik egin eta, jakina, ez dute botoa emateko eskubiderik⁴. Emaitza argi dago: miseria eta sumindura injustiziaren aurrean.

10. 1987an *intifada* lehertu zen: matxinada horretan haur eta helduek makilekin eta harriekin egiten diete aurre israeldar soldaduei. Hasiera batean PAEk sustatu zuen, baina berehala talde askoz ere erradikalagoen eskuetan geratu zen. Arafaten proposamen moderatuak porrot egin zutela ulertu zuten palestinarrek; era horretan, talde terroristak edo islamistek gero eta eragin handiagoa lortu zuten.

11. Mundu mailako iritzi publikoaren presioak —eta Golkoko gerraren ondoren herritar musulmanak baretzeko iparramerikarren interesak—, 1991n, *bake negoziazioei* hasiera ematera behartu zuten Shamir, Likud koalizio erradikalaren lehen ministroa. Negoziatioek hitzarmen bat ekarri zuten 1993an. Jasser Arafat palestinar liderrak eta lehen ministro berriak, Yitzhak Rabin laborista eta moderatuak, sinatu zuten akordio hori. Rabin Israelgo liderrak errespetatuenetakoa zen; izan ere, 1967an Sei Eguneko Gerrako israeldar arakastaren arduradun nagusia baitzen. Formula «bakea lurraldeen truke» zen: palestinarrek Israelgo Estatuaren existentzia onartu zuten, Zisjordanian zati bateko eta Gazako lurraldeen autonomia uztearen truke. Jerusalem akordiotik at geratu zen.

12. Erradikalismo arabiar eta juduaren ekimen konbinatuak bake prozesua blokeatu zuen. Terrorista judu batek Yitzhak Rabin erahil zuen, israeldar segurtasun-zerbit-

zu eraginkorren ezintasunaren aurrean, nahiz eta antzeko atentaturen bat prestatzen ari zela pentsatzeko aztama nabarmenak bazeuden. Berehalako hauteskondeek berriro ere Likudeko erradikalei eman zieten garaipena. Netanyahu lehen ministro berriak legez kontrako asentamenduak eraikitzeari ekin zion berriro ere —baita Jerusalemgo arabiar aldean ere— eta bake prozesua benetan blokeatu zuen.

13. 1999an Ehud Barak laboristaren hautaketak israeldar herritarren nekea eta bakera iristeko irrika nabarmendu zuen. Clinton iparramerikar presidentearen ahalegin pertsonalak akordio batetik oso hurbil jarri zituen bi aldeak 2000ko udan, alde bateko zein besteko erradikalen etsaigo irekiaren gainera. Jerusalemiko buruzko eztabaidan jarrerak nabarmen hurbildu ziren, baina palestinar errefuxiatuak beren etxeetara itzultzearen inguruko desadostasunak azken akordioa galarazi zuen.

14. 2000ko irailean Ariel Sharonek bake elkarrizketak lehertu zituen, bere jarraitzaileekin Jerusalemgo Meskiten Zabalgunetik paseatzera joan baitzen. Bazekien ekintza horrek palestinar erradikalenen erantzun bortitza eragingo zuela. Horrela ekin zitzaion bigarren intifadari, eta horrela ere erradikalizatu zen berriro israeldar iritzi publikoa. Azken buruan, Sharon bera, israeldar eskuinaren atalik erradikalaren liderra, boterera heldu zen. Hauteskondeak baino egun gutxi batzuk lehenago akordio bat ia amaituta geratu zen, baina ez zen gauzatu Sharonek —bere garaipenaz ziur— hura errespetatzeko asmorik ez zuela iragarri baitzuen. Sharon boterera iritsi denetik indarkeriaren gorpila gero eta azkarrago doa.

15. Irailaren 11ren ondoren, ekintza terroristen kopurua eta israeldar errepresioaren gogortasuna areagotu baino ez da egin. Palestinar Aginte Nazionalaren instalazioak —Europako Batasunaren diruari esker eraikiak— sistematikoki suntsitzen dituzte, Arafat preso mantentzen duten bitartean. Bake prozesuari esker eraikitakoa leherta-

razi egin dute. Pentsa liteke Sharonek —gutxi gorabehera disimulatutako Bushen babesarekin— garaipen militarra besterik ez duela nahi, ez baitirudi sarraski horrek Mendebaldeko iritzi publikoan izan dezakeen eragina axola zaiotik. Bitartean, NBEk —gogora dezagun Israelek legez kontra okupatutako lurraldeak direla— Palestinar Estatu eratzeko eskubidea oso modu lausoan baino ez du aintzatsi. Kontuan hartu behar dugu, gainera, 1947an ere onartu zuela eskubide hori, Israelgo Estatu sortzen zuen aldi berean.

16. Arabiar herriak badaki Estatu Batuen ia baldintzarik gabeko babesak bakarrik ahalbidetu duela hain herrialde txikiak bera baino askoz ere herrialde handiagoen aurrean nagusitza militarri eustea. Israelek oso laguntza handia jasotzen du, hasieran urteko 1.000 milioi dolarretatik egun urteko 3.500 milioi dolarretara hazi den dirulaguntza, hain zuzen ere. Donazio bat da —ez mailegu hutsa—, eta AEBek garapenari eskaintzen dioten kanpoko laguntza osoaren ia erdia hartzen du gaur egun. Diru asko da milioi bat biztanlerekin hasi, gaur egun bost milioi ingurudituena eta Espainiar estatuko per capita errenta baino handiagoa lortu duen herrialde batentzat. Israelek, NBEren ebazpenak sistematikoki bete gabe uzten dituen arren, bere aldeko tratua jasotzen du arlo guztietan, eta Estatu Batuen teknologia militar hoberena eskura dezake. Oso zaila da mugarik gabeko babes hori azaltzea. Amerikar komunitate judua —Israelekin zerikusia duen ororekin oso sentibilizatuta— ez da oso ugaria, baina eragin izugarria du. Bere babesik gabe oso zaila da hautagai batek AEBetako hauteskundeak irabaztea. Kongresuak —normalean edozein gastu egiteko uzkur— donazio itzel hauek ia batere eztabaidarik gabe eta aho batez onartzen ditu utero.

17. Arabiar herrialde garatueta iritzi publikoak baino hobeto ezagutzen dute egoera hau. Mendebaldar kristautasunaren, hau da, beren lehiakide historikoaren agresio gisa sentitzen dute. Beren ustez, *mendebaldar eraso* hau Gurutzaden jarraipena da, eta petrolioaren espolia-

zioarkin ere erlazionatzen dute. Aspalditik dakite konponketa militarra ere ezinezkoa dela, gaur egun israeldarrek bonba atomikoa baitute eta beren burua arriskuan ikusiko balute erabili ahal izango bailukete. Ez da harritzekoa, beraz, pobrezian murgildutako osteek —duintasunean zaurituak, bestelako alternatibarik ezean— fundamentalisten diskurtsoa gogo onez hartzea.

Islamismoa

Azken mendeotan, Islamaren jatorrizko garbitasuneranzko —Profetak eratutako eta lehen garaietan praktikatutako garbitasuneranzko— itzulera predikatzen duten mugimenduak ugaritu dira. Joera hau *salafija* izendatu izan da eta horri lotzen zaizkio islamista deitzen diren mugimenduak. Ikus ditzagun batzuk.

Jatorriak

Arabia

Arabian XVIII. mendean —gainbehera musulmana nabarmena zenean—, Wahab izeneko pertsonaia bat bizi izan zen (1703-1787), joera *hanbalistaren* jarraitzailea (ikus 2. oharra), sunismoaren lau eskola juridikoetatik zurrunena. Medina, Iran eta Iraken burututako teologia ikasketek erakutsi zioten Islamari erantsitako berrikuntzak kendu eta jatorrizko garbitasun eta sinpletasunera itzuli behar zela. Horrela, Koranean, Sunnan edo arrazoimena-
ren beharrezko dedukzioetan oinarritzen ez den ezagutzarik ez du onartzen. Beretzat jarduera erlijiosoa Estatu auzi bat da, eta, beraz, otoitzaldi komunetara joaten ez direnentzako zigorrak ezartzen ditu. Koranaren edo Sunnaren arau guztien hitzez hitzezko aplikazioa ezartzen du, hau da, *Xaria* z o roztasunez betearazten da, gorputz-zigorrak barne.

Zorrozkeria horrek teologoek desadostasuna eragin zuen oro har, baina Ibn Saud, Najdeko emirrak bere egin zuen. Abd al-Aziz haren seme eta ondorengoa wahabismoa arabiar eremuan inposatzen saiatu zen: Arabia osoa konkistatu eta bateratu zuen, baina Turkiar Inperioa eraso zuenean porrot egin zuen. Haatik, arabiarrek, fedearen bultzadaz jarduten dutenean, balentria handiak aurrera eramateko gai direla erakutsi zuen.

Mende bat beranduago, jadanik XX. mendean, beste Ibn Saud batek —Najdeko emirra eta lehenaren ondorengoa— proiektu hura berriz hartu eta Arabia bateratu zuen wahabismoaren bultzadaz. Saudi Arabiaren jaiotza da⁵.

Afganistan

Hala ere, wahabismoak ez du errorik bota Arabiatik at, eta beste ezein herrialde ez da saiatu hura abian jartzen.

XX. mendeko islamismoaren sustraiak aurreko mendean Afganistanen bilatu behar dira. Han bizi izan zen Djamal de-Din al-Afghani (1838-1897), bere borroka anti-kolonialarentzako oinarriak erlijio musulmanean aurkitu zituen ekintzailea. Britainiarrekiko bere etsaigoa Indian ernaldu zen, ingelesek gutxiengo musulmanari boterea kentzen ari ziren lurraldean. Istanbulen eta Kairon bizi izan zen, eta han jarri zen harremanetan arabiar munduan entzutetsuena zen Al-Azhar unibertsitateko intelektualekin. Londres eta Parisen ere bizi izan zen.

Intelektualki hezitako eta errealitatea behatzeko gai den musulman batentzat, Islama lehen izan zena eta orain Mendebaldearen aldean dena konparatzea benetan samingaria izan zitekeen⁶. Afghani mendebaldar erronkaren jakitun zen. Erlijio musulmanari mendeetan zehar metatutako akatsak garbitu nahi zizkion, baina ziur zegoen Islama berrikuntza teknikoekin bateragarria zela.

Egipto

Mendebaldearen erronkaren aurrean joera, eskola eta herrialde guztietako musulmanei borroka bateratura Afghani egindako aldarriak eragin bizia izan zuen hainbat herrialdetako esparru intelektualetan. Mohamed Abduh egiptoar xekeak (1849-1905), haren ikasle eta lagunak, bere ustez irakaslearen funtsezko ideia dena hedatu zuen Egipton: posible da modernoa eta aldi berean musulman ona izatea. Zientziak eta erlijioak berriro ere elkar adiskidetu behar dute, zibilizazio musulmanaren urrezko aroan bezala. Esparru askotan emakumearen berdintasuna defendatzeraz ere iritsi zen Abduh.

India eta Pakistan

Aldi berean, Indian beste mugimendu erreformista bat garatu zen. Zenbait europar unibertsitatetan filosofia ikasi ondoren, Muhammad Iqbal (1873-1938) Islamaren

gainbeheraren aurrean matxinatu zen —ordurako gehien-
go hinduaren aurrean hegemonia galtzen ari ziren musul-
manak—, eta jatorrizko komunitate musulmanaren balio
moraletara itzultzea predikatu zuen. Ezagutza modern o-
ranzko eta demokraziaranzko hurbilketa ere defendatu
zuen, hori guztia Islamaren argitan ulertuz.

Mawdudi haren ikasleak (1903-1979) hasieran maisua-
ren ideia modernizatzaileak partekatu zituen. Haatik, haren
heriotzaren ondoren, doktrina fundamentalistagoa garatu
zuen: bere ustez, musulmanek Errebelazioaren esanarekiko
leialak izan behar dute, eta *Xaria* —Koranaren eta Sunna-
ren pasarteetan agertzen den Lege islamikoa— aplikatu.

Anaia Musulmanak

1. Egungo islamismoan zuzenean gehien eragin duen
mugimendua Anaia Musulmanena izan da, 1928an Egip-
ton Hassan-al-Banna xekeak (1906-1949) fundatua.

Islamismoaren teorizatzaile hori Kairoko Al-Azhar uni-
bertsitatean Abduhren ikasle izandako gizon ikasi baten se-
mea zen, baina Islam tradizionalenaren balioak ere bere
egin zituen anaitasun *sufi* batean parte hartu zuenean. Bere
planteamendu xume eta moderatuek itzelezko eragina izan
dute piztualdi islamiko berrian: *Umma* nazio bakarra da.
Anaitasun lokarriak indartu behar dira. Eta erreformen oi-
narria Islamaren irakaspenetara itzultzea da.

2. Erradikalagoa izan zen Sayyid Qutb (1906-1966),
mugimenduaren ideologo nagusi gisa al-Bannaren ondo-
rengo izan zena. Mendebaldarrekin harreman onak zi-
tuen unibertsitate irakaslea zen, «konbertsio» pertsonal
bat bizi izan zuen eta Anaia Musulmanetan sartu zen.
Nasserrek jazarria, gainerako ia bizitza osoa kartzelan egin
zuen eta azkenik urkatu egin zuten. Tratu txarrak sufritu
arren, hantxe idatzi ahal izan zuen bere obraren funtsez-
ko atala. Qutben ustez, mundua *jahiliya* —hau da, ezjakin-
tasun egoera bat— bizitzen ari da, aro aurreislamikoan bi-
zi izandakoaren antzekoa. Islamak baditu gure garaiko
arazo sozial eta politiko larriak konpontzeko errezetak,

eta haren bidez Justizia Sozialaren ideala lor daiteke. Baina hura hitzekin defendatzea ez da nahikoa, ekintzekin defendatu behar da. Iraultza egin behar da⁷.

3. Qutben erradikalismoarekin batera, Anaia Musulmanen artean korronte moderatuagorik ere bada: biolentzia gaitzesten du eta islamismoa soilik predikazioarekin garatu daitekeelakoan dago. Hala ere, gogor erasotzen ditu «Islamaren etsaiak» —horien artean, mendebaldar inperialismoa— eta, *Umma* benetako Islamera eta Legearen altzora itzultzen denean, nazio musulmanak berritoren mundua konkistatuko duela baieztatzen du. Era horretan, islamismoaren eraikuntza teorikoa —egun gizarte musulmanaren sektore askok bere egin dutena— dagoeneko burututa dago.

4. Nasserrek eta bere ondorengoek krudelkeriaz jazarri zituzten Anaia Musulmanak. Haatik, Anaitasunaren zenbait gune arabiar eremu osoan hedatuz joan dira, pentsamendu islamista zabalduz. *Sirian* garapen handia lortu zuten, baina Baas Alderdia eta Assad diktadorea bilakatu zirenen beren etsai nagusi. 1982an oso ahulduta geratu zirenen huts egindako matxinada baten eta 10.000 hildako baino gehiagoko errepresioaren ondoren. *Arabian* erregimen wahabistak toleratzen ditu —auzi batzuetan bat dutoz biak— eta herritar askoren babesa eta begikotasuna dute. *Aljeriako* mugimendu islamista jatorriz ere hertsiki kidetuta dago Anaia Musulmanekin.

Irango iraultza islamikoa

Islamaren adar xiitak hasiera-hasieratik erakutsi zuen ezamitako botere politikoarekiko nolabaiteko mesfidantza, batzuetan etsaitasun bihurtzen zena. Horregatik eduki zuen arrakasta handia arabiarrek ez zirenen herritar musulmanen artean, batik bat irandarrengan sustraituz. 1501etik xiismoa irandar lurraldeko erlijio ofiziala da.

Ezkutatutako Imanaren —*Mahdi*—itzuleran sinesteak beti mantendu du esparru islamikoan juduenaren antzeko

itxaropen mesianikoa. Funtsezko sinesmena da xiismoan: *Mahdia* Denboraren Jaun gisa identifikatzen da, eta haren etorrera Azken Orduaren inguruan gertatuko da.

Ikusi dugunez, Lehen Mundu Gerraren ondoren Iranen Pahlavitarren dinastiak hartu zuen boterea, eta derri gorrezko mendebaldetzea ezarri zuten. 1953tik erregimena munduko diktadurarik latzenetakoa bihurtu zen. Ordena horren aurreko erresistentzia gisa, *fedayinak* (Islamaren gudariak) agertu ziren, Anaia Musulmanen baliokide xiitatzat har daitezkeenak. Hasiera batean, *ulema* (teologo) batzuen babesa jaso zuten, eta beren planteamenduak irandar kleroaren artean inposatzera iritsi ziren.

Horien artean Rudolah Khomeini nabarmendu zen (1902-1989): Gom hiri santutik Sharen erreformen aurkako eraso bortitzak jaurti zituen. Irandar poliziaren jazarpena zela-eta, lehenik Iraken eta beranduago Parisen errefuxiatu zen, eta 1979an Sha boteretik bota zuen iraultzaren iradokitzaille nagusi bihurtu zen.

Iraultzaren ondoren, haren garaipenean garrantzi erabakigarria izandako sektore marxisten aurkako erreprezio gogorrari ekin zitzaion. *Fedayinak*, *mujahidinak* eta *Tudeh* alderdi komunistako kideak atxilotu eta horietako asko exekutatu zituzten. *Xaria*, lege islamikoa, ezarri zen, Konstituzio baten bidez jasotzen zen arren. Konstituzio horiek Errepublikak islamikoa ezarri zuen, erreferendum baten bidez berronetsia. Sistema erlatiboki demokratiko bat ezarri zen, baina Khomeiniri —«gida espiritual» gisa— Estatuko erakunde guztien gainetik biziarteko boterea gorde zitzaion.

Lider xiitak bere ideien jarraitzaile ziren islamista erradikalen gehiegikeriak moderatzeko erabili zuen boterea. Auzitegi Iraultzaileen gehiegikeriak geldiarazi zituen, baina ez zituen disolbatu. Zenbait amnistia promulgatu zituen, baina ia inoiz ez zituzten bete. Exekuzio guztiek bere sinadura eraman zezatela eskatu zuen, baina hori ere ez zen errespetatu.

Errepublikako Presidente kargurako buruzagi erlatiboki moderatuak sustatu zituen. Hasiera batean oinordeko moderatu bat aukeratu bazuen ere, azkenean Khome-

nei izendatu zuen, aiatola erradikal bat, baina oso itzal eskasekoa. Horrela, Errepublikako Presidenteak, Rafsanjani moderatuak, benetako boterea bere eskutan gorde ahal izango zuen.

Irandar iraultzak itzelezko eragina izan zuen. Islamisten lehen garaipena bilakatu zen, eta beren ideiak errealtatean gauzatu zitezkeela nabarmendu zuen. 80ko hamarkadaren hasieran, iraultza islamikoa bolbora-loratzaren modura Ekialde Hurbil osoan heda zitekeela zirudien. Izan ere, herritar musulmanak beren identitatea aldarrizatzeko eta Mendebaldeari aurre egiteko prest zeuden. Israelgo Estatuaren gehiegikeriei Mendebaldeak emandako babesak itxuraz nabarmentzen zuenez, bi kulturen arteko gatazka historikoak bere horretan jarraitzen zuen, eta Islama defendatzeko ezinbestekoa zen muturreko planteamenduak hartzea.

Hala eta guztiz ere, zenbait faktorek prozesu hau gelditu —edo mantsotu— dute. Irandar iraultzak izaera xiita zuen; beraz, hango buruzagi erlijiosoek ezin izango zuten inoiz gainerako herrialde islamikoetako buruzagi izan, horietan gehiengoa sunita baita. Izan ere, herrialde islamikoetako gutxiengo xiitak nabarmendu egin dira iraultza islamikoaren aldeko defentsa aktiboan.

Bestalde, Golkoko monarkia petroliodunek mehatxutat hartu zituzten irandar xiiten planteamendu errepublikarak, eta ideia horien hedapena saihesteari ekin zioten. Orokorrean, Ekialde Hurbileko gobernuak iraultzaren kutsaduratik gordetzen saiatu ziren; horretarako, hainbat eta hainbat lege eta ohitura islamizatu zituzten, mendebaldar ereditik urrunarazten ziren erreformak burutuz. Era horretan, zeharka bada ere, iraultza islamikoak —garaipena eskuratu ez arren— lortu du dagoeneko politika eta gizarte musulmana errotik eraldatzea.

Irandar esperientziak ez du arrakasta handirik izan ikuspuntu ekonomiko batetik begiratuta —inflazio oso altua pairatzen du—, baina, planifikazio zentralaren eragozpenik gabe, berdintasunezko gizartea ekarri du. Neurri bateko porrot ekonomiko horrek ere beste herrialde batzuei iraultza hori imitatzeke asmoa burutik kendu die⁸.

Talibanak

Sobietarrek Afganistan inbaditzearen ondorioz, hiru milioi errefuxiatu egotera iritsi ziren. Horietatik gehienak Pakistango errefuxiatu eremuetan finkatu ziren. Garai horretan islamismo erradikala oso errotuta zegoen Pakistanen, eta haur errefuxiatu gehienek hango eskola koranikoetan jaso zuten hezkuntza. Horiek hazi zirenean, batzuek teologia islamikoa ikasteari ekin zioten —*talibanak*—, eta Afganistanen boterea lortzera iritsi ziren, Estatu islamikoari buruzko beren eredia inposatuz.

Erregimen komunistaren aurkako oposizio armatuak Estatu Batuen finantzazioa eta armamentua jaso zituen urte askotan. Hara hurbildu ziren arabiar herrialde guztietako boluntario islamistak, sarritan beren gobernuek go-go berotuta, nahiago baitzituzten horiek urrun eduki. Afganistanen boluntario horiek berehala egin zuten bat islamismoaren alderdi erradikalenarekin, eta, gainera, prestakuntza militar sakona jaso zuten.

Urte batzuk beranduago beren jatorrizko herrialdeetara itzuli zirenean, horietako askok iraultza islamikoa indarkeriarik bidez sustatzeari ekin zioten. Horixe gertatu zen Aljeria, Yemen eta Saudi Arabian. Osama Ben Laden guztien gainera gailentzen da. Saudiar dirudun hori halako boluntario askorekin harremanetan jarri zen eta «al-Qaeda» deritzon erakundea sortzea lortu zuen. Nazioarteko erakunde terrorista bat dugu hori: iraultza islamikoa bultzatzen du eta Estatu Batuak derrigortu nahi ditu beren indarrak Saudi Arabiatik ateratzera eta Israeli ere babesa kentzera. Horretarako, iparramerikar xedeen aurkako atentatu itzelak antolatzen dituzte, hildako ugari eraginez. Halaxe gertatu zen Tanzania eta Keniako iparramerikar enbaxadak lehertarazi zituztenean, edo New Yorkeko dorre bikien suntsidurarekin.

Jarrera politikoak

Gizarte moderno eta mendebaldarraren erronkak jarrera politiko askotarikoak eragin ditu azken mendean zehar. Horietatik gehienak oraindik ere indarrean daude, eta herrialde musulmanetan —bereziki arabiar herrialdeetan— politika egiten duten sektore nagusiak taxutzen dituzte.

1. Hasiera batean, gutxiagotasun-sentimendu nabarmen batek muturreko *mendebaldetzea* defendatzera eraman zituen zenbait buruzagi. Beren herria modernizatu nahi zuten, eta horrek Mendebaldeari imitatzea eskatzen zuen. Bide horixe aukeratu zuen Kemal Atatürkek Turkian, eta horri segitu zioten Pahlavitarrek ere Iranen. Honetantxe datza eredu hori: neutraltasun konfesionala bermatu eta kanpotiko erlijiotasun agerpen oro eragozten duen Estatu laikoa sustatzen da. Benetako kapitulazio kultural baten aurrean gaude, erlijioa pribatutasunaren esparrura murrizten baita. Planteamendu horrek zuzenean talaka egiten du erlijio musulmanaren ideia oso sakonekin. Atatürkek oso gogor jazarri zituen neutraltasun publiko hori mehatxatu zezaketen tradizio eta ohitura islamikoak —emakumeek beloa erabiltzea, esate baterako—.

2. Beste joera batek, Mendebaldearen erronkari aurre egin eta hura gainditzeko, modernizazio moderatuago baten alde egin zuen. Xede nagusia hauxe zen: mendebaldar gizartearen alderdirik baliagarrienak baliatu eta gizarte islamikoen errealitate eta pentsamoldera egokitzea. Duela hamarkada gutxi arte joera horrek izan du herriaren babesik handiena. Talde horren barruan azpimarra dezakegu, batez ere, *sozialismo arabista* delakoa, izaeraz nazionalista eta ezkertiarra, prozesu deskolonizatzailearen gidari izandakoa. Nazionalismo panarabiar eta progresista horren ildoan ditugu, adibidez, Baas Alderdia, Sirian eta Iraken gobernuan dagoena, Nasserren erregimena Egipton eta Bumedian-en FLN Aljerian.

Esperientzia horien guztien porrotak eragin handiko ondorioak izan ditu zibilizazio islamikoaren baitan. Ia beti

e regimen horiek diktadura bilakatu dira —batzuetan oso krudelak gainera, Saddam Husseinek Iraken ezarritakoa adibidez—, eta inoiz ere ez dute lortu herria pobreziatik ateratzea. Deskolonizazioarekin irekitako hainbat eta hainbat itxaropenek ez dute argirik ikusi. Petrolioaren jabe izateak ere ez die garapen ekonomikoa ekarri. Israelen aurrean izandako porrot iraingarriek erakusten dute zibilizazio horrek oraindik makalaldian sartuta jarraitzen duela.

Mendebaldetik elementu modernizatuak barneratzean, kultura mailan garesti ordaindu dute herrialde islamikoek; eta, gainera, desberdintasuna, zapalkuntza eta pobrezia izan dira emaitzak⁹.

3. Dagoeneko lehen aztertu dugu joera *islamista*. Horren barruan bi aldaera identifika daitezke:

- *Integristek* —wahabistak, Anaia Musulmanak, kasu— tradizioa baloratzen dute. Testu sakratuetara itzuli nahi dute, baina Tradizioak erantsi duen eta positiboa den guztia errespetatuz.

- *Fundamentalistak* —Khomeini eta afganiar talibanak, adibidez— literalistagoak dira, eta gizarte antolatze-ko arau erlijiosoak zehaztasunez aplikatzea da beren xedea, gizarte bakoitzaren berezitasunak eta erruki erlijioso-ko mendeetan zehar ikasitakoa alde batera utziz.

Lehen aztertu dugun beste ezberdintasun bat ere azpimarratu beharko litzateke: batetik, *Umma* indarkeriaren bidez defendatzen dutenak, eta, bestetik, erlijiotasunarekin eta predikazioarekin nahikoa dela uste duten sektore moderatuagoak. Errealitatean bi sektoreak elkarren osagari dira: planteamendu moderatuak erraz zabaltzen dira horiek entzutera alde aurretik prestatuta daudenen artean. Beranduago, batzuek joera moderatu hori utzi eta muturreko planteamenduak hartzen dituzte. Orduan, beren ekintza bortitzen bitartez protagonismo politiko nabarmena eskaintzen diote islamismoari.

Joera islamista horiek Estatuaren nolabaiteko deslegitimazioa partekatzen dute. Horien arabera, hasierako garaietan bezala, Estatu bakarrean politikoki batuta egon beharko luke *Ummak*, autoritate aldi berean zibil eta erlijioso

batek gobernatuta. Hori gertatzen ez denez, Estatuak ezin dira legitimatu. Planteamendu horrek potentzial iraultzaile handia ematen die, baina kaltegarria zaie herrialde bat gobernatzeko erantzukizunari aurre egin behar diotenean.

Mendebaldea «aurretik jarri» izanak sortzen dien samina ere partekatzen dute joera horiek. Zibilizazio islamiakoa modernitatearekin bateragarri bilakatuko dela eta berriro ere Mendebaldeari aurea hartuko diola uste dute, beti ere baldin eta musulmanak beren arauak leialki gordetzera itzultzen badira.

4. Anaitasun *sufiek* ez dute hertsiki joera politiko bat osatzen, baina politikaren aurrean erro islamikoekin koherenteagoa den jarrera bati eusten diote. Modernitatearen aurrean ez dute ezertan amore ematen. Islam oso espiritualista eta tradizionala jorratzen dute, jaiera erlijioso biziz. Erdi Aroan, jadanik, *sufiek* esperientzia espiritual pertsonala sustatzen zuten, forma erlijioso zehatzak erlatibizatuz. Sarritan «mistizismo» sufiaz hitz egiten da. Gaur egun anaitasun oso ezberdinak osatzen dituzte. Baina gehienek benetakotasun handiz gordetzen dute espiritualtasun islamikoa.

Anaitasun horiek klandestinitatera ere egokitu dira beharrezkoa izan denean, eta errepresio egoera latzetan ere eutsi diote beren identitateari. Beraiek mantendu dute Islamaren garra Ataturken Turkian edo Sobiet Batasunean. Jazarpenezko belaunaldi askoren ondoren, bizitasun handiz berragertzen ari dira eta gainerako herritarren artean Islama zabaltzeari laguntzen diote.

Politikaren ikuspuntutik, sufismoa oro har kontserbatzailea da, baina ez du ekimen politiko zehatzik defendatzen. Korrante modernistak uzkurak dira sufismoarekiko, mundu modemoaren balioetatik urruntzeko haren joreraren aurkakoak baitira. Sufismoa botere kolonialarekin kolaboratzen ere ikusi izan da, besterik gabe bere burua balio politikoetatik *at* ikusten zuelako. Gaur egun sufismoak hedapen nabaria du, oso zabaldua dago giro intelektualetan eta eragin azpimarragarria dauka gainerako musulmanengan.

Gizartea

Ekialde Hurbileko eta Afrika Iparraldeko herrialde musulmanek oro har erdi-mailako garapena dute. Ia herrialde horiek guztiak Nazio Batuek landutako Giza Garapenaren Indizearen sailkapenaren erdialdean kokatuta daude¹⁰.

Datu hori harrigarritzat jo daiteke, herrialde batzuetako pobrezia ikusirik. *Erljio islamikoak premia handiena dute nentzako laguntzak sustatzen ditu, eta era horretan pobrezia ren ondoriorik krudelenak leuntzen ditu. Haatik, desberdintasun larriak ere sor daitezke beste elementu kultural edo ekonomiko batzuek indar handiz esku hartzen dutenean*, Afrika Beltzeko eta Asiako hego-ekialdeko herrialde musulmanetan edo petrolioaren monarkiatan gertatzen den legez.

Komunitate islamiko batean pobreneen bazterketa soziala leuntzen duten elkartasun mekanismoak daude. Guztiak, baina batez ere aberatsenek, lagundu behar diete derigorezko limosnaren bidez —*zakat*— gutxien dutenei. Gutxi batzuen aberastasuna neurriren batean musulman txiroenen alde jartzen den heinean soilik da legitimoa.

Ekialde Hurbilean gizartea ez du neurritz kanpo aberastutako gutxiengo batek menderatzen. Salbuespena Golkoko monarkietan topa dezakegu: petrolioaren ondorio desitxuratzaila dela-eta, agintzen duten familietatik gertu elite oso aberatsak daude.

Tradizio intelektual sakonagoa duten herrialdeetan bakarrik —Egipto, Irak, Siria— identifikatzen dira hainbat mende atzera egiten duten erdi-mailako klaseak. Klase horiek gogo biziz hartu zituzten joera modernizatzaileak eta Mendebaldearen eragina. Unea iritsi zenean sozialismo arabistarekin ere bat egin zuten, mugimendu nazionalista eta antikoloniala aurrera eraman zuten, eta Estatu berrietako sektore gobernatzaile bilakatu ziren.

Haatik, herrialde hauetako biztanle gehienak XX. mendeko eraldaketek eta asaldurek gogor zigortutako nekazariak dira. Bizitza maila hobetzeko deskolonizazioak ekarritako itxaropenak ez ziren bete. Biztanleria izugarri

hazi zen —hazteko joera hori gaur egun moderatzen ari da— eta nekazaritza-ekoizpena —teknologia oso tradizionalarekin— ez zen egokitu beharrezkoa zen erritmora.

Askok eta askok hiri handietara emigratu zuten. Baina industriaren urritasunaren ondorioz, horietako asko ekonomia informala delakoan sartu ziren. Kulturalki, arrotza zaien eta ulertzen ez duten zibilizazio baten kolpeak jasan dituzte. Gainera, lehen adierazi bezala, Mendebaldeak eragindako umiliazioa oso sakon sentitzen dute, haren nagusitasun militar eta ekonomikoagatik eta Palestinako gatazkan izandako trataera bidegabeagatik.

Etsita, oste nekazari horiek islamismorantz itzultzen ari dira, gazteak bereziki, hazkunde demografikoaren ondorioz biztanleriaren %65 baitira. Mugimendu horrek duintasuna itzuli eta itxaropen berri bat eskaintzen diela sentitzen dute.

Herritar oste horiek Golkoko monarkiak gorrotatzen dituzte, aberastasunak *Ummara* eta txiroenengana ez itz u ltzea gaitzesten baitute. Monarkia horiek Mendebaldearen babesba dutenez, errealitatean komunitate islamikoari arrotzak zaizkion interesak defendatzen dituztela susmatzen dute hainbat eta hainbat musulmanek.

Herrialde gutxi batzuetan —Tunisia, Egipto—, hazkunde ekonomikoari eta ekoizpen-egituren modernizazio moderatuari esker zabaltzen ari diren erdi-mailako klase batzuk ditugu. Klase horiek bereziki nahasita daude: Mendebaldeko bizimoduaren alderdi positiboak ezagutzen dituzte —komertzioaren, turismoaren, unibertsitatearen edo emigrazioaren bitartez—, baina beren identitatea galtzeko beldurra ere badute. Eta areago beldurtzen ditu ezer gabe gelditu den jendearen bazterketak. Horregatik, *Islamaren eta modernitatearen arteko bateragarritasun mota - ren bat bilatzen dute, eta horiengan legoke, beraz, Mendebaldearen eta Islamaren arteko gatazka are gogorragoa saihesteko itxaropena.*

Emakumea gizarte islamikoan

Emakume musulmanaren sustapenerako prozesu sakon, zabal eta isil baten ondoan, hamarkadetan zehar aurreratutakoa denbora gutxian itxuraz geldiarazten duten erreakzio gogorrek sumatzen dira. Emakumeak herrialde islami-koetan —bereziki Ekialde Hurbileko eta Afrika Iparraldeko herrialdeetan— bizi duen egoera da, beharbada, zibilizazio musulmanaren alderdirik eztabaidatuena.

Emakumeari buruzko ohitura islamikoak Koranean, Sunnan eta tradizioetan ere oinarritzen dira. Tradizio horietako batzuk garai aurreislamikitik datoz. Mahomak bere predikua zuzendu zion arabiar gizartea patriarkala zen, tradizioz herri artzainei zegokien gizartea hain zuzen ere. Emakumeak familiaren ondareztat jotzen ziren eta gizonaren zaintzapean zeuden; haien zeregina, familia patriarkalaren jarraitasuna bermatzeko xedearekin, gizonezkoak, semeak, ugaltzea zen.

Koranak, eredu horren gehiegikeriei aurre egitearren, emakumea babesten du, alabak jaiotzerakoan hiltzea debekatuz, poligamia eta emaztearen zapuztea mugatuz, emakumeak jabetzarako eta hezkuntzarako duen eskubi-dea aintzatetsiz, eta ezkontzatan emakumearen onespena eskatuz. Erabaki horiek *sura* batzuetan —Jainkoak Mahomari egindako eta Koranean jasotako errebelazioak— datoz, eta zehazki lehenengo garaiari dagozkion surak dira, hau da, Mahoma Mekan bere emazte Khadijarekin bizi zen garaikoak eta jarraitzaile urriak zituenekoak.

Khadijaren heriotzaren eta Medinaranzko ihesaldia- ren ondoren, *sura* berriak gehienbat ideia patriarkalak jasotzen hasten dira, gizonezkoak emakumearen gain duen gailentasuna aldarrikatuz. Ezarritako gizarte egitura ez zauritzeko interesari esker, eta ageriko kontraesan hori konpontzearen, ondorengo *surak* lehenengoak baino garrantzitsuagoak zirela erabaki zen. Sektore musulman tradizionalistek interpretazio hori defendatzen jarraitzen dute, baina erformistek emakumearen aldekoagoak diren lehenengo *suren* gailentasuna aldarrikatzen dute¹¹.

Deskolonizazioaren ondoren eratutako erregimen laikoak izaera kulturalari eusteagatik arduratuta agertu ziren. Emakumearen legezko egoeraren baitako edozein eboluzio identitate-galera gisa interpreta zitekeela pentsatuz, gizonak emakumearen gain zuen autoritate tradizionala zilegitu zen.

Mugimendu islamisten azken orduko garapenak gizarte mailako eztabaidaren erdigunean kokatu du emakumearen egoeraren auzia. Emakumea lan esparrutik banatzea eta lanpostu horiek gizonezko langabetuen esku uztea ere defendatzen du zenbaitek. Hedapen islamistari aurre egitearren, Estatutik bertatik bultzatutako birtradizionali-zazio batez hitz egin daitekeelakoan gaude.

Harrigarria da hainbat emakumek islamismo hau gogo biziz onartzen dutela ikustea. Izan ere, emakume askok beren aurkako tradizio diskriminatzaileak babesten dituzte. Batzuetan inolako oinarri erlijiosorik ez duten tradizio aurreislamikoak dira. Adibide ikaragarri bat klitoriaren erauzketarena da, Afrikako eskualde musulman eta ez musulman batzuetan guztiz indarrean baitago eta milioika emakumeei eragiten baitie.

Haatik, gizarte errealitatea aldatzen ari da, batik bat biztanleriaren gero eta proportzio handiagoa hartzen duten hirietan. Leherketa demografikoaren, gizonezkoen emigrazioaren eta familiari dirua ekartzeko premiaren ondorioz, lanbide edo unibertsitate hezkuntzara iritsi ahal izan duten emakumeen jokabide soziala aldatzen ari da.

Beloaren edo *hidjab*-aren erabilerak, batzuetan, men-debaldarrok ematen diogun interpretazioaren aurkako zentzua dauka. Jantzi tradizional eroso eta merkea izateaz gain, hura daraman emakumeari libreki mugitzea eta unibertsitatera eta lan esparrura iristea ahalbidetzen dio.

Poligamia ez dago oso hedatuta eta, gainera, atzerakada nabarmenean dago. Zenbait herrialdetan debekatuta dago, eta gainerakoetan, berehalako baliogabetasuna hitzartzen da ezkontza-kontratuan bigarren ezkontza bat legokeen kasuetarako. Ezkontza bi familiren arteko hitzarmen gisa ulertzen da, nahiz eta hiri handietan gazteek aukeratzeko askatasun handiagoa eduki. Behin emakumea

ezkonduz gero, senarrari obeditu behar dio. Era berean, emakumearen herentzia bere anaiena baino txikiagoa da beti. Gainera, tradizio koranikoak gizonari emaztea zapuztea ahalbidetzen dio, baina emazteak, dibortziatzeko, epaile islamiko baten baimena behar du.

Emakumea oso barneratuta dago hezkuntza sisteman, oro har izaera mistokoa. Lehen hezkuntza emakumearentzat oro kortuta dago, eta parte-hartze nahikoa zabala du bigarren hezkuntzan. Haatik, herrialdeen arteko desberdintasunak handiak dira, eta, zenbait eskualdetan, neskak bigarren hezkuntzako ikastegietara bidaltzearen aurka agertzen dira. Unibertsitatean gizonetzko baino emakume gutxiago dago, baina alde murriztuz doa. Giro intelektual batzuetan, soilik emakumezkoentzako unibertsitateak eraikitzea defendatzen da, goi mailako hezkuntzan emakumearen presentzia zabala bermatzeko bide bakarra izan daitekeelakoan.

Emakumeak lan esparruan normaltasun osoz parte hartzen du nekazaritzan, baina zailtasun handiak topatzen ditu lanbide modernoetan. Gizonetzko askoren aburuz, emakumeek legitimitaterik gabe kentzen dizkiete lanpostu urriak.

Sexu desberdineko pertsonen arteko lankidetzak mesfidantza pizten du gizartean. Herrialde batzuek espazio banatuak ezarri dituzte lokal eta garraio publikoetan. Lanbide batzuetan bakarrik —irakasle edo erizain gisa, emakume ugari hartzen dituzten lanbideak baitira— desegiten dira mesfidantza horiek. Haatik, kontsumo ohitura berriek bigarren soldata bat lortzera derrigortzen dituzte familiak, eta ondorioz, mesfidantzak mesfidantza, emakumea lan esparrura sartzera¹².

Islamistek boterea lortzen dutenean, *Xariaren* ezarpenak emakumearen egoera jasangaitza bihurtzen du. Afganistanen talibanek gizonen eta emakumeen arteko erabateko bereizketa inposatu zuten, gaiso zeuden emakumeak ospitaletatik bidaltzeraino iritsiz. Emakumeak guztiz esaltzen dituen burka beti janztara derrigortu zituzten. Gainera, kaletik bakarrik joatea debekatu zitzaion; era horretan, ezkonduta ez zeuden emakumeentzat ia ezinezkoa

zen bizitzeko lain irabaztea. Izan ere, araturen bat hautsi zutela pentsa zezakeen taliban talderen baten jipoia jasotzeko arrisku bizian zeuden beti.

Talibanen erregimena muturreko kasu bat izan bazen ere, tamalez sentiberatasun modernoari arrotzak zaizkion eta giza eskubideen erabat aurkakoak diren egoera ugari ikusten dira eremu musulmanean. Hala ere, Islamak ez du berdin jokutzen leku guztietan: Europan eta Asiako erdialde, hegoalde eta hego-ekialdean, beste osagai kultural batzuk daudenez, emakume musulmanari baldintza hobek eskaintzen zaizkie, eskualde horietako beste emakumeei ematen zaizkienaren antzekoak.

Paradoxalki, Islamaren historian emakumeak inoiz ez du izan hain eginkizun esanguratsua. 1995ean emakumezko hiru lehen ministro zeuden herrialde musulmanetan: Tansu Ciller Turkian, Benazir Bhutto Pakistanen eta Khaleda Zia Bangladeshen. Inoiz baino emakume poeta eta nobelagile gehiago dago, eta harrigarria da emakume askok beren egoerak gizarte islamikoan dituen arazoak salatzeo erakusten duten kemena eta ausardia¹³.

Duela gutxiko gatazkak

Islamismoaren aurrerakadak —batzuetan indarkeriaz baliaturik— hainbat eta hainbat gatazka eragin ditu herrialde askotan. Petrolioaren interesak, diktaduren ugaritzeak eta Palestinako gatazkak sortutako ezinegonak Ekialde Hurbila eta Afrika Iparraldea munduko eskualderik ezegonkorrenak bihurtu dituzte.

Iran eta Iraken arteko gerra

Iran eta Iraken arteko gatazka persiar eta turkiar inperioen arteko borroken herentzia da. Borroka horien gune nagusiak honako bi hauek ziren: Shat-al-Arab kanala —Iraken kontrolpean geratu zen— eta Khuzistan eskualdea —petrolio putzutan aberatsa, Iranen esku geratu zen nahiz eta biztanleak irandarrak ez izan, erlijio xiitako arabiarrek baizik—.

1978an Iranen iraultza islamikoa gailendu zenean, Persiako Golkoan barrena—hantxe daude munduko petrolio erreserben bi heren— hedatuko zela zirudien. Iraken, petrolioaren bidez lortutako baliabide ugariak armada bote retsu bat eraikitzea ahalbidetu zuten. Armada horrekin Sadam Hussein diktadoreak Israelen aurka jo zezakeela uste zuen, horrela arabiar esparru osoaren lider bilakatuz.

Hussein indar handiz zapaltzen ari zen hegoaldeko xiitak, irandar iraultza islamikoaren aldekoak. 1980an, garbiketa iraultzaileen ondorioz irandar armada ahulduta egongo zela pentsatuz, Iran eraso zuen. Horrela, kutsadura islamikotik gorde nahi zuen Irak, eta aldi berean Khuzis-tango petrolio bereganatu. Haatik, irandar iraultzaileen ezusteko erresistentziak zortzi urte iraun eta bi herrialdeak odolustu zituen gerra luze bati eman zion hasiera.

Mendebaldeko potentziek armak esportatzeko —bi herrialdeek beren petrolio baliabideei esker erraz eros zitzaizketen— eta bide batez bi potentzia arriskutsu ahultzeko aukera ikusi zuten gatazka horretan. 1988an amistizio batera iritsi ziren, nabarmenega baitzen gerra hori ezin izango zuela bi lehiakideetako inork irabazi.

Golkoko gerra: «odola petrolioaren truke»

1990ean Saddam Husseinek armada boteretsua gordetzen zuen oraindik, eta arabiar eremuko lider bihurtzeko nahi zuen erabili. Bere ustez, bai Mendebaldeak eta baita Golkoko monarkiek ere Irango iraultza islamistaren hedapen beldurgarria eragotzi zezakeen ezkututzat hartzen zuten Hussein bera. Uste horretan oinarrituz, Kuwait inbaditu zuen. Biztanle gutxi eta itzelezko petrolio erreserbak zituen herrialde txiki hori, historikoki, irakiar lurraldearen zatia zen. Deskolonizazioa iritsi zenean, britainiarrek nahiago izan zuten Kuwait bereizi, bertako aberastasunak errazago ustiatu ahal izateko. Irakek ez zuen inoiz onartu espoliatutzat jotzen zuen independentzia hori.

Ekialdeko 1989ko iraultzak Yaltan ezarritako nazioarteko ordena hautsi zuen. Saddam Husseinen anbizioak aukera ezin hobea eskaini zion Bush presidenteari nazioarteko ordena berri baten esparrua zedarritzeko. Bide batez, Golkoko eskualdea —herrialde garatuen energi hornikuntzaren iturria— mendebaldar kontrol militarren pean jartzea lortu zuen. Gatazka sortuz gero AEBak neutralak izango zirela ziurtatu zion amerikar enbaxadak Saddam Husseinari Kuwait inbaditu baino egun batzuk lehenago.

Segurtasun Kontseiluak —Errusia eta Txina, barne arazoengatik, neutralizatuta zeuden— zuzendu zuen gatazka itxuraz, esku-hartzearen mendebaldar izaera erabatekoa mozorrotuz. Hasieratik hauteman zuen herrialde musulmanetako iritzi publikoak gerra hori *Ummaren* aurkako eraso gisa. Saddam Hussein diktadore beldurgarria zen benetan, baina mundu islamikoan ez dago ia sistema demokratikorik. Haren armada ahaltsuak Golkoaren eta bertako petrolio erreserba itzelen kontrola hartzeko aukerak aldekotasun asko zituen musulman askoren artean. Izan ere, Islama behin eta berriro iraintzen zen bitartean aberastasuren bizi ziren monarkien aurka zeuden. Lider boteretsu eta ausart batek, Mendebaldeari aurre egin eta Golkoko lurraldea bateratzeko gai izango zen lider batek, Israel garaitu eta musulmanei duintasuna itzultzeko gauza izango zen mundu mailako potentzia bat sortu ahal izango zuen.

Botere militarren erakustaldia eta mendebaldar potentzien —hau da, ospe txarreko Golkoko monarkien aliatuen— garaipena beste porrot bat bezala interpretatu zuten arabiar askok, eta Mendebaldearekiko sumindura areagotu zien. Dena den, Sadam Husseinen ukatu ezinezko krudelkerien inguruan propaganda eraginkorra antolatu bazuten ere, une erabakigarrian, Estatu Batuek haren erabateko porrota saihestu zuten. Izan ere, haren diktadura bortitza ez zen inoiz esku-hartzearen benetakoa zioa izan, eta Estatu Batuek irandar iraultzari aurre egin ziezaiokeen ezkutu baten premia zuten oraindik ere.

Aljeriako gerra zibila

Frantses kolonizazioan zehar, aljeriar kultura errotik ezabatzen saiatu ziren: frantsesa izan zen hizkuntza ofizial bakarra eta Islama desagertarazi zuten hezkuntza programatik. 1962an Aljeriak independentzia lortu zuenean, argi geratu zen Islamak herritarren artean gordetzen zuen indarra, kolonizatzaileen urtetako etsaitasunaren gainetik. Kolonizazioaren aurkako borroka iraultzailea termino marxistatan interpretatu zuten batzuek, eta *Ummaren* etsaien aurkako *Jihad* gisa bestetzuek.

Nahasketa horrek gatazka larria sortu zuen Estatu berrian. Erregimen sozialista eta diktatoriala ezarri zen, sobietar eredutik hurbil. Islama aldarrikatu zen erlijio ofizialtzat eta 10.000 meskita baino gehiago eraiki ziren, baina hori guztia ez zen nahikoa *Xariaren* arau batzuen ezarpena begi onez ikusiko luketen herritar askorentzat. Islama, aljeriar autoritate laikoentzat, *bizitzeko modua baino identitate zeinu bat zen*.

Kolonizazioak gizarte zatitu bat utzi zuen: gutxiengo oso mendebaldetu batek armada eta politika kontrolatzen zuen; eta biztanleriaren gehiengo oso tradizionala zen, emakumeari lan esparruan ia lekurik utzi gabe.

70eko hamarkadan Anaia Musulmanen hurbileko mugimendu bat agertu zen, zeharka Saudi Arabiaren laguntzaz. Irandar iraultzaren ereduak gunee horren eragina biderkatu zuen. Haien jarduera neurri batean toleratzen

zenez, erregimen diktatorialak herritarren sortzen zuen ezinegona bideratu ahal izan zuten. Afganistango gerrak boluntario islamista ugari erakarri zituen, gero *Jihadean* borrokan jarraitzeko prest itzultzen zirenak.

Lehenengo hauteskunde demokratikoak Salbaziorako Fronte Islamikoko islamista moderatuek irabazi zituzten, bai 1990eko udal hauteskundeak bai 1992ko hauteskunde orokorrak. *Xaria* berehala ezartzeko beren asmoak izua eragin zuen hiritar sektore mendebaldetuengan, batez ere lan egiten zuten emakumeengan. Salbaziorako Fronte Islamikoak hauteskunde orokorretan izandako garaipena baliogabetu zen —europar herrialdeen laguntza ez oso demokratikoaren—, buruzagiak atxilotu zituzten eta bere meskitetako jarduera gogor murriztu zen. Horri guztiari erantzuteko, terrorismo islamikoa agertu zen. Indarkeria selektibo batetik —hasiera batean atzerita — aurka eta ondoren emakume langileen aurka— indarkeria masibora igaroda, auzo eta herrietan sarraski ikaragarriak burutuz.

Segurtasun indarren ekimenak —ohiko torturak, epaiketak gabeko exekuzioak, kontzentrazio eremuak eta desagertu ugariak— indarkeriaren gorpila azkartu baino ez du egin.

Batzuei mesfidantza sortzen die poliziak eta armadak sarraski islamistetan erakutsitako eraginkortasun gabetia ulertezinak, eta errepresioa justifikatu eta epe erdian erregimen diktatoriala berrezartzeko asmoz sarraski horiek baimentzen dituztela susmatzen dute. Benetako gerra zibil batez ari gara, milaka eta milaka hildako utzi baititu. Gerra hau Europaren atarian gertatzen ari da eta bere ondorioak ezin dira oraindik guztiz aurreikusi.

Afganistango gerra

Afganistan «Estatu-tapoi» izan zen Ekialde Hurbileko ingeles kolonien eta tsarren Inperioaren artean. Bere mugek jatorri askotariko herriak biltzen dituzte eta horien lurralde tradizionalak artifizialki banatzen dituzte. Urte askotan zehar, nomadismoaren ondorioz, muga horiek ez dute ia eraginkortasun praktikorik eduki.

1978an irandar iraultza islamikoa lehertu zenean, Sobiet Batasunak iraultza hori Afganistanera hedatzeko beldurra izan zuen, non garai horretan beren aldeko erregimena baitzegoen. Areago, iraultzak Asia Erdialdeko sobietar biztanleriari —gehienak musulmanak— eragiteko beldurra ere bazuten. 1979an sobietar tropek Afganistan inbaditu zuten eta aurrekoa baino gobernari leialagoa ezarri zuten. Ekintza hori gerra hotzaren testuinguruan ulertu zen, eta Estatu Batuek gerrilla antikomunista bat finantzatu zuten. Gerrilla horrek Pakistanen zuen basea, bertan ia lau milioi errefuxiatu finkatu baitziren. Islamistek Sobiet Batasunak *Ummari* egindako eraso gisa ikusi zuten gatazka hori, eta Saudi Arabiak finantzaturako boluntario ugari bidali zituzten. 1988an sobietarrek Afganistan utzi zuten, itxuraz egoera egonkorra utziz.

1991n, armen hornikuntza eteteko SESBen eta Estatu Batuen arteko hitzarmenak Saudi Arabiari eta Irani utzi zien protagonismo osoa, hainbat gerrilla islamista finantzatzen zituzten herrialdeei, alegia. Iparraldean tadjik eta uzbeken gerrillek —Tadjikistan eta Uzbekistan ordurako herrialde independenteak ziren— kutsu etniko nabarmena aurkezten zuten; baita mendebaldeko hazarak ere, Iranetik hurbil. Hegoaldean eta ekialdean gerrillak Pakistan islamistan zituen bere baseak. Gehienak paxtu herriaren kide izan arren —gehiengoaren etnia, Pakistanen ere finkatua—, gerrilla horrek kutsu erlijioso handiagoa zuen.

Erregimen komunistaren kolapsoak 1992an zenbait talde gerillariren koalizio baten esku utzi zuen boterea. Talde horien artean Massud tadjik liderra gailentzen zen, «Panxirko lehoia» izendatua eta antisobietar erresistentziaren lider nagusietakoa. Taldeen arteko ezadostasunek borroka odoltsuen gune bihurtu zuten berehala Kabul, herritar gehienek exodoa eraginez.

1994an talibanen mugimendu islamista agertu zen, Omar *mulah*-ren gidaritzapean. Denbora gutxian paxtu guztiak bateratu zituen eta 1996an Kabul inguratu zuen. Beste sarraski bat saihestearren, Massudek Kabul utzi zuen, baina erresistentziari ekin zion iparraldeko mendietan. Ikusi dugunez, talibanek zurruntasun osoz aplikatu zuten

lege islamikoa, *Xariaren* zenbait osagai eta paxtuen hainbat tradizio nahasiz. Atzerritarrek sustatutako gobernuen aurkako *Jihad* islamikorako deia oso begi onez ikusi zuten herritarrek, baita lurralde horietan lortu zuten bakealdia ere, etnien arteko urtetako borroken ondoren.

Talibanek, ordea, etsaiak ere topatu zituzten: Errusia beldur zen Asia Erdialdeko errepublika musulmanetan izan zezaketen eraginaz, eta Massud babesten zuten; Iran haserre zegoen afganiar xiiten aurka —hazarak— eraman-dako errepresio bortitzagatik. Aitzitik, Pakistanen erabateko sostengua izan zuten talibanek, eta oro har Estatu Batuen ulerkuntza eta nolabaiteko babesa ere jaso zuten. Izan ere, Pakistan eta Afganistanen zehar gas natural eta petrdio erreserba handietara sarbidea lortzeko interesa babesten zuten Estatu Batuek. Massuden aurkako borrokan boluntario islamisten laguntza jaso zuten talibanek. Horien artean Osama Ben Laden eta al-Qaedako gerrilariak zeuden, Afganistanen finkatu baitzituzten beren baseak.

Massud erahil eta pixkat beranduago, Osama Ben Ladenen jarraitzaileek 2001eko irailaren 11n Pentagonoaren eraikuntzaren aurkako atentatua egin zuten eta New Yorkeko dorre bikiak suntsitu zituzten. Erasoak itzelezko inpaktua eduki zuen iparramerikar iritzi publikoan, Estatu Batuek ukiezinak zirelako mitoarekin amaitzen baitzuen. Bush presidentek oso gogor erantzun zuen: Ben Ladeni gerra deklaratu zion, historian lehen aldiz NATO tratatuaren defentsa klausulari hel egin zion eta Afganistan bonbardatu zuen. Massuden taldeari emandako laguntzak Kabul hartzea eta Afganistanen zatirik handiena kontrolatzea ahalbidetu zion gerrillariei. Estatu Batuek, indarrezko bere posiziotik, bere eraginpean gobernatuko lukeen koalizio etniko batek osatutako gobernu inposatzen saiatzen ari dira. Biktima zibil eta militarren kopurua zenbatu ezinezkoa izan da, eta milaka boluntario islamista atxilotu dituzte. Baina lerro hauek idazten ari garen une honetan, Omar *mulah* eta Osama Ben Laden ezin izan dituzte oraindik atxilotu.

Orain arte, gatazka horretan Estatu Batuek buruzagi musulmanen ulerkuntza eta herritar osten pasibotasuna

izan dituzte beren alde. Baina baliteke, beste herrialde musulmanen bat erasotzen badute, iritzi publiko musulmanaren etsaitasunezko beste erantzun bat sortzea eta militantzia islamista haztea.

Herrialde islamikoak egun

Asiako ekialdeko herrialde musulman batzuk hazkunde ekonomiko azeleratua izaten ari dira, Afrika Beltzekoak azpigarapenean murgilduta diruditen bitartean. Ekialde Hurbilean leherketa demografikoa eta kultur identitatearen krisia dira oro har diktadoreek gobernatutako herrialdeen arazo larrienak.

Asiako ekialde eta hegoaldea

Asiako hego-ekialdeko zenbait herrialde musulman —*Indonesia* eta *Malaysia*, kasu— Pazifikoaren eskualde horretako hazkunde azeleratuan murgilduta dauden herrialdeen artean daude. Herritar musulmanak arazo gehiegirik gabe bizi dira beste erlijioetako herritarrekin batera. Haatik, talde islamistak gero eta aktiboagoak dira gazteen artean, eta gobernuek lehentasunen artean kokatzen dute mugimendu hauen garapena geratzea. Indonesiak —herrialde musulman handiena, 200 milioi biztanle inguru rekin— orain arte herritarrei lege islamikoak ezartzea saihestu du.

Filipinetan duela hamarkada batzuetatik ari da gerrilla musulman bat Mindanao uhartearen independentzia lortu nahian, herritar islamistak gehiengo baitira bertan.

Indian gutxiengo musulmana hegemonikoa izan zen independentziaren aurretik, baina horren ondoren musulman asko Pakistanera emigratzera behartu zituzten, erlijioen arteko indarkeriaren biktima bilakatuta. Hala ere, fundamentalismo hinduaren indarkeria sarritan jasaten duten 100 milioi musulman inguru geratzen dira oraindik herrialdean.

Bangladeshen, fundamentalismoaren gero eta eragin larriagoari aurre egitearren, Islama Estatuko erlijio izendatu dute.

Pakistanen, Indiarekin duen gatazka ezkutuaren ondorioz, identitate erlijiosoa azpimarratzen da. 80ko hamarkadan zehar Zia diktadorea erabateko islamizazioa inposatzen saiatu zen, *Xariari* dagozkion lege batzuk ezarriz.

Gaur egun, pakistandar armadak babes bizia eskaintzen dio afganiar talibanen fundamentalismo erradikalari.

Afrika Beltza

Afrika Beltzean Islama ikusgarri hedatzen ari da, batik bat antzinatik eremu musulmanarekin harreman komertzialak dituzten eskualdeetan, hau da, Sahara Hegoaldean eta Afrika Ekialdean. Eskualde horietan, Islamera bihurtzeak promozio soziala dakar. Saudi Arabiak kultur eta hezkuntza zentro gisa diharduten meskitak finantzatzen ditu. Hemen Islama tokian tokiko tradizio eta ohiturei egokitzen zaie, eta bide batez tribu eta etnien ateko mugak ezabatzen ditu, fededun guztiak komunitate bakar batean bateratuz¹⁴. Zentzu horretan, ez da ahaztu behar Islama hasiera-hasieratik arazakeriaren aurka egon dela errotik¹⁵.

Misiolari kristauen ekimena ez bezala, musulmanen ordezkariena hertsiki erlijiosoa da, garapen ekonomikoaren inguruko egitasmoetan parte hartzeari uko eginez. *Nigeriako* herriar gehienak —Afrikako herrialderik populatuena da 115 milioi biztanlerekin— musulmanak dira.

Ekialde Hurbila eta Afrika Iparraldea

Musulman guztien zati txiki bat baino osatzen ez duten arren, Ekialde Hurbileko arabiar herrialdeak dira mundu islamikoaren bihotza. Irandarrak berak ere gune pribilegiatu horretatik at geratzen dira, beren izaera xiita eta indoeuroparra dela eta. Duela mende askotatik ernaldu da Egipto, Siria eta Iraken intelektualitate musulman aberatsa.

Egipton dago Al-Azhar unibertsitatea, Kairon, ikasketa islamikoen munduko erakunde zaharrena eta eragin handikoena. Han garatu da pentsamendu islamista eta hantxe jaio da Anaia Musulmanen mugimendua. Hosni Mubaraken erregimenak mugimendu erradikalenen zapalkuntza eta islamista moderatuekin elkarrizketa konbinatzen ditu. Gero eta hedatuago dagoen erradikalismoak gut-

xiengo kristau koptoarekin benetako gatazkak sortu ditu, antzinatek tolerantziak ezaugarritutako herrialde batean harrigarria bada ere.

Siria eta *Irak* zibilizazio zaharren egoitza dira. Beren inguruko herrialdeak baino garatuago daude ekonomiko-ki, eta tradizio luzea duten erdi-mailako klaseen protagonismoa azpimarragarria da. Independentzia lortu zutenetik Baas Alderdi laiko, sozialista eta panarabistaren adar lehiakideek gobernatu dituzte bi herrialdeak. Sirian Hafez al-Assad-en diktadura estuak, Israelen aurkako bi gerraren eta islamisten errepresio gogorraren ondoren, nolabaiteko egonkortasuna eta hazkunde ekonomiko esanguratsua erakutsi ditu. Irakek itzelezko atzeraldia pairatzen du, NBEk Golkoko gerraren ondoren ezarritako blokeoaren ondorioz; eta, aldi berean, arabiar xiiten eta kurduen matxinadek irauten dute, arabiar suniten gutxiengoaren zapalkuntzapean baitaude.

Eskualde horretan kokatzen da *kurduen* drama. Herri hori jatorriz indoeuroparra da eta 25 milioi herritar inguru ditu. Hala ere, banaketa kolonialaren ondorioz, herritar horiek Turkia, Irak eta Iranen lurraldeetan banatuta geratu ziren, eta hiru herrialdeetan errepresio bortitza jasaten dute. Herrialde horien arteko lehiak bakarrik eskaintzen die, noizbehinka, arnasaldiren bat.

Turkian alderdi islamista moderatuen gorakadak ez du aldatu erregimenaren errotiko izaera laikoa, Kemal Atatürken herentziaren zaindari sentitzen den armadak bermatua. Arabiar auzokoengandik kulturalki urrun, Turkiak europar zaletasun nabarmena dauka, Europako Bata-sunean sartzea eskatzeraino. Baina gutxiengo kurduaren giza eskubideak behin eta berriro urratzen dituztenez, oraingoz ezinezkoa bihurtu da asmo hori. Bestalde, Asia Erdialdeko turkiar herrialdeen independentziak asiar eremu horren gain Turkiaren lidergoa hedatzeko xedea eta identitate musulmana ere berritu ditu.

Irandar iraultzaz geroztik *Saudi Arabiako* monarkia wahabistak are gogortasun handiagoz aplikatzen du *Xaria*: besteak beste, zartaden zigorra edo lapurrei eskua moztearen arauak gordetzen dira. Mekako buruzagi erlijiosoek,

Saudi Arabiako Ulemen Kontseiluaren bidez, autoritate erlijioso ukaezinari eusten diote eremu musulman osoan. Saudi Arabiak, petrolioari esker lortutako diru sarrera handiez baliatuz, milioika erromes musulmanei Mekara joatea finantzatzen die eta herrialde askotan —batik bat Afrika Beltzean— meskitak eraiki eta mantentzen ditu. Gainera, diru horrekin palestinar errefuxiatuak mantentzen ditu eta mugimendu islamistak eremu islamiko osoan hedadaitezen sustatzen du ahapeka.

Sudanen gobernu integrista islamikoak *Xaria* ezarri du, eta hegoaldeko kristauen aurkako gerra luze eta neka-garriari —noiz edo noiz genozidiorantz hurbilduz— eusten dio.

Marokon Hassan II.a erregea aldi berean buruzagi politiko eta erlijiosoa izan da. Erregimen autoritarioa da Marokokoa, erakunde demokratiko batzuen funtzionamendu mugatua onartzen duen arren. Mahomaren ondorengo zuzena izanik, *Fededunen Komandante* gisa aintzatesten dute erregea marokoar jarraitzaileek. Buruzagi erlijioso izateak bere botere politikoa indartu du beti, eta Marokon islamismoaren garapena geldiarazteko autoritatea eman dio. Beharrezkoa iruditu zaionean gogortasunez zapaldu ditu integrista islamikoak, eta gaur egun oso estu zaintzen du haien jarduera, Aljeriako gertakariak bere herrialdea kutsatzeko beldurragatik. Identitate islamikoaren sentimendua oso sustraituta dago Marokon; halaxe nabarmendu zuen, esate baterako, Golkoko gerran zehar Saddam Hussein alde marokoar herritarrek erakutsitako jarrerak. Dena dela, zaila da bere bilakaera zein izango den aurreikustea. Izan ere, Europara ere hertsiki lotuta dago emigrazioaren bitartez; eta horrekin batera, hazkunde ekonomiko azeleratuaren eta industrializazioaren ondorioz, gizate-eraldaketa prozesu bizian erabat sartuta dago.

Islama nazioarteko ordenan

Azken mendeetako kolonialismoak eta azken hamarkadetako palestinar arazoak makalaldi egoera larrian kokatu dute zibilizazio musulmana.

Hala ere, dagoeneko ikusi dugunez, berriki identitate islamikoaren nolabaiteko susperraldiaren aurrean gaude. Hazkunde demografiko bizkorra oztopo larria da herrialde musulmanen garapenarentzat, baina nazioarte mailan gero eta protagonismo handiagoa edukitzeko itxaropena ematen die. Islamaren antiarrazakeriaren erradikaltasunak arrazagatik diskriminatutako hainbat eta hainbat gutxiengoren artean hedatzeko aukera eskaintzen dio.

Mugimendu islamikoen gorakadak barneko gatazka-egoera eta ezegonkortasun gogorra eragiten du herrialde horietan; baina, aldi berean, beren identitate kolektiboaren zeinuak indartzen eta beren kulturaren balioarekiko konfiantza itzultzen ari zaie.

Mendebaldeak munta handiko etsai gisa hautematen du Islama, eta hura satanizatzeko joera dauka.

1989ko Ekialdeko iraultzaren ondoren, mundu kapitalista «areriorik» gabe geratu zen. Baina bere egitura ideologiko eta militarrek kanpoko etsairen batekiko beldurra- ren premia du gizarte mailako nolabaiteko diziplina ezarri eta hainbat erabaki politiko eta ekonomiko justifikatzeko. Txinak, bere handitasunagatik eta gero eta itzal handi- goa edukitzeagatik, zeregin hori bete zezakeen. Baina mendebalder kulturaren alde erakusten duen joera nabariaren ondorioz —giza eskubideak behin eta berriro bortxatzen dituen arren—, etsai arriskutsutzat baino itzelezko merkatu potentzialtzat jotzen du Mendebaldeak.

Herriar musulmanek Mendebaldearen eragina bereganatzeko duten erresistentziak Islama bihurtzen du zeregin hura betetzeko hautagai egokiena. Herrialde musulmanetan erregimen diktatorialak erraz ugaritzen direnez gero, eta giza eskubideekiko erakusten duten errespetu eskasa ere aintzat hartuz, horiek demonizatzea ez da eginkizun zaila. Irailaren 11ko atentatuek islamismoari —eta, heda-

duraz, mundu islamiko osoari— esleitu diote behin betiko «arerioaren» lekua. Atentatuek sortutako psikositik abiatuz, Estatu Batuetako konglomeratu industrial-militarrak gastu militararen hazkunde guztiz bizkorra erdietsi du.

Datu guztien arabera, Estatu Batuetako egungo buruzagiek munduko ordena «unilateralista» hautatu dute. Bertan, beren interes ekonomiko edo militarrek bestelako edozein auziren gaineko lehentasuna dute, eta nazioarteko lankidetzan oinarritutako «multilateralismo» tradizionala baztertu da. Zentzu horretan, iparramerikar buruzagiei ez zaizkie gehiegi axola, dirudienez, auzokide musulmanekin haserretzeak europarrei sor diezazkiekeen arazoak.

Baina kontuan har dezagun munduko petrolio erreserben bi heren baino gehiago herrialde musulmanetan daudela. Itxuraz, epe luze batean petrolio izango da oraindik energia iturri nagusia. Mendebaldeak, petrolio homikuntza bematzearen, erregimen autoritario horietako buruzagi oligarkikoekin hitzarmenak egitera —batzuetan etika izpirik gabe— derrigortuta ikusi du bere burua.

Estatu Batuek gogo biziz jarraitzen dute Israel babes-ten, nahiz eta Palestinako lurralde okupatuetan Nazioarteko Zuzenbidea eta giza eskubideak sistematikoki bortxatzen dituen. Ulegarria dirudi, justifikatzen ez badu ere, herriar musulmanen zati esanguratsu batek —batez ere txiromak— Mendebaldearen aurkako gorroto sentimendua garatzea. *Umma* esparru guztietan ari da erasoak jasaten —aidanez, Bosniako tragediak horixe berronesten du—, eta fededunen betebeharra hura defendatzea da. Musulman askok sentitzen du *Jihadera* jotzeko eginbeharra, oraingoan mendebaldar agresioaren aurkako borroka armatu gisa interpretatuta. Sadam Hussein bezalako diktadore gaitzesgarri bat Mendebaldeari eta petrolioaren oligarkiei aurre egitera ausartzen denean, herriarren sektore horrek Husseinen krudelkeriak ahazteko joera dauka, harrotasun islamikoa defendatzen duen heroetzat hartuz.

Mendebaldar herrialdeetako eta herrialde musulmanetako biztanleriaren arteko urruntzea gero eta sakonagoa izateko mehatxupearan gaude. Epe erdira ez da izango beharbada oso arazo larria Estatu Batuentzat edo Japonia-

rentzat, baina bai Europarentzat. Gure auzokoak dira, eta ikusgarri hazten ari den populazioa dute. Afrika Beltzean eta europar herrialdeetan beretan hedatzen ari dira argi eta garbi, handituz doan ezinbesteko inmigrazioaren bitartez. Gure ekonomiak mende honetan zehar beharko dituen energi erreserben jabe dira.

Gure oparotasun ekonomikoa eta gure egonkortasun soziala hein handi batean gure adsikide musulmanekin harreman ona ezartzeko gaitasunaren menpe daude. Ezinbestekoa eta presazkoa da bizikidetzaren eta ulerkuntzaren ildora eramango gaituen elkarrizketa bide bat irekitzea. Zalantzarik gabe, europar lurraldean finkatu diren komunitate musulmanek, besteak beste, ekarpen erabakigarria egin diezaiokeite elkarrizketa horri.^o

[Xabier Eizagirrek euskaratua]

-
1. Artikulu hau Luis Solsen lan baten itzulpena da (ikus Sols, Luis: *El Islam para un diálogo necesario*, Bartzelona, Cristianisme i Justícia, Cuadernos Cristianisme i Justícia bilduma, 82. zenbakia, 1998ko maiatza). *Jakin*-en zenbaki monografiko honetarako, 1998ko testua egokitu eta osatu digu egileak, azken urte hauetako gertakariak ere jasotzearren.
 2. *Hanafismoa* (Abu Hanifak 767an fundatua) da liberalena; *malekita* (Malik, 767) gaur egun oso jarraitzaile gutxi ditu; *xafismoa* (Xafi, 820) batik bat Egipton eta Arabian hedatzen da; eta *hanbalismoa* (Ibn Hanbal, 855) zurrunena da, Bagdaden eratu zen eta egun Saudi Arabian nagusi da.
 3. Irgun taldeak —geroago lehen ministro eta Bakearen Nobel Sari izandako Menahem Begin eta Yitzhak Shamir lehen ministroa ere taldeko partaide izan ziren— erahil zuen Bernardotte kondea, Nazio Batuen ordezkaria, eta David Erregea Hotela lehertu zuen, izugarritzko txikizioa eraginez. Dier Jassin ere eraso zuten, buruzagi sionistekin harreman onak ezartzeagatik adiskidetasunaren sinbolo bilakatutako arabiar herrikka: biztanle guztiak hil zituzten, berrehun eta berrogeita hamar gizon, emakume eta haurretik gora. Era horretan lortu zuten hainbat eta hainbat arabiar izutuk estatu juduari egokitutako eskualdetik alde egitea. Hasiera batean eskualde horrek 498.000 biztanle judu eta

- 497.000 arabiar biztanle zituen. Beraz, duela gutxi Jugoslavia ohian gertatutakoaren antzeko «garbiketa etnikoa» izan zen.
4. Bereziki dramatikoa da uraren lapurreta, eskualde horretan hil edo biziko baliabidea dela aintzat hartuz. 1990ean, okupatutako Zisjordanian sortu ziren 807 milioi m³-tik, 510 Israelera desbideratu ziren, 160 kolono juduentzat izan ziren (100.000 lagun inguru) eta 137 milioi m³ bakarrik geratu ziren 1.200.000 palestinarrentzat. Gainera, palestinar haurretatik %34 eta %55 bitartean —eskualdearen arabera— desnutrizioa nozitzen dute.
 5. Pasquier, Roger du: *El despertar del Islam*, Bilbo, Desclée de Brouwer, 1992, 53. or.
 6. Jauregui Adell, Juan: *Y en el centro, el Islam*, Bartzelona, Ediciones 29, 1996, 167. or.
 7. Pasquier, Roger du: *El despertar del Islam*, Bilbo, Desclée de Brouwer, 1992, 75. or.
 8. Santoni, Erik: *El Islam*, Madril, Acento Editorial, 1994, 63. or.
 9. Ayubi, Nazih: *El Islam político. Teorías, tradiciones y rupturas*, Bartzelona, Edicions Bellaterra, Biblioteca del Islam Contemporáneo, 1996, 83. or.
 10. NBGP erakundeak (Nazio Batuen Garapen Programa) urtero argitaratzen du herrialde bakoitzari GGI bat (Giza Garapenaren Indizea) esleitzen dion txostena. 0,5 eta 0,8 arteko indizea dutenek erdi-mailako garapena dutela esaten da. 2000ko txostenean hortxe agertzen dira Ekialde Hurbileko eta Afrika Iparraldeko herrialde musulman guztiak, garapen maila altua duten Golkoko emirerri txiki batzuk eta munduko herrialderik atzeratuenetakoa den Afganistan kenduta.
 11. Martín Muñoz, Gema: *Mujeres musulmanas: Del Corán a los Códigos de Familia*, Madril, «Africa-América Latina. Cuadernos» 9, 1992, 40. or.
 12. Jauregui Adell, Juan: *Y en el centro, el Islam*, Bartzelona, Ediciones 29, 1996, 49. or.
 13. Balta, Paul: *El Islam*, Bartzelona, Ed. Salvat, 1996, 145. or.
 14. Santoni, Erik: *El Islam*, Madril, Acento Editorial, 1994, 52. or.
 15. Arrazakeriaren aurkako jarrera hori erlijio musulmanaren ezau-garririk azpimarragarrietakoa da Mahomaren garaitik. Adibide bat ematearren, Bilal, meskita batetik oititzera deitu zuen lehen imana, esklabo beltz askatu bat izan zen.



Islamia eta Mendebaldea, aurrez aurre?

esan liteke arabiar musulmanak Tarifatik Europara sartu ziren momentu beretik hasi zirela herrialde islamikoen eta Mendebaldearen arteko erlazio gatazkat-suak. Ondoren, eta gaur egun arte, gatazka horrek itxura eta konnotazio ezberdinak izan ditu testuinguru historiko bakoitzaren arabera. Baina, beti ere, hainbat arlotan izan du eta du gatazka bere isla: arlo erlijiosoan, arlo ekonomikoan, arlo politikoan, eta baita arlo kulturalen ere.

Irailaren 11ko erasoek guztiz eguneratu eta bizitu dute harreman gatazkatu horien inguruko eztabaida. Azken buruan, Mendebaldeko gizartean eratu den eta nahikoa orokortu den interpretazio baten arabera, gatazka horren baitan bi polo aurki ditzakegu aurrez aurre: batetik, balio ilustratuak eta modernoak ordezkatzeko dituen Mendebaldeko zibilizazioa, eta, bestetik, integrismo erlijioso eta atzerakoian oinarritutako islamismoa.

Azalpen dikotomiko eta polarizatu horrek zehaztasun eta ñabardura gehiago eskatzen dituela pentsatzen dugunez, gatazka horren inguruko topiko eta auzi nagusiei buruzko iritzia eskatu diegu honako bost lagunei: nazioarteko gaietan adituak diren Mikel Aramendi, Jose Mari Pastor eta Jesus To rquemada kazetariei, Gabirel Ezkurdia Nazioarteko Ikerketarako Euskal Bulegoko (GAIN) koordinatzaile eta aztertzaileari eta Juanjo Sanchez Arreseigor historialari eta arabiar gaietan adituari.

Ondoren, aditu horiei egin dizkiegun lau galderak datoz:

- 1.- Gaur egungo egoeratik abiatuta, zibilizazio edo kulturen arteko gatazka edo «gerraz» hitz egin behar al da? Hala balitz, zer-nolako funtsak eta inplikazioak lituzke halako gerra batek? Edo, aitzitik, gatazka hori, kulturala baino, bestelakoa ote da? Zein da, azken buruan, gatazka edo gerra horren mamia?
- 2.- Mendebaldean Islamaren ezaugarritze jakin bat sustatzen da, batik bat. Irudi horren arabera, Islama fundamentalismoarekin eta integritismoarekin identifikatzen da, eta, gainera, gizabanako eta gizarte musulmanetan Islamaren dimentsio erlijiosoak duen berebiziko garrantzia azpimarratzen da. Baina zein neurritaraino baldintzatzen du, egiaz eta benetan, erlijioak herrialde islamikoetako jarduera soziopolitikoa?
- 3.- Mendebaldean arrunta den interpretazio baten arabera, Islama, sistema politiko gisa, demokrazia eta modernitatearekiko bateraezina da. Noraino onar daiteke halako interpretazioa? Zein dira interpretazio horren gabezia eta mugak?
- 4.- Irailaren 11ren ondoren, zein jarrera ari da nagusitzen Mendebaldean Islamarekiko? Nola baloratzen dituzu jarrera horiek? Zein izan beharko lukete, etorkizunari begira, Mendebaldearen eta Islamaren arteko harremanaren eta elkarrizketaren oinarriak?



Mikel Aramendi

1.- Bloketan erdibitutako mundua amaitu zenean, Fukuyamaren historiaren amaieraren kontrapuntu gisa Samuel Huntingtonek 1989-91n lehenbizikoz aurreratu eta duela sei urte, 1996an, osatu eta argitara eman zuen zibilizazioen arteko gatazkaren teoriak arrakasta nahiko kaskarra izan zuen autoreari lehendik ere begirunea zioten ingurune akademiko eta politiko eskuindarretatik at. Eta ezin logikoagoa zen: ezer gutxi laguntzen zuen Harvardeko katedradunaren ikuspegiak, demagun, orduantxe gertatu berria zen Ruandako genozidio izugarria ulertzeko (eta seguruenik ez da kasualitatezkoa Afrika odolusten duten gatazkei Huntingtonek eskaintzen dien arreta eskasa, munduak egun bizi dituen gerrarik latzenak diren arren). Gehixeago arduratzen zen orduantxe amaitu berria zen Bosniako gerraz, baina arrunkeria zabar samarretan geratzeko eta, R. Karadzicen diskurtsoarekiko sintonia arriskutsua saihesteko edo alde biak, nahas-mahasean eta bereizkuntza handirik gabe, erantzule egiteko. II. Mundu Gerraz geroztik European bizitako sarraski handienak zirraturatik zegoen europar intelligentsiak ez zuen oso aintzakotzat hartu gogoeta hura. Irailaren 11koaren ondoren, ordea, egundoko oihartzuna lortu dute Huntingtonen idatziek.

Hala ere, zerikusi gutxi du horrek bere teoriaren egiaztapenarekin eta, zenbait kasutan, teoria beraren eza-gutza zehatz samarrarekin, nire ustez. Zibilizazioen arteko gatazkaren diskurtsoak, alde batetik, beztidura intelektuaren antzeko zerbait eskaintzen dio Mendebaldean biziro oldartu den xenofobia anti-arabiar edo anti-islamdar arruntari. Baina horrelako batzuk (Italia eta Espainiako eskuindarrak, esate baterako) ez dirudi jabetu direnik Huntingtonen ikuspegitik, herrialde horiek erdizka baino ez liratekeela «Mendebaldeko zibilizaziokoak». Bestetik, Huntingtonen korolariora («armatu egin behar dute, gogo-

tik, Estatu Batuek»), nola ez zaio gustatuko bada Irailaren 11koa gabe ere berrarmatzeari ekiteko asmo garbiarekin zetorren Bush administrazioari! WTCkoa jazo gabe ere, Nixonen magalean jaiotako Bush, Cheney eta abarren klana eta errepublikarren aholkulari eta pentsalari kuttunenaren arteko sintonia ia erabatekoa izan da beti.

Funtsean, Irailaren 11koaren ondoren ere, Hunting-tonen teoriak ezer gutxi argitzen du egun ematen diren gerra eta gatazkez. Noiz hasia litzateke, adibidez, zibilizazioen arteko gatazka hori Afganistanen? Irailaren 12an? Talibanak agertu edo nagusitu zirenean? Sobietarrak sartu edo irten zirenean? Lehenago? Nola ulertu behar dira iragan mende laurdenean Afganistango gerra horren baitan nazioartean eman diren aliantza ezberdin ez ezik kontra-jariak? Zein aldetan legoke, adibidez, Pakistan txit erabakigarria? Urrian Estatu Batuek Afganistanen talibanen aurka hasi zuten erasoaren ondorio politiko-militar nagusietako bat, nagusia ez bada, India eta Pakistanen arteko tentsio gero eta arriskutsuagoa, adibidez, eszenategi aproposa litzateke delako teoria horren baliagarritasuna seriozki aztertzeke: zibilizazio edo kulturen arteko gatazka al da (Vishwa Hindu Parishad erakunde hinduzale fundamentalistakoek dioten bezala) Kaxmirren, Ayodhiyan eta Indiako eskualde askotan izugarritzko gogortasunez suspertzen ari zaiguna, eta gerra nuklear batean buka daitekeena? Edota Nigerian, aldian aldiro bezala, xaria ezarri nahiak sutzen dituen iskanbila izugarriak? Edo Sudango gerra?

Egungo munduan zibilizazioen arteko gatazka geopolitikoak badirela onartzeko, zibilizazioa/kultura/erlijioa trinomioa argitzetik hasi beharko genuke. Eta, gehienetan dirudien bezala, erlijioa bada funtsean horrelako gerren eragile funtsezkoenetakoa, hobe genuke egitate hori, historian zehar hainbestetan frogatua bestalde, hitz lauz onartzetik abiatzea, zibilizazioa bezalako hitz potolo eta zehaztasun gabekoak alde batera utzita. Inperio klasiko guztietako cives/barbari bereizkuntza arrunta baino tresna intelektual zorrotzagarik nahi badugu behintzat.

Edonola ere, Irailaren 11koa, Afganistango gerraren fase berria eta ildo bertsuan etor daitezkeen gatazkek (Iraken

aurkako eraso, e.a.) ulertzeko, askoz egokiagoa inuditzen zait bestelako ikuspegi bat. Lauzpabost gatazka-bektore, bater berriak ez direnak eta elkarri nahiko lotuak, bateratze-tik sortu da, nire ustez, krisia: Estatu Batuek azken 45 urte hauetan arabiar herrialdeekin erabili duten estrategia nihilista, Israelen gehiegikeria guztiei eskainitako babesean nabarmentzen dena; petrolioaren kontrola lotu/mantendu nahiak sortzen duen etengabeko tentsio geoestrategikoa; aterabide politikorik gabeko islamismo militantearen ugalketa; Brzezinskik Eurasiako Balkanak deitzen duen Asia Erdialdeko esparru lehergarria bilakaera; gehienbat herrialde musulmanetatik heltzen ari zaion etorkin uholdearekin gero eta izutuago dagoen Europa...

- 2.- Gizarte musulman guztiak egitate bakarria bailiran hartzea, 1.250 milioi gizaki barneratzen dituen multzo konplexua historiaren eraginak eta lekuan lekuko berezitasunak aintzakotzat hartu gabe ulertu nahi izatea, abiapuntuzko hutsegite nabarmena litzateke ia edozein ikuspegitatik. Hain egitate ezberdinak karikatura bakar batekin esplikatzat emateak ez luke onarpen intelektual minimorik aurkitu behar. Zer dute komunean Asia hego-ekialdeko Indonesiak eta Bosniak? Edo otomandar inperioaren suntsimendutik sortutako diktadura militar eta absolutistek eta Mindanaoko moroek edo Indiako minoria musulmanak? Edo Irango erregimen xiitak eta Afrika Erdialdeko herri musulmanek? Erlijioa, erantzun liteke... Baina noraino hori bera ere, kristautasuna bera bezain anitza den Islamean?

Erlijioak islamdar herrialdeetako jarduera soziopolitiko baldintzatzen duela egia da, baina beste ingurumen kultural eta historiko askotan, baita Mendebaldean ere, gertatu da beste horrenbeste, grina gehiagorekin batzuetan. Egungo mendebaldarrok benetan asaldutzen gaituena, seguraski, besterik da: joera, dinamika. Gure gizarte 'kristau' garaikide guztiek, era eta maila oso ezberdinetan, duten ezaugarri komun bakaretako bat laikotasuna edo sekularizazio gero eta sakonagoa denean, islamdar herrialdeetan erlijioaren eragin soziopolitiko mantendu ez ezik batzuetan gero eta biziagoa dela ikusteak kezkatzen gaitu.

Erljioa eta politikaren arteko sinbiosi hau hitz baten inguruan mamitu da azken hamarkadatan: xaria. Islamdar legea konstituzio, kode penal eta zibiltzat aldarrikatzea, alde batetik, nortasun-bereizgarri bihurtu da Mendebaldeko egitasmo soziopolitikoaren inportazio ez oso arrakastatsua ondoen eta aurka. Bestetik, herrialde hauek gehienek pairatzen dituzten izugarritzko hazkuntza demografiko eta arazo ekonomikoak eredu sozio-politiko propio eta egokituagoak eskaini eta finkatu beharra saihestearen utopia moduko bat zilegitzen du; Afganistango talibanen mugimenduarena izan daiteke ikuspegi horren agerpenik taxugabeena. Eta beti ere lehendanik existitzen diren egitura eta sare erlijiosoetatik, eta ez beraz hutsetik, abia daitezkeen mugimendu politikoak sortzeko abantaila eskaintzen du.

Nabarmen desegoki 'integrista' eta zuzentasun gehixeagoz 'fundamentalista' deitzen ditugun mugimendu islamista politiko hauek denak (kidetu daitezkeen adinean), ordea, mendebaldar egitasmo politikoaren zeharaldaketak islamdar munduan azken 50 urte hauetan jaso duen porrotaren ondorio dira, Islamaren 'berezko' tasun baino gehiago. Absolutismo teokratikoaren desagerpenak, gehi kolonialismoak eta haren ondorengo deskolonizazioak erakarritako aldaketa ikusgarria (alderatu besterik ez dago mundu horren egungo mapa eta duela 100-150 urtekoa) pairatzen ari den eskualde geopolitiko horretan, Mendebaldeko doktrina politiko nagusiek porrotak baino ez dituzte lortu: liberalismoa inoiz ez da errotu ia inon (zergatiak, beste baterako); sozialdemokraziaren itzala, egitura kolonialak desagertzearekin batera ahulduz joan da; komunismoa, gehien errotu zeneko lekuetan bederen (Indonesia, Sudan, Iran...) errepresioaren bitartez ito zuten Estatu Batuen aliatuek; faxismoak ere ez du eragin iraunkorrik lortu, kemalismoa bezalako korrontek alde batera uzten baditugu...

Arrazoi historiko nahiz erlijiosoengatik guztiz berezia den Irango kasua alde batera utzita (79ko iraultzak Asia Mendebalde eta Erdialderako ondorio erabakigarriak ukan dituen arren, eragin oso mugatua izan du Islam sunitaren mundu maioritarioan), Saudi Arabiaren papera funtsez-

koa izan da politika eta erlijioa uztartzen dituen joera honen suspertzean. Lurrealde Santuen zaintzak ematen dion lehentasunak, petrolioari esker duen indar ekonomikoak eta Estatu Batuekiko pribilegiozko aliantzaren erosotasunek lagunduta, Jihadeko erregimenak islamdar munduan bere nagusitasun politiko-diplomatikoa (demografiagatik guztiz ezinezkoa litzaiokeena) bermatzen eta bere waha-bismoa Islam osoan zabaltzen gogotik saiatu da azken hamarkadatan. Arabiar edo islamdar erregimen aurrerakoiei eragozpenak ugaritzeko modu aproposa zelakoan, Irailaren 11koa arte Mendebaldeak ez du batere kezkarritzat hartu joera hori. Islamaren barneko kontraesanez baliatuz abantailak lortzeko estrategiarekin egin duen hamaikagarren hutsegitea dela pentsa liteke. Hamas mugimendua-ren historia eredugarria izan daiteke ikuspuntu horretatik.

3.- Egun petrolio eta energia iturrien inguruan ematen diren kontraesan geopolitikoak eta Mendebaldeak une honetan bere buruaz duen eta historian zehar Islamari buruz izan dituen ikuspegiak txirikorda bat da gure munduak herrialde musulmanei buruz duen ikuspuntu sinkronikoa. Irizpide hauen bilakaera diakronikoa pixka bat arakatzea nahikoa litzateke ordea interpretazio hori zein koiunturala den ohartzeko: Mendebaldeak bere burua demokrazia-rekin, betiko autokonplazentziaz, identifikatzen duen aldi laburraren adina dauka islamdar herrialdeei buruzko irizpide kontrajarriak.

Islamari buruzko iritzi ezkorrak, haatik, askoz zaharragoak dira eta garaian garaiko diskurtso gain-hartzailearen ikuspegiak eta interesak islatu ditu Mendebaldean. XVII eta XIX. mendeetan Otomandar Inperioaren aurkako propaganda Europa-ra (Frantziatik, Ingalaterratik edo Errusiatik sortua), egun ere Balkanetako arazoaren inguruan suma daitekeena, bereziki argigarria da horretarako. Modernitatearekiko bateraezintasunaren diskurtsoa, bestalde, gogora dezakegu aspaldi gabe gaineratzen zitzaizela Txina edota India bezalako herrialde txiroei...

Islamdar herrialde eta gizarteetan demokratikotasunari buruzko epaiak emateko oso leku txarrean geratu da

Mendebaldea azken mende laurdenean, batez ere bi abagunetan: 79ko Irango iraultzan eta 91ko Aljeriako krisian. Bi kasu funtsezko horietan, Mendebaldeko potentzien hautua ez zen demokraziaren aldekoa izan, baizik interes geopolitikoaren arabera. Eta adibide horien oroitza ez da inondik inora Mendebaldean bezain azkar ahantzi-ko islamdar munduan.

Edonola ere, Palestinako kasua da erlijio edo doktrina politikoaren arabera ez baizik kontraesana nagusiki geopolitiko delako behin eta berriro frogatzen duen gatazka. Palestinako auzia, bere izugarritzko gordintasun eta balio sinbolikoarekin, aintzakotzat hartu gabe ezingo da inoiz ulertu islamdar herrialdeetan Mendebaldeari buruz irizten dena. Ilargia hatz batez estal dezakegu, baina horrela haren argiak ez gaituela ukitzen uste izatea handia litzateke.

4.- Irailaren 12tik hona, funtsean, lehendanik gertatzen ez zen ezer ez da gertatu. Jarrera anti-islamdar zahar horietako batzuk indartu, lotsagabetu egin dira. Ageriko gobernu politika bihurtzen hasi dira, lehen estrategia kabinetean eta lobbyen sotoetan erabiltzen zuten klandestinitateak aterata. Fallacci eta antzekoak ozenkiago mintzatzen dira. Baina ez dira berriak eta sustraiak lehengoan datza: erregaien beharrak eta inmigrazioaren beldurrak egiten dituzten lankide estuak garai bateko nazien bilobak eta Holokaustoa suntsitutako oinordekoen lobby sionistak.

Errealismoak adierazten dit gustatuko litzaidakeen el-karrizketa ez dela inondik inora emango datozen urteetan. Ez Islamarekin eta ez beste kultura edo zibilizazio esparruekin: Mendebalde instituzionala gero eta solipsistagoa da; bakarriketan bakarrik daki. Herrialde musulmanen kasuan, gainera, zauriak sakonegiak dira eta, orbandu ordez, gaiztotzeko ahaleginak baino ez dituzte ikusten. Nekez maitate ez ezik errespetu daiteke ezagutzen ez dena, eta Mendebaldeak egun Islamari buruz 'dakiena', Mendebaldeak berak asmatutako propaganda baino asko gehiago ez da.

Eta Phobos eta Deimos Martitzen lagunak ziren bezala, propaganda sektarioa gerraren adiskidea da, ez anaitasunaren mezularia.^o



Gabirel Ezkurdia

1.- Arazoak ditugu. Mendebaldeko Ongizate estatuetako biztanle pribilegiatuok ez dugu ulertzen Erdi Aroko eredu politiko eta kultural batek nola eduki dezakeen hain arrakasta handia eta bortitza. Horrela hasiko litzateke, egun, Islamari buruz irakur litekeen edozein idazki. Horrela hasten dira egunez egun irрати eta telebistetan egiten diren tertulia eta saio gehienak. Mendebaldeko pribilegiatuok ez dugu ulertzen nola, Islamaren banderaren arabera, hil eta erahil daitekeen; nola Islamaren izenean, gizarteak antola daitezkeen, bizitzeko ereduak garatu, giza harremanak kudeatu eta bermatu.

Gai sakona eta zaila. Baina ikuspegi ezberdinetatik landu beharrekoa. Hasteko, gure perspektiba eurozentrista guztiak alde batera utzi behar ditugu. Gure balio, arrazonomendu eta nahiak ahaztu eta beste egoera, kultura eta historia batean oinarritutako gizakiak ulertzen saiatu. Honek ez du zertan eskatzen atxikimendurik, ez horixe! Baina tresna baliagarria da egungo nazioarteko egoeraren ildo ulertzeko.

Irailaren 11tik aurrera nazioarteko harremanetan aldaketa nabaria gauzatu da. Gerra Hotza bukatu zenetik, unipolarismo amerikarrak urrats handiak eman ditu mundu mailako sistema bakarraren eraiketa lanetan. Neoliberalismoaren totalitarismoak —globalitarismoak— eredu bakar baten inposaketa kudeatzen du. Hara amerikar eredu anglofonia, esparru guztietara zabaltzen ari dena. Ereditu sozial eta kultural honek baliabide ezberdinak zehazten ditu. Arlo ekonomikoan, politikoan edota militarrean instituzioak eta antolaketa modu zehatzak finkatu dira, eredu global eta bakar horren zabalpena bermatzeko. Horrela, nazioarteari begira, argi ikusten dugu nola azken hamarkadan, Basamortuko Ekaitza zeritzon eraso inperialistatik hasita, astez aste gitura guztiak eredu horren ga-

rapenerako finkatu diren: NBE, NATO, BM, NDF... Hau da, eredu horrek behar dituen tresna finantzieroketresna militarren beharra dute geopolitikoki, eta zenbait lurraldetan haien helburu espekulatiboak ziurtatzeko. Militarrek nazioarteko erakundeen beharra, zilegitasun minimo bat lortzeko. Azken hauek GKEen presentzia haren existentzia humanitaria irudikatzeko. Eta GKEen lanak benetan eredu bakarraren garapena lurralde guztietan modu «etiko» batez bermatu dezan. Horrela mailaz maila infinituraino.

Honen aurrean sistemak, hots, sistema globalitarioak, doktrina bat zehaztu behar du bere totalitarismo bortitza zilegitzeko: zibilizazioen arteko talka.

Gure azterketa zuzena izateko argi izan behar dugu aldagaien aniztasuna. Hara hor, analista askoren eta gehienen akatsa. Azterketa multibariarleari eutsiz, arrazonomendu bakarra baztertuko dugu eta norabide bakarreko diskurtsoa alde batera utziko dugu.

Islamaren izana ez dago lotuta zibilizazio ezberdinen talka baten logikarekin. Ez baita talka bakarra ematen. Globalitarismoak mundu osoari inposatzen dion ereduak mundu mailako komunitate, nazio, kultura, bizimodu edota giza sistema ororekin egiten du topo, eta praktikan, aurkitze horretan ahulenak dira beti desagertuko direnak. Logika horretan, Islamaren barnean zehazten diren ehundaka erreferentzia ezberdinak globalitarismoari aurre egiten dioten adierazpen boteretsuak besterik ez dira. Afrika, Asia, Ozeania, Europa edota Amerikako milaka kultura eta beste gizarte gehienetan bezala, musulmanek (anitzak oso hauek ere!) haien gizarte eta kultur ereduak babestu nahi dute ikaragarritzko tsunami globalitarioaren aurrean. Beraz, ez da bi zibilizazioen arteko talkarik, baizik eta elementu multibariarleari lotutako erresistentzia multilaterala, eta haien artean Islama espresio bat besterik ez da, boteretsua izan arren, beste bat, soilik.

Beraz, ezin dugu hitz egin zibilizazioen arteko gatazkaz, baizik eta eredu totalitario baten inposaketak sortzen dituen eragin eta erreakzioez. Ezin dugu pentsatu kultura biren arteko gatazka (Islama vs Mendebalde anglofonoa)

baliabide aztertzaile bakarra denik, kultura anitz eta ezberdinen osotasuna zehazten delako bi kontzeptu nagusi sinplifikatzaile horietan. Ezin dugu, azkenez, pentsatu gatazkaz ikuspegi horizontalean, argi dagoenean Ipar-Hego kontzeptua dela nagusitzen dena, istilu guztien oinarritzko gako bezala.

- 2.- Nazioartearen perspektiba multivariable edo aldagaienizkunean kokatu behar dugu ere Islamismoa, hau da, Islamaren presentzia (beste ezaugarri batzuk bezala) fluxu dialektiko baten arabera zehaztu behar dugu.

Islama beste eredu bat da, bere interpretazioan ere anitza. Urtetan laidotua, erasotua. Nazioarteak neurtzeko maila ezberdina erabiliz, musulmanen eskubideak sarri zapaldu ditu. Palestinan, Ichkerian (Txetxenia), Bosnian, Kosovon, Saudi Arabian, Iraken...

Mundu islamikoan hegoaldeko ezinaren eta zapalkuntzaren tamainako ispilua dugu. Magrebeko hazkunde demografikoaren drama, Irakeko enbargo genozida, Indonesiako zapalkuntza ekonomiko aurrekapitalista, Palestinako nazio ukapena, Nigeriako estatu artifizia, Ichkeriako genozidio lotsagabea... Kaltez kalte eraiki den historia zapaltzailea. Eta zapalkuntzarekin bat, gizarte eta bizimodu eredu inposatua, hara hor, mundu islamikoan haserre egoteko arrazoiak.

Eta hori ez da larriena. Globalitarismoak mediatikoki erabiltzen dituen islamaren irudiek, irudi kriminalizatzaile eta basatiek, interbentzionismoa zilegitzeko erabiltzen diren tresna propagandistikoek, gezur handia ezkututzen dute. Globalitarismoaren borondatean ez datzala benetan egoera horiekin bukatzea, eta hau da, zinez, mundu islamikoan oso argi dagoen ideia. Afganistango emakumeen «alde» erabili den kanpaina lotsagabe eta hutsak ez al du akaso hau guztia argi uzten? Ulertu al dugu inoiz benetan burkaren erabilpenaren zergatia? Talibanek inposatutakoa balitz, nolatan, egun, erabiltzen da hainbeste? Globalitarismoak aitzakia euroztristak eta hutsak erabiltzen ditu Mendebaldeko gizarteek interbentzionismoa oniritziariz zilegitu dezaten, ez besterik.

Baina, egia da, ezkerretik ere, ikuspegiak beste buelta bat ematen duela. Hara hor ezkerren zati handi baten drama: ezinezkoa izan dute identitateen babesaldarrikatzea, paradigma nagusi bezala, jarrera progresista eta alternatiba eraikitzaile-askatzaile batekin lotuz, globalitarismoari aurre egiteko.

Islam politikoa, globalitarismoaren garapenaren arabera, hazi da. Erreferentzia eta alternatiba bihurtu nahian, laizismoan oinarritutako zenbait eredu demokratiko eta progresista baztertzea lortu du zenbait esparrutan. Logikoa denez, laikoen akats handienetariko bat identitatearen ahultze ekimenetan zehaztu da. Azaleko edo keinu mailako multikulturalismoak eragin zuzena izan du. Egun, globalitarismoaren eraso uniformizatzaileak identitateen berpiztea dakar eta bersortze honen inguruan, Islamak zeresan handia izan du. Kultura erlijiosotik sortutako sinboloek eragin handiagoa dute «Satan Handiaren» aurrean, borrokarako jarrera ezkerreko laikoek baino. Ezkerreko alternatiben krisiak espazio ikaragarria utzi die hirugarren erantzun identitarioei. Horra nazionalismoen berpizte sutsua eta beste zenbait adierazle. Logika orokor honen arabera kokatu behar dugu ere Islam politikoen hazkundera eta garrantzia.

Hala ere, Islam politikoen jarrera integralak eta doktrinarioak (gizarte osora zabaltzen den bizimodu derigortua) identitate ereduak eta sinboloak bermatzen baditu ere, pluralismo eta aniztasun politikoa eta ideologikoa erabat mugatu eta itotzen ditu. Hor dago, hain zuzen, laizismoak duen espazio falta, kokatze dinamiko eta eman-korrago bat zehazteko.

3.- Galdera berriro ere perspektiba eurozentrismoa batetik abiatzen da. Zer da demokrazia eta zer modernitatea? Zein gako erabiltzen ditugu bi ezaugarri hauek zehazteko?

Egia da funtsezko esanahiak unibertsaltzat har ditzakegula, eta logika horri lotuta oinarritzko hausnarketa bat eraiki, baina azterketa zabaltzerakoan, hara!, zenbait aldagai rekin topo egingo genuke. Zein parametro erabiltzen ditugu Mendebaldean banakoaren askatasun maila, adibidez, zehazteko? Gehien batean, adibidez, logika neoliberal-

ralaren arabera, askatasunaren iturria diruan datza, eta logika beraren arabera, mundu islamikoan gizonezko dirudunak Mendebaldekoekin parekagamiak dira alegia. Gizarte islamikoetan mendebaldar demokrazia eta modernitateak ez dira askatasunaren eta garapenaren eredu absolutuak. Islam politikoak ezaugarri zehatzak zehatzu ditu bere eraketa eta garapen ideologikoan balio horiek modu propioan gauzatzeko. Harridura? Berriro ere gure ikuspegi eurozentristarekin egiten dugu topo. Islamak baditu bere baliabideak giza eredu hauetan aniztasuna bermatua izan dadin, baina ikuspegi laikoak (ez duela zertan eurozentrikoa izan behar) kezka bizi du afera. Kezkaz, Islamak teokratismoa gizartearen esparru guztietara zabaltzen duela. Beraz, agian Islamaren barruan demokrazia eta modernitatea ezaugarri propioen arabera bermatu daitekeela esan daiteke, baina ziurrenez ezinezkoa izan liteke berme hura existentzia laiko batekin uztartzea, eta hor dago koxka. Ez da hainbeste Islamaren gaitasuna demokrazia edota modernitatea bermatzeko, baizik eta Islamaren ezina laizismoan oinarritutako banako edo taldeko izateak onartzeko, azken honek dakarrenarekin: garapen progresista (beti ezaugarri identitarioak ziurtatzen diren heinean).

4.- Irailaren 11tik Ipar-Hegoaren arteko gatazka integralak inboluzio nabaria izan du. Ordura arte, 1991tik, globalitarismoak bipolarismo eza erabili izan du errealitate anitzaren aurrean arerio finkorik ez izateko. Horrela, Milosevic, Suharto edo talibanak; Txina, Errusia edota Sudan arerio izatetik lagun izatera, edo aliatu izatetik arerio izatera pasatu dira, AEBen interesen arabera. Egoera nahasi honen aurrean, ezkerren zati handi batek iparra galdu eta jarra bipolarrak mantendu ditu Inperioari edonola aurre egin nahian. Baina 2001eko irailetik aurrera unipolaritateak bipolarismo birtual bat berreraiki du. Terrorismo terminoa generikoki eta partzialki erabiliz, globalitarismoari aurre egiteko prest dauden subjektu guztiak kriminalizatu ditu, Islama barne.

Bai, ez al-Qaeda edota beste zenbait erakunde armatu bakarrik. Bolada berri honetan, kriminalizazio esparrua

hedatu da: globalitarismoaren premisa eta printzipioak kuestionatzen dituzten guztiak daude kriminalizatuta. Islamaren balio eta ikuspegiak, ezkerreko edota beste sentibilitate edo ideologia ezberdinetako ideiek bezala, beraien osotasunean topo egiten dute inposatzen ari den ereduarekin. Beraz, hor datza funtsa: Islama bere osotasunean bihurtu dute arerio.

Testuinguru honetan bipolarismo birtualak gehiago nahasten du azterketarako ahalegina. Ezkerretik ez baitaigo alternatiba aurrerakoi baten eraikuntzarik diskurtso identitarioa behingoz barneratu gabe, eta identitarismo honen onarpena zaila baita, kontraesan handiak zehazten dituelako. Adibidez: nola kokatu laizismoa eta laizismo aurrerakoiaren balioa, neoliberalismoaren manipulazio desitxuratzaitetik at, aldi berean komunitarismo identitario erlijiosoaren araberako subjektuekin bateginez?

Islamak berak zehazten duen alternatiba konfesional eta teokratikoak ikuspegi aurrerakoiekin topo egiten du. Hegoaldeko gizartearen garapenak perspektiba laikoa gauzatu beharrean daude, baina beraien oinarrizko ezaugarri identitarioak atzendu gabe, eta hor dugu gakoa. Gainera, globalitarismoak Islama bipolaritasun birtual eta interesatu horren lehenbiziko subjektu bihurtzen duen heinean, Islamaren aniztasuna eta aberastasuna desagertarazten du, alde fundamentalistena eta zorrotzena erakutsiz.

Globalitarismoaren bipolarismo erabilgarri honen helburua argi dago: Mendebaldeko gizarteetako kritiko eta erresistenteen atxikimendua lortzea, aurrez duten poloaren (hots, islamismoa) atzerakoitasuna nabarmenduz.

Zer nahiago duzu, globalizazio laikoa, kontsumista izan arren, ala Ben Ladenen Erdi Aroko eredu? Bai, sinplea baina maltzurra.

Logika honek, gainera, ez luke inondik inora Mendebaldeko gizartearen laizismoa bermatuko. AEBetan eta beste zenbait estatu garatutan integrismo erlijioso katoliko edo protestanteak garapen nabarmena du estatu egiturei begira. Bushek otoitzerako egun nazionala aldarrikatu zuen bezala, adibidez, badira inboluzio erlijiosoaren ildo argi adierazten duten beste hainbat adibide.

Gerra iraunkorren garaia heldu da. Gerra nonahi, noiznahi. Globalitarismoak XXI. gizaldiari begira egitura zehatza jorratu du. Hurrengo 50 urteetan, 5.000 bat hizkuntza eta kultura desagertuko diren sasoiari begira, interbentzionismoaren doktrina eta honetarako baliabideak finkatu ditu, prozesu osoa erabatean bermatzeko. Egun, terrorismoaren aitzakiaz, al-Qaedaen aitzakiaz, Islamaren aitzakiaz, hots, globalitarismoaren aurkakoen generitismoaren aitzakiaz (dena terrorismo generiko bihurtu)... AEBen indar armatuak inoiz ailegatu ez diren lurraldeetara heldu dira. Kirgizistan, Uzbekistan, Afganistan, Georgia, Yemen, Somalia, Filipinak, Kolonbia... lehenengo urratsak dira. Irak, Ipar Korea... aitzakiak dira haien kontra erasoak eginez, gerraren izpia bizirik, edozein momentutan erabiltzeko. Gerra nonahi depredazio ekonomikoa ziurtatzeko. Lobby armamentistikoaren etorkizuna bermatzeaz gain, nazioarteko merkatu espekulatzailleek finantza birtualen erabilpenaz ikaragarritzko aberastasun puzgarria gauzatu dutenean, sistemaren porrotaren arriskua inoiz baino errazagoa denean (Argentina adibidez), inoizko segurtasun sistema operatibo errepresibo boteretsuena eraiki dute. Hor ere nabaritzen da bipolarismoa birtuala dela. Ez dago oztoporik, XXI. mendean interbentzionismo globalitarioak ez du eremu mugaturik, planeta osora zabaldu da kontrol eremua.

Baina horrek ez du esan nahi globalitarismo unipolarak gaitasun ahalguztiduna duenik. Komunitate eta herri txikien erantzukizuna funtsezkoa da. Eta erantzukizun handiagoa, dudarik gabe, lehen munduan, baliabide guztiekin, bizi garen komunitate txikienena. Uniformizazio globalitarioaren aurrean, nortasun identitarioen babesean eta berrindartzean datza etorkizuneko itzaropena. Islam boteretsuaren izenean keinu erresistenteak gauzatu badira ere, beste modu eta helburu ezberdinekin keinu berdinak gauzatu daitezke, Inperioaren aurrean. Keinua bortitza eta erradikalenean (errealitate zehatz baten isla) ez dute zertan hipotekatu behar beste aukera edo bide egokiago batzuk garatzea. Globalitarismoaren uniformetasun indibidualistaren aurrean, aniztasunak eta kontzientzia identitarioek

ziurtatzen dute gizakiaren etorkizun askea; horregatik, hain garrantzitsua berkatalogazioaren prozesua.

Gizakia berkatalogatu behar dugu. Ideiak eta izanak izenberritu. Askatasunetik jarrerak, asmoak eta bideak zehaztu, terminologia berriak erabiliz. Globalitarismoak hitzak eta esanahiak bahitu ditu. Ezer ez da dena. Hor dago koska. Demokrazia, askatasuna, aberastasuna, nortasuna, berdintasuna... denak merkatuaren eta ziber sarearen parametroaren arabera prostituituak. Kontzeptuen berrizendapenak, berkatalogazioak, birtualitate taktikoa agertuko du eta globalitarismoaren izaera maltzurra eta faltsua agerian utziko du.

Horretan datza, beraz, Islamari edota nazioarteko beste edozein subjekturi begira egokitasun handiagoz hurbiltzen utziko digun tresna. Hortik hasita erazagoa izango da azterketa politologikoari heltzea, kondizionamendu birtualak edo desitxuratzailak gaindituz, perspektiba egokiago bat lortzeko.

Eta azken hau ez da makala. Inoiz baino beharrezkoa goa baita etorkizunari begira, Mendebaldearen eta Islamaren arteko harremanak eraikitzerakoan, adibidez, elkar ulertzearen konpromisotik espazio eta eszenario komunak gauzatzea, baina beti ere hitzek balio adostua, bakarra eta konpromiso tinkoa suposatzen dutelarik. Bitarteko hauek ez dira lortuko, tamalez, globalitarismoak usteldu dituen termino eta esanahiak erabiltzen diren heinean, neurri bikoitzaren isla eta hitza besterik ez direlako izan.^o



Jose Mari Pastor

1.- Ez nuke esango kulturen arteko gatazka denik, ez bederen batzuek saldu nahi diguten moduan —Samuel P. Huntingtonek *The Clash of Civilizations and the Remaking of World Order* liburuan, esaterako, edo Benjamin R. Barberrek *Jihad versus McWorld: How Globalism and Tribalism are Reshaping the Worlden*—. Kultura gizakiak munduarekiko erlazioan sortutako emaitza da, eta prozesu abstraktu horrek nahi beste interpretazio eta kontzeptu eragin dezake. Oinarrizko emaitza horiek ezaugarri komunak eta ñabardura desberdinak dauzkate han-hemenka, arlo guztietan. Erljioan, adibidez, Kristautasunak eta Islamak antzeko ustea dute heriotzaren ondokoaz, eta beste bizitza baten promesa egiten dute paradisuaren alegiarekin. Hori existitzen dela adierazten dute; bertara heltzeko bideak, ostera, diferenteak izan daitezke. Batzuek era bateko ekintza edo bertuteak laudatzen dituzte; beste batzuek, aldiz, bestelakoak. Funtsean, baina, helburu hori iritsi nahi dute.

Mendeetan *produktu* bera saltzen jardun dute erlijio monoteistek, estalki desberdinekin baina. Hori ulertzea lagungarri dateke elkar ikusi ezina gainditzeko laguntzeko. Nik ez dut uste, berez, orain kultur gatazka dagoenik —lehenago egon ez den bezala—, zenbait kultura, zibilizazio edo erlijioen interpretazio subjektiboen arteko gatazka baino, eta hori anitz eratako interesek sustatzen dute. Zerk bultzatu zituen Erdi Aroan gurutzatuak munduan barrena euren erlijioa hedatzera? Nork edo zerk aginduzien hori egiteko? Arrazoi *filantropiko* hutsak izan ziren, edo proselitismo erlijioso horrek bestelako zioak ostentzen zituen? Zergatik hasi zen Islamaren hedapena duela hamalau mende? Nondik datorkie fede horren zenbait jarraitzaile erlijio ahaideak ez direnak areriotzat jo eta hiltzeko agindua? Ez du esaten, bada, Koranak kontra-koa?: «Erljioan ezin da derrigorrezkotasunik izan» (2.256).

No ndik dator, orduan, guztiz aurkakoa iradokitzen duena? Ez da izango erlijioaren erabilera interesatua egin dela, kontzeptu metafisikoez usu eskaintzen dituzten osagarri irrazional eta giza muinetan sakon errotuak baliatuta, boteretsuenek mendetasun politiko, ekonomiko edo soziala garatzeko? Ahulenak ere ez al dira oinarri berberaz baliatzen zapalkuntza horri aurre egiteko, borroka mota razionala erabili ordez? Baina ba al dago borroka razionalik? *Bomoka* hitzak ez garamatza geure barruko piztiaren naturara, geure zibilizatu gabeko alde basatienera, barrenbarrerean daukagun hazi irudiz antzua berriz loratzeko, *onerako* edo *txarrerako*?

Nire ustez, hortxe datza arazoa. Kulturak edo erlijioak, berez, ez daude borrokan. Haien interpretazio eta erabilera, aldiz, bai.

2.- Erlijioak bizitzaren arlo guztiak hartzen ditu herrialde musulmanetan, guk geuk nekez uler dezakegun moduan. Laizismoa, Estatua eta Eliza banatzea, zeina gure modernitatearen oinarri nagusietako bat den, arrotz zaie musulmanei. Haien irudiko, modernitatea Islamak berak gorpuzten du, gizabanakoaren esparruetan orotan —publikoan nahiz pribatuan—kode etikoa proposatzen baitu. Gure sekularizazioak, berriz, Islamaren aurreko garai ilunetara itzultzen gaitu, non, haien ustez, erlijioa gizakiaren neurri osoa hartzeko gai ez den.

Izan ere, haien aburuz, sekularizazioak askatasun osoa ematen dio gizakiari bere lege propioak egiteko, eta interpretazio libre horrek arbitraritatearen oinarriak ezartzen ditu, ondoren bidegabekeria nagusitzeko. Lege gizatiarrak erabateko erlatibitatea eragiten du, ez du Justizia bermatzen. Justizia, Islamaren arabera, Jainkoaren esku baitago soilik, Jainkoaren atributua eta nahia da. Horrexegatik aldatu behar izan zuen AEBetako presidente George W. Bushen Afganistanen kontrako kanpaina militarren izena, *Justizia Mugagabea*: Justizia Jainkoak soilik banatzen duenez, musulmanentzat iraingarria zen lelo hori. Musulmanentzat, gizakiok justiziaz egin dezakegun interpretazioa mugatu eta erlatiboa izango da beti, eta ho-

rrren ondorioz, okerra, azken batean. Onena, beraz, lege bakararen aurrean makurrarazi eta Jainkoaren manatuei men egitea da, Jainkoaren Justiziaren eta nahiaren kontra doan edozein lege gizatiar ez baita justua izango.

Islamean, Jainkoak du azken hitza, arlo pribatuan zein publikoan. Horixe da Kristautasunaren eta Islamaren arteko desberdintasun nagusietako bat, hamaika gaizki-ultertu eta endredu eragiten dituen. Mendebaldeko gizarte kristautuan, sekularizazioaren bidez, bizitzaren esparru pribaturara mugatu da Jainkoaren hitza. Ekialde Hurbileko musulmanak, berriz, eremu guztietara eraman du Jainkoaren nahia, muga guztiak gainditu ditu. Hor, baina, kontraesanak ageri dira Islamaren barruan, Jainkoaren hitzaz egiten den interpretazioa ez baita guztiz homogenea izan, ezta gutxiago ere, eta horrek korrante diferente eta sarri elkarren guztiz aurkakoak sortarazi baititu.

Fundamentalismo berbari dagokionez, kontu handiz ibili beharko genukeela uste dut, mota ugaritako joerak ager baitaitezke zorioneko hitz horren azpian mozturoririk. Alegia, zenbait musulman *fundamentalistak* dira, baina Mendebaldeko materialismoa ere —eta ez naiz ari dialektika marxistaz soilik— fundamentalista izan daiteke. Mendebaldea giza eskubideak eta demokrazia saltzen ari da, esportatzen, batzuetan saltzaile itsuaren moduan, merkantzia ustela merkaturatzen ari garela ohartu gabe. Eta hor, geu ere fundamentalistak izaten gara. Bushek berak, esaterako, diskurtso erlijiosoaren hondarretan oinarritzen du bere erretorika irailaren 11 ezeren amaiera izan ez zela dioenean, «terrorismoaren kontrako Azken Epaiaketaren hasiera» baizik. Erreferentzia biblikoak ezin argiagoak dira Mendebaldearen zaindariaren hitzaldian. Gure sekularizazioak ez digu jadanik gurutzada erlijioa garatzeko abagunerik uzten; bai, ordea, gurutzada politiko eta ekonomikoa iraultza burgesaren edo marxistaren izenean, eta hortxe ikusten dugu gero porrota. Sobiet Batasuna zeneko A Armadako goi kargu batek argi eta garbi esaten zuen Afganistandik alde egin eta urte batzuetara elkarriketa batean: «Afganistanen nengoela, batzuetan, zera pentsatzen nuen: zertan ari gara hemen? Zein marxismo eta zein gizon be-

ri eraikiko dugu hemen? Herritar hauek Erdi Aroan bizi dira oraindik, erlijioa da haien ardatza. Zer egin dezakegu hemen?».

- 3.- Ikuspuntu eurozentraren aztarnak dira horiek, eta, hein handi batean, logikoa da. Gure modernitatea eta gure erreferentziak New Yorken daude lehenik, eta gero Paris, Londres edo Berlinen. Baina non dago musulmanen modernitatea? New Yorken? Zergatik ez Kairo, Islamabad, Tashkent, Jakarta edo beren kultur balioak indartsu eta ondoen gorpuzten diren beste leku batzuetan?

Eta modernitatea Islama bera balitz musulmanentzat? Ataturken hitzak ditugu horren eredu: «Gure erlijioa erlijio natural eta razionalena da. Eta horrexegatik izan da azken erlijioa. Zeren eta erlijioak, naturala izateko, bat egin behar du arrazoiarekin, teknologiarekin, zientziarekin, logikarekin. Gure erlijioa bat dator horiekin guztiekin. Bere baitan ez da deus aurrerakuntzaren kontrakoa denik (...) Gure erlijioa arrazoiarekin eta logikarekin bat etorri ez balitz, ez zatekeen perfektua izan, ez zatekeen azken erlijioa izan». Horra hor, Turkia Mendebaldeko entitateen antzeko estatu moderno bihurtu nahi izan zuena Islamaren bertuteak goraiatzeko, erlijio perfektuaren apologia egiten. Zer ez luke entzun beharko *modemitatearen* izenean Europako estatuburu batek halakorik esango balu? Baina Ataturk ere modernitatearen izenean mintzatu zen, bere modernitatearen izenean.

Richard Falk Princeton Unibertsitateko irakaslearen arabera, XX. mendeko iraultzen artean Irangoa izan da lehen iraultza islamikoa, gero beste mugimendu batzuk inspiratu dituena. Iraultza balio politiko berri eta aurreratuen garapentzat jo ohi da Mendebaldeko pentsaera modernoan. Irango iraultzak erlijioa izan zuen oinarri; horregatik, guretzat ez da *benetako iraultza*, ez da aurrerakoa, antza. Musulman askorentzat, hala ere, aurrerakoa izan zen, Islamaren legea ezarri zuelako berriro ere Iranen. Ez dut esan nahi ikuspuntu horrekin derrigor ados nagoenik; soil-soilik diferentzia nabarmen horiei erreparatu behar zaiela, erne egon behar dela. Ez da kasualitatea, gainera,

iraultza hori Iranen gertatu izana. Bertan xiismoa da nagusi, zeinetan, sunismoan ez bezala, denboraren poderioz egokitutako Islamaren interpretazioa sustatzen den. Teheranen normala da —eta duela gutxi ikusi dugu egunkarrietako argazkietan— emakume bat Estatu Batuen kontrako mural bat pintaturik dagoen hormaren ondoan pasatzea, soinean jertse bat eta jeans batzuk daramatzala. Posible izango litzateke janzkera hori Saudi Arabian eramatea, Ameriketako Estatu Batuen herrialde lagunaren baitan, non ortodoxia wahabista zorrotzenak agintzen baitu?

Hortaz, zer da *modernitatea*? Zein gure eta haien «modernitatea»?

Zer da modernoagoa geurean, Mendebaldean oihukatzea: «Gora Euskal Herria Askatuta» edo «Jaungoikoa eta Lege Zarrak»? Baina Palestinan? Zer dio israeldarren okupazioaren kontrako borrokan bere buruaz beste egiten duen suizida batek: «Gora Palestina Askatuta» edo «Jainkoa Handia da»?

4.- Irailaren 11ko atentatuak eta horien inguruko azalpen teoriko eta ondorio praktiko guztiek lehenago ere bazeuden bi joera nagusi are gehiago nagusitzea ekarri dute. Nahita edo nahi gabe, ezjakintasunean Islamaren kontra errotutako errezelo, izu eta gorrotoen habia handitu egin da. Garai onak ditugu arrano, belatz eta putreentzat. Hala ere, badira sinplekeria horrekin bat etorri ez eta elkar ulertzeko bidea eraikitzen segitzea orain lehen baino are beharrezkoagoa dela pentsatzen dutenak.

Mendebaldean eta Islamaren arteko harreman eta elkarrizketek oinarri bakar bat izan beharko lukete: errespetua, horren azpian ezkuta daitezkeen beste kontzeptu batzuk —tolerantzia eta paternalismoa, adibidez— baztertuta. Errespetua, baina, zailena da, tolerantzia eta paternalismoa ez bezala, elkarrenganako erabateko berdintasunean hezurramitzen baita. Bi aldean ahalegin aktiboa eskatzen du, hurbiltze bat, elkar hobeto ezagutzeko, alde bietan sarritan ageri diren itxurazko nagusitasunak eta biktimismoak bazter utzita. Diferentziak onartuz eta diferentzia horiek zapalkuntzaren edo proselitismoaren bidez

ezabatu nahi izan gabe ernatzen da errespetu hori. Hobe benetako diferentziak ulertzen saiatzea itxurazko antzekotasunak inposatzea baino. Ulertzen saiatzea, eta ahalegin horri inoiz muzin ez egitea. Hau zaila da teorian, eta are zailagoa eguneroko praktikan: Mendebaldean batzuetan ezin eraman dezakegu kalean emakumezko bat zapia buruan duela ikustea, edo gizonezko bat durbantearekin ikustea, baina gero aztoratu egiten gara Istanbulgo meskita batean praka motzetan sartzen uzten ez digutelako.

Errespetua lantzen hastea funtsezkoa da, datozen belaunaldiak saihestu ezin izango duten errealitateari ikuspegi zabalagoarekin so egin diezaioten (gu oraindik ez gara gai hori egiteko): denboraren joanak ekarri dizkigun —edo guk geuk denboraren joanean ekoitzi ditugun— gauza *on* eta *txar* guztiak onartzen jakitea. Argi esanda: gure birraitona-amonen aroan inork ez zuen senegaldar, aljeriar, txinatar edo pakistandarrik kale kantoian ikusten, baina inork ere ez zekien garbigailua, telebista, bideoa, ordenagailua, Internet, eskuko telefonoa eta abar zer ziren. Orain, ordea, bai. Badirudi gauza «onak» hartu nahi ditugula bakarrik. Progresoaren eredutzat jotzen diren tresna horiek guztiak izatea, hori neurri handi batean ahalbidetu diguten herri eta gizakien berririk izan gabe. Alegia, ez dugu ezer jakin nahi «sudaka», musulman, edo txinatarrez; ez ditugu errespetatzen, eta horregatik, ez ditugu geure alboan nahi. Toleratu baino ez ditugu egiten, geure jantzi moderno, bideo, eta ordenagailuak merke-merke egiten dizkigutelako La Pazko etxalde kirastu, Jakartako poligono triste edo Shanghaiko kartzela ilun batean.°



Juanjo Sanchez Arreseigor

1.- Iraganean zibilizazioen arteko talkak gertatu dira. Zibilizazio bat hedatzen denean, halabeharrez beste batzuekin gatazkak izaten ditu: Grezia Persiaren aurka, Erroma Kartagoren aurka, Islama Bizantzioren aurka, europar kolonialismoa... Hala ere, gauzak gertuagotik begiratzen ditugunean, konplikatzen hasten dira. Ez dute zibilizazioek elkar borrokatzen, estatuak baizik. Eta ezberdintasun kulturalak ez diren arrazoiengatik erabakitzen dute estatuak gerrara joatea. Zibilizazio batek zenbait estatu barne hartzen dituenean, sarritan horiek elkarren artean egiten dute gerra. Greziarrek persiarren aurka borrokatu zuten, baina batik batik beraien artean. Azken berrogeita hamar urteotan gerrara joan diren musulman gehienek beste musulman batzuk izan dituzte aurkari. Zibilizazio bat estatu bakarrak osatzen duenean ere, Txina edo Indian bezala, kultur faktoreak ez dira nahikoak kanpoko gerra bat hasteko edo barneko gerra bat saihesteko. Erromak eta Kartagok semita eta latindarren arteko ezberdintasun kulturalengatik egin ote zuten gerra, ala biek ere Mediterraneoaren hegonia amesten zutelako? Islama erlijio oldarkorra bada, zergatik azpimarratzen du hainbeste inor ez dela musulman bihurtzera behartu behar? Egungo txinatar gobernuak Japoniaren edo Indiaren aurkako gerra hasiko balu, zibilizazio hauen arteko ezberdintasunek izango lukete errua, ala beste arrazoi batzuek, lurraldeak, aberastasunak, boterak, aspaldiko ezinikusiak, beldurrak, edo bameko tentsioak baretzeko asmoak, kasu? Kultur ezberdintasunak faktore izan daitezke, baina askoren arteko bat gehiago, eta ez garrantzitsuena, ezta hurrik eman ere.

Egungo Islamaren kasuan, benetako talka kulturala ez da Mendebaldearen aurkakoa, bere buruaren aurkakoa baizik. Harrokeriengatik eszenatokiaren erdigunean sentitzea gustukoa dugun arren, islamismoaren zenbait ele-

mentuk erakusten diguten etsaitasuna benetako borroka-
ren alboko eragin bat baino ez da. Benetako borroka zibi-
lizazio islamikoaren barnekoa da, erabateko krisi estru-
kturalaren ondorio dena. Hauxe da auziaren gakoa. Ohikoa
da, izan ere, garai batean boteretsuak izandako kulturek,
botere hori galtzen dutenean, egoera berrira egokitze-
ko arazoak izatea. Antzinako distiraren oroitzapen obsesiboa
kontsolagarria izan daiteke gauzak okertzen direnean. Ho-
rrela, une horretako arazoak behin-behinekoak direlako
eta gaindi daitezkeelako itxaropenari eta moralari eusten
zaie. Haatik, nostalgia inperial honek urrezko garai miti-
koranzko ezinezko atzerabide baten lilurarekin pozoint-
zen du gogamena. Aurkako bidea hartzen dutenak, mo-
dernizatzaileak, traidoretzat hartzen dira, batik bat haien
eredua une horretako kultura dominatzailea bada. Kultu-
ra hau, antzinako distiraren inbidiagatik, etsai historikot-
zat eta egungo makalaldiaren eragiletzat jotzen da.

Adibide ona Espainiar Inperioa da, mende batean ze-
har munduko superpotentzia izan zena. 1898ko honda-
mendiaren ondoren, joera nostalgikoak ugaldtu ziren.
Hauen inguruan biltzen ziren indar inmobilitistak, hain
zuzen ere gero eta egoera degradatuagoak ezinbestean au-
rrera begiratzea eskatzen zuenean, aspaldiko loria berpiz-
teko lilurari uko eginez. Errealitatearen onarpena bat-
zuentzat. Errendizioa eta Traizioa bestetzuentzat. Gerra
Zibila ez zen saihestezina, baina muturreraino eramanda-
ko barneko tentsio hauen ondorio logikoa izan zen. Baina
programa modernizatzailea, 1939ko porrot militarra gora-
behera, azkenean garaile izan zen.

Britainiar Inperioa ere erabil daiteke konparaketara-
ko. Haren erorketa ez zen traumatikoa izan, eta inperioak
boteretsua eta eragin handikoa izaten jarraitu zuen. Baina
hala ere inperioaren galerak samintasuna eta erresumina
ekarri zituen, beste herrialdeetan parekorik ez duen mugi-
mendu politiko batean gauzatu zena: euroseptizismoa,
hain zuzen Alderdi Kontserbadorearen alderik eskuinda-
rrenarekin bat datorrena. Baina, azken buruan, Britainia
Handiak honakoak onartzea beste biderik ez dauka: inpe-
rioa behin betiko joan zela, dagoeneko superpotentzia bat

ez direla eta berriro izateko bitartekorik ez dutela, atzoko etsai larriak (espainiarrak, frantsesak, alemanak, irlandarrak) egungo lagun handiak direla, eta horiekin Europako Batasunean integratu beharko duela.

Islamak dilema horri berari egiten dio aurre. Ebazten ez badu desagertu egingo da, beste zibilizazio batzuk desagertu diren legez. Haatik, estatu islamiko batzuek porrot egin arren, beste batzuk garaile izango dira eta gainerakoen lider gisa jokatu dute. Orduan, itxuraz irtenbiderik gabekoak diruditen arazo asko, pixkanaka, gaintitzen hasiko dira: Israelen garaiezintasun militarra, desegonkortasun politikoa, despotismoa, garamen ekonomikoa... Prozesua mingarria izango da; jakina, aldaketa horien aurkako interes asko eta asko daude. Interes horiek —edozein eboluzio modernizatzailearen aurka, eta aldi berean egungo gobernarekin etsita— sustatzen dute integrismoa. Diskurtso integrista hori 1850-1945 aldiko europar diskurtso atzerakoiaren antzekoa da: modemitatearen aurrean tradizioaren gorespina, Jainkoa ordena kontserbatzaile eta autoritario baten bermatzaile gisa, emakumearen eta gutxiengoaren bazterketa, xenofobia, masak erakartzeko demagogia populista, konspirazioaren teoria...

Zibilizazioen arteko talkaren nozioak baditu, dena dela, jarraitzaileak, eta ez naiz Huntington irakasleaz ari, Usama Bin Ladinez baizik. Bere burua Mendebaldearen aurkako Dar al Islam osoaren ordezkariatzat jotzen du hark. Horregatik eraso zuen World Trade Center, etsaiaren herrialde handienaren hiri handieneko monumentorik handiena zelako. Baina nor ordezkutzen du benetan Bin Ladinek? Saudiar dirudun ultrakontserbatzaile, sexista eta xenofobo bat baino ez da. Islamgo toki santuetan iparramerikar tropak egotearen aurkako haren protestak patetikoak dira, Meka eta Medina Itsaso Gorriaren ondoan daudela eta Persiar Golkoko iparramerikar tropak handik 800 km-ra daudela kontuan hartzen badugu. Mendebaldea gorrotatzeko arrazoiak dituzten bi taldeak, irakiarrak eta palestinarrek, ez daude Bin Ladinaren sarean, batik bat saudiarrez, egiptoar batzuek eta txetxeniar, filipinar, pakistandar eta nazioarteko nahas-mahas batez osatua.

Islama ez da Mendebaldearentzako mehatxua. Terrorismoa, ekintzak oso krudel eta ikusgarriak izanda ere, mendeku era bat baino ez da. Ekintza terrorista plan zabalago baten baitan bakarrik da eraginkorra. Plana ekintza bortitzen errepikapen mugagabe batera murrizten bada, higadura gerra batez ari gara; baina halako gerra batean bitarteko gutxien dituenak galtzen du beti, hau da, terroristak. Talde terroristak duen babes herritarrak amaiera atzeratu dezake, baina ez saihestu. Aljeriar integristek dena zeukaten 1992an gerra zibila irabazteko: herritarrek gorrotatutako armada golpista eta zapaltzaile batek indarrez lapurtutako hauteskunde-garaipena. Baina Erabateko Terrorearen estrategiak porrot egin zuen, herritarrek erabaki baitzuten usurpatzaileei baino beldur gehiago zietela integristei. Egiptoar integrismoak ere garaipen militarerako bere aukerak sabotatu zituen, gatazkaren dinamikak herritarrak gobernuaren altzora bultzatu zituen.

2.- Zinez uste dut Islama integrismoarekin ez nahasteko ahalgina egiten duela Mendebaldeak. Bestelakoa da hedabideek integrismo islamikoari buruz hitz egiten dutela eta jendeak bere ondorioak sinplifikatuz ateratzen dituela. Gainera, integristek berebiziko kanpaina egiten dute beren burua benetako Islam bakar gisa aurkezteko, Fedearen Txapeldun gisa. Azken buruan, hedabideek integristak gutxiengoa direla argi uzten dutenean ere, albiste gehiago sortzen dituztenez, espazio mediatiko osoa hartzen dute, eta horrek bere ondorioak ditu.

Erljioak Mundu Islamikoan duen garrantzia ezin da exajeratu. Han laizismoak eragin txikiagoa du, baina bada beste zerbait. Kristautasunak europarren kontzientziak gobernatzen zituenean eta laizismo, ateismo, antiklerikalismo eta antzeko fenomenorik ez zegoenean, orduan ere ez zuen erlijioak gizartea egungo Islamean adina bustitzen. Gauza guztiak Islamera eramaten dute. Feministek Korana aipatzen dute emakumearen eskubideen defentsarako. Demokratek aipu batzuk erabiltzen dituzte eta kontserbadoreek beste batzuk. Sadat egiptoar mandatariak Camp Daviden Israelekin bakea sinatu zuenean, justifikazio le-

gez Profetaren garaiko aurrekariak aipatu zituen. Guztia dogmaren inguruan taxutzen da. Gobernari kristau batek bakea edo gerra erabakitzen zuenean, zergei, zuzenbide zibilari, komertzioari edo beste auziren bati buruz legeak ematen zituenean, ez zuen Biblia arakutzen bere erabakia-
rentzako justifikazio bila, eta aurkariak ere ez zuten testu sakratuetara jotzen. Sadatek Korana aipatzen zuen. Kristau batek Egiptok Camp Davideko akordiotik lortzen zituena abantailak aipatuko lituzke, nazioarteko egoera, indarren balantzea...

Horren guztiaren arrazoa Islamaren sorreran bertan daukagu. Muhammad (Mahoma) profetak erlijio bat eta estatu bat sortu zituen aldi berean. Kristautasuna, aldiz, estatu oso egituratu baten baitan sortu zen: Erromatar Inperioren baitan. Areago: Jesukristok erlijioaren eta politikaren arteko mugak zedarritu zituen esaldi ezagun batekin: «Zesami Zesarrena, eta Jainkoari Jainkoarena». Islamaren predikazioa, aitzitik, neurri batean arabiar gizarte tradizionalaren krisiari emandako erantzuna izan zen. Gizarte hori gainditzeko klanen edo tribuen esparrua baino zabalago batera jo beharko litzateke: Umma, Fededunen Anaitasuna, hasiera-hasieratik fede berria egitasmo politiko bihurtzen zuena. Horren ondorioz, esparru politikoak kutsu erlijioso izugarria izan du gaur egun arte. Giza arazoimenaren autonomiaren nozio laikoa, eguneroko auziak konpontzeko bost minutuero testu sakratuetara jotzea saihesten duena, ez da Islamean barneratu, indarrean dagoen pentsamolde sistemaren aurkakoa baita.

- 3.- Esparru politikoa kontrolatu nahi duen edozein erlijio demokrazia eta modernitatearekin bateraezina da, ez Islama bakarrik. Jainkozko bitartekotzaren bidez erbelatutako egiatan oinarritzen da erlijioa, eta, beraz, analisi razionalaren gainetik kokatzen da. Eskema hau politikari aplikatuz, emaitza ezinbestean zurruna eta autoritarioa da. Demokratak izateko ez dugu ateoak izan behar, baina erlijioak zenbait muga onartu behar ditu.

Gobernatzeko printzipio gisa demokrazia onartzea da oinarritzkoena. Jainkoak botere osoz eraentzen du Zeruan,

baina hemen behean, negarrezko haran honetan, gizakiak nahikoa bakarrik gaude eta nola edo hala moldatu behar dugu. XIX. mendeko katolizismoa demokraziaren aurka zegoen erabat, zalantzarik gabe kondenatzen zuen. Integrisimo islamikoa, judaismo ultraortodoxoa eta iparramerikar eskuin erlijiosoak bat datoz subiranotasuna Jainkoaren —eta ez gizakiarena— dela baieztatzean; beraz, horientzat demokraziaren nozioa bera birao hutsa baino ez da.

Erljioak ez du boterea hartzen saiatu behar. Hau da, hierarkia erlijiosoak ez du kargu politikoak bereganatzen saiatu behar; horixe egin zuten irandar aiatolek, Iraultza Islamikoaren Kontseilua sortu baitzuten, aukeratutako go-bemuaren ekimen guztiak fiskalizatzeko eskubidea bere eginez. Ez da zilegi ere «fededunen alderdi» bat antolatzea (FIS aljeriarra bezala) gobernuaren jauregian «demokrati-koki» sartzeko, handik inoiz ateratzeko batere asmorik gabe. Italiar Kristau Demokrazia eskema horren alderantzizkoa zen: italiar katolikoak sistema demokratikoan traumarik gabe barneratu ahal izateko tresna izan zen.

Erljioak uko egin behar dio bortxa orori: ezin da estatua erabili arau erlijiosoak inposatzeko tresna legez, ezta beldurrarazte edo agresioetara jo ere. Israelen ultraortodoxoek harriak jaurtitzen dizkiete larunbatetan, atsedean egunean, dabilzan autoei. Saudi Arabian, Islam wahabistaren arauak indarrez inposatzea beste zereginik ez duen polizia erlijiosoak dago, mundu guztiak otoitz egiten duela, barau egiten duela, meskitara joaten dela... ziurtatuz. AEBetan eskuin erlijiosoak bonbak jartzen ditu abortua praktikatzeko den kliniketan.

Erljioak ez du bilatu behar soilik «gutarrentzako» demokrazia bat: gutxiengo ez-musulman garrantzitsuak dituzten herrialde islamikoetan musulmanak bakarrik izan daitezke gobernuburu. Senegalgo Leopold Senghor katolikoa izan zen salbuespen bakarra. Aitzitik, Indiak presidente musulman bat izan zuen, nahiz eta lehen ministroa, benetako gobernaria, beti hindua izan den. Argentinan legez eskatzen zen presidenteak katolikoa izan behar zuela. Libanon kristau maronitek presidentzia gordetzen zu-

ten errolda zaharkitu bati esker. XIX. mendeko Ingalaterran, diputatu izateko edo gobernuan kargurik eduki ahal izateko, eliza anglikanoari leialtasuna zin egin behar zitzaion. Aljerian senarrek beren emazteen ordean eman zezaketen botoa.

Bestalde, estatuak hainbat berme eman behar dizkio erlijioari: ez du esku-hartu behar elizaren izendapenetan, Txinan bezala, non bertako diktadurak bere aldeko apezpiku «aberkoiak» atzamarrez aukeratzen dituen. Ez dizkie ere fededunei arau laikoak indarrez inposatu behar, Turkian bezala, non Mustafa Kemal «Ataturk»-ek alderantzizko talibanismoa inposatu baitzuen, emakumeei beraiek nahi zutenean ere beloa eramatea debekatu. Ez dituzte diskriminatu behar ere, Mexikon bezala, non apaizei kalean sotana eramatea debekatzen baitzitzaien. Gobernuak ezin du ere elizaren adierazpen askatasuna murriztu, ezta ere bere politika justifikatzeko erlijioaren estalkia jantzi, Fedea alderdikieriaz erabiliz.

- 4.- Lehenik eta behin, sinesgaiztasuna, txundidura, izua, gertaeraren basakeriaren ondorioz. Gero, Islamaren eta terroristen artean distantziak ezartzeko saiakera onuragarria. Haatik, «denak basapiztia hutsak dira» pentsatzen du, ez bairik gabe, askok eta askok. Deigarriena, benetan, zera da, oinarizko jarrerak ezer gutxi aldatu direla. Palestinar gatazkak lehen bezala jarraitzen du. Europako Batasunak Israel kritikatzeko jarraitzen du, baina AEBek beren aldetik baldintzarik gabeko babesa ematen diote. Saudi Arabiak ez du txintik ere aldatu bere kultur zorrozkeria. Pakistanek, berak babestutako talibanen ezabapenaren aurrean amore eman behar izan du, baina Afganistan kontrolatzeko ametsari eusten dio. Hasierako tentsio uneetako drakoniari legeen egitasmoak eta salbuespen egoerak zalapartarik gabe artxibatzen ari dira; eta badirudi, talibanen erauztea eta aireportuetako segurtasun neurri zorrotzagoak izan ezean, atentatuak ez dutela ondorio iraunkorrik izango. Ikusiko dugu hala gertatzen den.

Mendebaldearen ekintzarako bitartekoak jendeak usate duena baino mugatuagoak dira. Sadam Hussein bote-

retik kentzea eta irakiar herria blokeotik askatzea posible izango da, eta baita palestinar gatazkari soluzioa bilatzea ere. Baina Islamaren benetako arazoa barnetikoa da eta atzerriko potentzien eskumenetik kanpo dago. Auzia ez da elkarrizketatzea, arazo andana bat ebaztea baizik. Herrialde horiek azpigarapenetik ateratzeko Marshall Plan berri batek ez du ezertarako balioko, baldin eta laguntza horiek lapurtu edo xahutuko ez dituen administrazio zintzo eta eraginkorrik ez badute. Atzerriko kapitalak ez du baliorik bertako kapitalistek beren irabaziak herrialde-tik kanpora atera edo luxuzko eraketetan xahutzen badi-tuzte. Oinarritzko hezkuntza faktore positiboa da (analfabetismoari amaiera jarri behar zaio), baina goi hezkuntzak ez du ezertarako balio lizentziatu, teknikari eta ingeniari berriak tituluak lortu bezain azkar beren herritik joaten badira, bertan lanik ez dagoelako edo kanpoan hobeto ordaintzen dutelako.

Zer egin dezake Mendebaldeak benetan horri dagokionez? Askoz hobea litzateke herrialde horien produktuei merkatua irekitzea dirua aurreratzea baino, baina konkurrentzia berri horrek eragindako sektoreek protesta egingo lukete. Arabiar-israeldar gatazkaren amaiera behartzeak armamentu-gastuak murriztea ekarriko luke, baina beste hainbat gatazkak bere horretan jarraituko lukete eta, beraz, gastu militarra ez litzateke jaitsiko. Arazo nagusia, praktikan, gobernuaren izaera diktatoriala da, eta gizarte egiturak aldatzen ez badira oso zaila izango da demokrazia egonkor bat agertzea. Ia estatu islamiko guztiak despota errukigabeen eskuetan dauden honetan, elkarrizketari buruz hitz egitea, solaskide zein lirakekeen ikusita, asmo on bat baino ez da. Mendebaldeak, bere botere militar, ekonomiko, teknologiko eta guzti, egin dezakeen gauza bakarra hauxe da: traba ez egin, oztopoak ezabatu, agresioak eta estremismoak ekiditen saiatu, probokazioen aurrean ez ikusiarena egin, zenbait kasutan laguntza materiala eskaini, eta itxaron.^o

[Xabier Eizagirrek euskaratua]



Jesus Torquemada

1.- «Zibilizazioen arteko talka» kontzeptua oso arriskutsua da. Zibilizazio ezberdinen arteko ulerkuntza ezinezkoa dela ematen du aditzera, beren arteko gatazkak gerren bitartez baino ezin direla erabaki. Eta hori militaristei soilik komeni zaie, alegia, kanpoko gerrak irabazteko armadetan gehiago inbertitu behar dela eta barneko disidentzia ezabatzeko askatasunak murriztu behar direla defendatzen dutenei. Horregatik, «zibilizazioen arteko talka» kontzeptuari «zibilizazioen arteko elkarrizketa» jarri behar zaio aurrez aurre; baina, irailaren 11ko gertaera dramatikoaren ondoren, badirudi liskararen dinamika gailentzen ari dela.

Islamaren eta Mendebaldearen kasu konkretuan, zibilizazioen arteko talkaz baino, elkar ulerkuntza ezaz hitz egin behar da. Irain historikoen zerrenda luzea da, Gurutzaden garaira artekoa, eta XX. mendean jarraipena izan dute mendebaldarrek hainbat arabiar herrialde kolonizatzean eta Estatu Batuek Israeli palestinaren aurka emandako babesean. Interes ekonomikoek ere erlazioak zailtzen dituzte: arabiarrek petrolioa daukate, baina mendebaldarrak dira kontsumitzaile nagusiak. Arabiarrei petrolioa garesti saltzea komeni zaie, baina mendebaldarrei merke erostea interesatzen zaie. Eta bestearen kulturaren ezagutza sakonik ez dago: musulmanek mendebaldarrei buruzko estereotipo batzuk darabiltzate, eta gauza bera mendebaldarrek musulmanei buruz. Inori ez zaio axola bestearen kultura benetan zertan datzan.

Erresuminak, aurkako interes ekonomikoak eta ezjakintasuna dira hain zuzen gatazkak elikatzen dituzten faktoreetako batzuk. Ondorioz, intelektualek eta gobernariak ezer egiten ez badute, Mendebaldearen eta Islamaren arteko ulerkuntza erabat ezinezko bihurtuko litzatekeen unea irits daiteke. Mendebaldean gaiari buruzko eztabaida piztea ezinbestekoa da, eztabaida hori Islamean ere

izan dadin lagunduz. Izan ere, herrialde islamikoetan demokraziarik ez egoteak arazoa zailtzen du.

Ondorengo galderei emandako erantzunetan, Islaman eta Mendebaldearen arteko gatazkaren muinean eta balizko soluzioetan sakontzen da.

- 2.- Fundamentalismo erlijiosoa, erlijioak gizarte mailako alde guztietan esku-hartzeko asmo gisa ulertuta, ez dagokie soilik herrialde musulmanei. Hor ditugu, adibidez, telebista amerikarretan ohikoak diren predikatzailen fundamentalismo kristaua edo Estatu Batuetako eskola guztietan ikastordua ren hasieran derrigorrezko otoitza ezarri nahi duten kongresista ultrakontserbadoreak. Baina, integritasoa, erlijioaren eta politikaren arteko erabateko nahasketa gisa hartuta, ia soilik herrialde musulmanei dagokie. Ez da erlijioaren eta politikaren artean bereizten, liburu sakratu erlijiosoek lege zibilak ere ezartzen dituzte, kleroak zuzenean gobernu betetzen du edo bere jardueran gogor eragiten du. Eta horrek guztiak egoera soziopolitiko baldintzatzeaz gain, demokraziarantzko edozein hurbilketa —Europar ulertzen dugun erara bederen— eragozten du. Kasurik argiena Errepublika Islamikoarena da: Khatami presidente hautetsiak Khamenei aiatola lider erlijiosoaren aginduak bete behar ditu, baina lider hau ez du inork hautetsi, Khomeinik atzamarrez aukeratu baitzuen.

Erljioaren eta politikaren arteko nahasketa hori, hein handiago edo txikiagoan, Saudi Arabian eta Sudanen ere gertatzen da; edo Marokon, erregea aldi berean agintari zibil eta erlijiosoa baita («emir al muninin», fededun guztien gidaria). Beste herrialde islamiko batzuetan, Pakistanen kasu, kleroaren eragina ez da hain nabaria, baina Xaria, lege islamikoa ez ezik, lege zibila ere bada. Beste herrialde musulman batzuk, dena den, errepublika laikoak dira (Turkia, Egipto, Indonesia, Aljeria); baina kontuan har dezagun badirela horietan guztietan errepublika islamikoak ezartzeko asmoz erregimen laiko horiek indarke-riaren bidez kendu nahi dituzten talde integristak.

Eremu musulman osoan daude liburu sakratuetan ezarritzen diren legeetan oinarritutako Estatua fundatze-

ko xedea duten mugimendu antolatuak, baketsuak batzuk, bortitzak besteak. Europan eta Amerikan, aldiz, halako mugimenduak edo ez daude edo ez dute garrantzirik. Antzeko zerbait aurkitzeko Indiara edo Israelera joan behar da. Indian, esate baterako, bertan bizi diren ehun milioi musulman baino gehiago kanporatu nahi dituzten integrista hinduak daude, India estatu hindu hutsa izan dadin. Israelen Estatua judu konfesionala da, baina ortodoxoen helburua da gauza guztiak Talmudaren eta beste liburu judu sakratu batzuen arabera goberna daitezela. Izan ere, adibidez, sabbat jaiegunean Israel ia geldirik egotea lortu dute. Baina herritar gehienek, gazteek batik bat, gero eta jaramon gutxiago egiten diote erlijioari, eta bizimodu laikoa daramate. Hain zuzen, antzeko zerbait gertatzen zaio irandar gazteriarri: ikusiko dugu zenbat denbora gehiago irauten duten irandar aiatolek ukabila ireki eta gazteei askatasun gehiago ematen ez badiete.

3.- Estatu Batuetako pentsamendu korrante jakin baten arabera —Fareed Zakaria, Samuel Huntington eta Francis Fukuyamaren inguruan—, Islama modernitatearekin eta demokraziarekin bateraezina da. Modernitatea zer den definitzeki abiatu beharko genuke, eta horretarako beste zenbaki monografiko bat beharko litzeteke. Egia esan, modernotzat jotzen diren ikono batzuk, Internet kasu, sarre-
ra motelagoa izaten ari dira herrialde musulmanetan, eta kontsumo gizartea delakoa ez da oraindik gauzatu herr i islamiko gehienetan. Baina mendebaldetza eta modernitate maila berean jartzea gutxienez zalantzarria da, moderno soilik mendebaldarra dela uste izatera baitarama, europar kultura soilik dela zibilizatua.

Baina, bestetik, ukaezina da oso herrialde musulman gutxi direla demokratikoak; esan liteke ez dagoela halakorik. Demokraziatzat honakoa jo dezagun: botereen banaketa (legegilea, exekutiboa eta judiziala) eta zenbait aukera politikoren artean askatasun giroan hainbatero gobernariak sufragio unibertsalez hautatzeko ahalbidea. Horrela ulertuta, ez dago herrialde islamiko demokratikorik. Esparru musulmaneko sistema politikoen sorta zabala da:

monarkia absolutuak (Saudi Arabia), Parlamentua duten monarkiak, baina soilik alderdi politiko batzuk baimenduz eta beti ere erregearen nagusitzarekin (Maroko, Kuwait), alderdi bakarreko errepublikak (Irak), alderdi gobernariaren monopolioa duten errepublikak (Egipto, Siria), kleroak gobernatutako errepublikak (Iran), militarrek zaindutako errepublikak (Pakistan, Turkia). Ez dago besterik gabe demokratikotzat har daitekeen herrialde musulmanik. Gehien hurbiltzen direnak Bangladesh eta Malaysia dira. Baina, Bangladeshen, bi alderdi nagusien arteko botere alternantzia ez da beti baketsua izaten, eta askatasun publikoak oso murrizak dira; eta Malaysian, Mohamad Mahatir lehen ministroaren izaera autoritarioak demokraziaren erabateko garapena eragozten du.

Berrogei baino herrialde musulman gehiago daude, mila milioi pertsona baino gehiagorekin. Jakina, ez da kasualitate hutsa inon ere demokrazia ez finkatu izana. Gehiegizkoa izan daiteke Islama eta demokrazia bateraezina direla baieztatzea, baina, dirudienez, gizarte musulmanetan zerbaitek ez dio uzten demokraziari sustraitzen.

Horretarako kanpotiko zergatiak aipa daitezke: XX. mende hasierako ingeles eta frantsesen kolonizazioak, edo egun Estatu Batuen ageriotzat jotzen den erasoak, mendebaldar jatorriko sistema politikoen aurkako mesfidantza eragin dute. Baina «Jainkoaren borondateari men egiteak» ere (horixe baino ez du esan nahi Islamak) eduki behar du zerikusirik ukazio horretan. Izan ere, dela errepublika edo monarkia, sultanerri edo emire rri, ezein herrialde musulmetan ez dute herriarrek askatasunik. Eta herrialde askotan zuzenean oinarrizko giza eskubideak bortxatzen dira: heriotza zigorra ia herri islamiko guztietan aplikatzen da, emakumearen bazterketa neurri jasangaitzeara iristen da, adierazpen askatasuna aldezteagatik kartzela-zigor luzeak ezartzen dira, buruzagi erlijiosoek disidenteak gupidarik gabe jazartzeko dekretuak (fatwak) plazaratzen dituzte, ohikoak dira zigor fisikoak (zartaden zigorrak, harrikatzeak) janzketa arauak edo sexu murrizketak ez errepetatzeagatik... Herrialde islamikoetan giza eskubideei egiten zaizkien erasoek zerrenda oso luzea da.

Ideologo musulman batzuek honela defenditzen dute bere burua: giza eskubideak ez omen dira unibertsalak, giza te bakoitzak giza eskubideei buruzko bere kontzeptua edukitzeko eskubidea omen du, eta Mendebaldean giza eskubide gisa hartzen dena ez omen da halabarharrez mundu osoan hala onartu behar. Interpretazio horri lotu zaizkio gogo biziz mandatari txinatarrak, heriotza zigorraren aplikapen sistematikoari eta disidentziaren jazarpenari dago-kienez ere ez baitabilta urruti. Jakina, bestelako sistema sozial eta politikoak errespetatu behar dira, baita gureak bezalakoak ez badira ere. Baina horrek ez du errealitatea ezkutatu behar: herrialde musulman gehienetan muzin egiten zaio NBEk aldarrikatutako Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalari eta ez dira aplikatzen Europan eta Amerikan oro har onartutako printzipio demokratikoak.

- 4.- Irailaren 11n gertatutakoaren ondoren, Mendebaldeak are mesfidantza handiagoz begiratzen dio Islamari. Herrialde mendebaldar eta islamikoen arteko ulertezintasuna areagotuz doa. Huntingtonek formulatutako «zibilizazioen arteko talkaren» teoriak eta antzekoek, duela gutxi arte hainbat intelektualen kritikak jaso dituzten arren, gero eta jarraitzaile gehiago dituzte. Bushek deklaraturako «terrorismoaren aurkako gerra» herrialde musulmanetan kokatzen da batik bat: Afganistanen ondoren, amerikar soldaduak Filipinetara iritsi dira bertako armadari Abu Sayyaf-en gerrilla musulmana ezabatzen laguntzeko, eta Pentagonoaren hurrengo xedea beste herrialde musulman bat izan litekeela susmatzen da, Somalia, Yemen edo Irak, kasu. Dena den, Bushek gerra hori mundu mailako eszenatoki batean ikusten duela argitu behar da: horrela ulertzen da, adibidez, Estatu Batuek Kolonbiako gatazkan duten gero eta inplikazio handiagoa.

Lehen aipatu bezala, ideia integristen berezko izaerak esplikatzen du, neurri batean, musulman askok Mendebaldearekiko adierazten duten etsaitasuna; ideia horiek, izan ere, ezberdina den guztiaren bazterketa eta gorrotoa sustatzen dute. Baina Mendebaldetik jasotzen dituzten agresioek (edo beraien ustez jasotakoek) ere esplikatzen dute.

Adibiderik argiena palestinarren kasua da. Munduko musulman guztiak daude palestinar mugimenduaren alde, bere egiten dute palestinar sufrimendua. Eta musulman askoren aburuz, mendebaldarrek, batik bat Estatu Batuek, hala nahi dugulako daude palestinarrek dauden bezala. Estatu Batuek Israeli ematen dioten baldintzarik gabeko laguntza, israeldarrek egiten dutena egiten dutela, belarrondoko mingarri gisa hartzen dute musulman gehienek.

Irailaren 11ren ondoren, Estatu Batuei kanpo politika berrikusteko abagunea sortu zitzaion. Golkoko gerraren ondoren, George Bush egungo presidenteari aitak, nahiz eta Israel alde batera ez utzi, arabiar adiskideak ere eduki behar zituela ulertu zuen, eta hori lortzeko modurik egokienetakoa arabiar-israeldar arazoa konpontzen laguntzea zela. Horregatik antolatu zuen 1991n Madrilén Ekialde Hurbilerako Bake Konferentzia. Hor abiatu zen Israel eta Jordaniaren arteko bake tratatuaren sinadura ekarri zuen prozesua; baina, tamalez, ez da nahikoa izan israeldar eta palestinarren arteko gatazka amaitzeko.

Bush semea ere ataka berean zegoen irailaren 11ren ondoren. Erantzun militarra ia saihestezina zen: amerikarrek mendekua eskatzen zuten. Baina, behin Afganistani giharrak erakutsi ondoren, kanpo politikaren berrikuspenera planteatu zezakeen; bere aitak aipatutako Nazioarteko Ordena Berri hura berreskura zezakeen; Estatu Batuen segurtasuna bermatzeko sendotasun militar hutsa nahikoa ez dela ondoriozta zezakeen; palestinar-israeldar arazoa berehala konpondu behar dela, zuzengabekeria izugarria delako eta munduko bakearentzako etengabeko mehatxua delako; eta Islamaren eta Mendebaldearen arteko ezberdintasun politikoei heltzeko ordua iritsi dela, guztien eskubideak aintzatetsiko dituen negoziazio baten bidez ebazteko.

Hori egin zezakeen, baina guztiz kontrakoa egin du: gastu militarra bultzatu, misilen aurkako ezkutuaren proiektuari bidea ireki, Washingtonek esandakoa betetzen ez duten herrialdeak mehatxatu, Israelekiko konpromisoa indartu, aliatuak aintzat hartu gabe bere aldetik jokatu... Azken buruan, Bushen Estatu Batuen erabateko nagusitza

militarra nahi du, amerikar inperioa mende batzuk iraun ditzan, erromatar inperioak bezala. Ez du ulertu irailaren 11ko ikasgaietako bat: Estatu Batuak misilen eraso batetik defendatzeko prestatzen diren bitartean, bilioika dolar xahutuz, nahikoa motibatutako talde txiki batek Estatu Batuen segurtasuna hondatu dezake milaka dolar gutxi batzuen bitartez.

Horretan ari dira Estatu Batuak, eta Europak laguntzen die, berotasun gutxiagorekin bada ere. Haatik, beste ildo bat jorra zitekeen: herrialde islamikoetan demokrazia finkatzeko lan egin. Mendebaldar ideologo askoren arabera, emir ustelei edo presidente autoritarioei laguntza eskaini behar zaie, talde integristen aurrerabideari eusteko baliabide bakarra direlakoan. Horregatik eman behar zaie laguntza militarra, matxinada integristak itzal ditzaten; eta hauteskunde librerik antola ez dezaten konbentzitu behar zaie, izan ere, integristek irabaz baititzakete, Aljerian gertatu zen bezala.


Ja rraera horrek Mendebaldeak herrialde islamikoetan duen izen txarra areagotu besterik ez du egiten. Herrialde horietan jendea nazkatuta dago gobernariekin, bizitza maila igotzeko ezer egiten ez dutelako, Islamaren izenean herria zapaltzen dutelako. Eta jende horrek ikusten duenean mendebaldarrek —batik bat Estatu Batuek— gobernari ustel horiek eusten dituztela, Mendebaldearekiko erresumina areagotzen zaie. Petrolioaren kontrolagatik itsututa, Washingtonek eta bere aliatuek Golkoko monarkiak edo Mubarak egiptoarraren antzeko presidente autoritarioak eusten dituzte. Estatu Batuek beti Iran, Irak, Siria edo Libia seinalatzen dituzten arren, Saudi Arabia ari da benetan mundu osoan mugimendu integristak finantzatzen. Baina mendebaldarrek nahiago dute begiak itxi eta saudiar dinastiako erregeen adiskide izaten jarraitu.

Horregatik guztiagatik, baldin eta Mendebaldeak benetan demokraziaren bertuteetan sinesten badu, hura herrialde islamikoetan finkatzearen alde gehiago egin behar luke. Herrialde musulmanetako biztanle gehienek mundu guztiak nahi izaten duen gauza bera nahi dute: hobeto eta askeago bizi. Eta Mendebaldeak, haien energi

baliabideak ustiatzen eta mandatari autoritarioak eusten dituzten bitartean, ez die ez batean ez bestean laguntzen. Beraz, Mendebaldeak ezer eskaintzen ez dienez, jendeak salbatzaile integristengana zuzentzen du begirada. Hauxe da irailaren 11k emandako ikasgaietako bat, baina ez dirudi mendebaldar gobernariak ikasi dutenik.^o

[Xabier Eizagirrek euskaratua]

*Egunen
gurpilean*



kultura • 97

Hurrengo geltokia: Artium • Bisitari gutxiago

JOSEBA BALERDI



literatura • 101

Letrak lurgorri • Irastortza, zorionak

• Martxoaren 8a • Erdal idazleak

LAURA MINTEGI



soziolinguistika • 106

Lur bat haratago euskararen garabideetan

• Hizkuntzaren erabilera-esparru publikoak eta pribatuak

• Hizkuntz normalkuntzaren jomuga

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA



telepolis • 112

Euskadi Informazio Gizartean: letra txikiaren ordua

• Hiru urte barrurako helburu zehatzak

• Administrazioak ezin sarearen edukiei erantzun

• Eusko Legebiltzarra, Finlandiara

• Telekomunikabideen liberalizazioaren zailtasunak

• Euskal zinemak industria izan nahi eta ezin

AMATIÑO



Hurrengo geltokia: Artium

Hau kaleratzerako, idazten denetik argitara ematen den arte denbora puska bat pasatzen baita, inauguratuta egongo da Gasteizko Artium. Beharbada ezagunagoa izango da Bilboko Metroaren bigarren linearen inaugurazioa, baina dudarik gabe garai batean autobus geltokiaren gune zen orubean eraikitako museo-zentroak ere emango zuen zeresanik. Besteak beste, kargura iritxi zenetik urtebete betetzear dagoen honetan erabat desagertuta dabilen Kultura sailburua —Eusko Jaurlaritzakoa, alegia— bertan izango zelako. Izan ere, horrelakoetan ohizkoa izaten da inaugurazioen protagonismo guztia erakundeetako ordezkarien bizkar izatea, pentsatuz dirua erakundeek jarri dutenez, logikoa dela protagonismoa ere eurena izatea. Pentsatzeko modu bat da.

Baina Gasteizko Artium hau —izena behintzat bada pretentzioso— kultura garaikidearen eskutik omen datorrigu. Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa jarri diote izena. Zentro-Museoa. Zer ote da hori? Museoak berak dioenez, gauza asko izan nahi du. Batetik, Arabako Foru Aldundiak azken hamarkadetan pilatutako bilduma artistikoaren eskaparate izan nahi du: eskaparate garestia, alajaina! Eta museoa hirugarren milurteko honetan jaiotzen ari diren arte garaikidearen belaunaldikoa denez —anaia, ahizpa edo lehengusua— pentsatzekoa da beste hainbat museoren lankidetzaz izatea aldi baterako erakusketak antolatzean, hori ere museoaren asmoen artean agertzen baita. Ez hori bakarrik, sormen lanarekin beste hainbat ekimen ere egin nahi ditu, eta hezkuntza kontuak bere bizkar hartuz, prest dago eskola-umeei artearen kontzeptua hurbiltzeko. Eta asmoak agortezinak direnez, museoaren kudeatzaileek nahi dute, gainera, Gasteizko Gune Historikoko kultur ardatzaren osagai izatea museoa (Erdi Aroko gunea da Gasteizko alde zaharra), eta asmoen az-

ken puntuan jarri dute, *last but no least* izango da noski, Araba eta Euskadiko dinamika kulturalean giltzarri izatea. Ez dago gaizki.

Niri, egia esan, gehiago gustatzen zitzaidan autobus geltoki zaharra. Jendeari aterpea eskainiz, baina aldi berean autobus zaharren ke lodi eta beltzak zuzenean Gasteizko haizearen mende uzten zituen eraikin hura. Zikina egoten zen, bai, baina normalean behintzat ordu laurden eskas bat egiten genuen bertara hurbiltzen ginenok, eta Iruñekoaren aldean, esate baterako, arnasa lasai hartzeko eragozpenik ez zen Gasteizko autobus geltoki zaharrean. Baina orain, Frantzia kaleko orubea, Artiumen orubea da, eta ohituz joan beharko dugu; agintariak ere saiatu dira ondo asko horretan, eta ez da erraza, batez ere museo atarian jarri duten eskultura erraldoiari esker, ez jabetzea Gasteizek garai berriei ongi etorria eman nahi diela orain, lehenago Kanpezutik edo Bernedotik zetozen etxekoandre edo nekazariei ongi etorria egiten zien toki berean.

Pertsonak izaten dira, ordea, museoak erabiltzen dituztenak, eta itxaron egin beharko da Artium honek, lehen egunetako ikusmina baretzen denean, jendearen artean zer-nolako harrera izaten duen. Izan ere, pentsamendu politiko-kultural bakarretik gehiegi ez umuntzearren, esan dezadan niri ere ongi iruditzen zaizkidala kulturaren hedapenerako egiten diren ekimen eta hartzen diren iniziatibak, baita, barkatu esatea, erakundeek hartutakoak badira ere. Baina tarteka euliak kanoikadaka (to! bai euskara jatorra!) akabatzen ariko balira bezala ikusten ditud erakunde horiek. Alegia, Gasteizek behar al du Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museo bat? Guggenheim ere ez al da neurri batean gauza bera? Beharrezkoa al da euskal hiriburu bakoitzean museo bat, arte garaikidearen museo bat? Galderak dira, erantzunik ez daukat eta. Baina hone-lakoetan beti etortzen zait burura herri honetako biztanleak ez garela asko, Europako hiri handiek Euskal Herri osoak baino biztanle gehiago izaten dutela, eta geografikoki ere ez garela handiegiak, eta punta batetik bestera joateko pare bat ordu nahikoak izaten direla, trafikoa arauak hautsi gabe.

Bisitari gutxiago

Izan ere, ondo dago Gasteizko Artium hau zabaltzea, baina gero jendea bertara hurbiltzen ez bada? Eta jendeak inolako interesik ez badauka han erakusten dutenaz disfrutatzen? Zaila da oso artearen gestioa, are zailagoa arte garaikidearen kasuan, eta oraindik askoz ere zailagoa arte garaikidea, *a priori* horretan interes gehiegirik ez duen gizartearekin uztartu behar denean gestio horren emaitza nagusia lortzeko. Azken Aste Santura begiratzea besterik ez dago: Baztan aldea jendez gainezka, nahiz eta museo handirik ez izan bertan; Bilbon, berriz, hotelak aurreko urteetan baino beteagoak —eguraldia ere hobea izan zen— baina Guggenheim museoak askoz ere bisitari gutxiago, iaz baino laurden bat gutxiago, sei bat mila bisitari gutxiago. Eta hasiera bateko nerbioa galtzen ari zela lehenago ere esan genuen, baina Guggenheimen bilduma iraunkorra gutxi gorabehera lehengoa da —nahiz eta azkenaldi honetan lan berri batzuk gehitu— eta ezinezkoa da aldi baterako erakusketa espektakularrak egunero antolatzea. Horixe da gakoa: bilduma iraunkorra. Museoaren erakargaritasuna aldi baterako erakusketen bizkar uzten bada, oso maila altuari eutsi behar zaio erakusketa horietan; eta Bilboko Guggenheim Museoari nekeza gertatzen ari zaio bisitariei nolabaiteko interes berezia sortuko dien zerbait topatu eta prestatzea (ez noski ez daukatelako; beharbada sukurtsal bat direlako?). Eta Guggenheimi hori gertatzen bazaio, zer ez ote zaio gertatuko Artiumi? Nahiago nuke erabat erra-tua egotea, baina orain arte Gasteizkoek iragarri dituzten aldi baterako erakusketak ez dira etxafuegoak botatzeko modukoak, eta bilduma iraunkorra azken hamarkadetan Arabako Foru Aldundiak osatu duena da. Baliotsua, dudarik gabe, baina izango al da nahikoa Artium bezalako proiektu bati eutsi ahal izateko?

Alegia, esan nahi dut Parisen, Louvren, tarteka erakusketa bereziak antola daitezkeela, baina bertako bilduma iraunkorrak bakarrik eusten diola museoari. Edo Madrillgo Pradon, edo Londresen Taten. Edo Beaubourg-en, nolabait Georges Pompidou zentroak hasiera batean izan

zuen kutsua —filosofikoa eta artistikoa— ikusten baitiot Artium honi.

Eta gainera, arestian aipatu ditugun arazo demografiko-geografikoak daude. Hiriburu bakoitzari gutxi gorabehera antzeko azpiegiturak emateko partez, ez al luke behar sortzen diren egitura horiek ahalik eta indartsuen izatea? Badugu Guggenheim? Bai, baina egin dezagun Artium ere! Badugu Musika eta Kongresuen jauregia? Bai, baina egin dezagun hiriburu bakoitzean bana, Kursaal, Europa, Balaarte, Euskalduna! Eta batzuetan pentsatzen dut ez ote litzatekeen hobea herri honetako barne-distantziak laburtzea, bidesaririk gabeko autopisten bidez, gutxienez hiriburuak lotuko dituen tren-sistema itxurazko bat ezarriz (Euskal Metroa, esate baterako), zer dakit ba nik nola. Baina iruditzen zait ez naizela ni bakarrik horrela pentsatzen duena, eta horretarako froga koxkor bat: zuk zeuk, hau honaino irakurri duzun horrek: zer gogoratzen duzu hobeki, Artiumen inaugurazioa edo Bilboko Metroaren bigarren linea zabaldu dutela? Pentsatzeko modukoa.¶



Letrak lurgorri

Jai eta ospakizunen ostean garizumak estaltzen ditu haragiaren nahiak, eta literaturgintzan ere, abenduaren egun handien ostean, lurgorri geratzen da letren eremua. Irakurleak badaki neguaren hasieran metatutakoarekin iragan beharko duela negu luzea, editoreek merkaturatze garaia Durangorako eta San Jordiren bueltarako uzten baitute, hau da, hotzaren etorrerarekin eta udaberria lortzearekin batera.

Agian, eta bazka freskorik ahoratu ezean, idazleek hausnarketari ematen diote garai honetan, bai ustekabeen iragaten diren liburuxketan, bai eta elkarrizketa eta adierazpenetan ere. Arantxa Urretabizkaiak sarri aipatzen du literaturgintzan txoriak eta ornitologoak egon badaudela, eta berak, aukeran, txoria nahiago duela. Baina ukatzerik ez dago gero eta ornitologo gehiago plazaratzen ari dela euskal letretara, eta nik onuragarritzat jotzen dut, heldutasun seinale delakoan.

Egia esan, hausnarketarako garaia heldua zaigula pentsatzeko arrazoi nahikorik badago, *Ehun metro* argitaratu zenetik 26 urte bete direla konturatuz gero. 1976tik hona ibili izan dugun bideari begiratzea baino ez dago ikusteko orduko garaien eta oraingoan artean alderik badagoela, egon. Beharrian larrienak beterik dauden honetan, hemendik aurrerakoari ekin diezaiokegu orain.

Hausnarketan, ordea, integratu baino apokaliptiko gehiago ikusten dugu han-hemenka, ahoz gora egindako adierazpenetan behinik behin. Bilbo Zaharra euskaltegiak antolatutako «Euskal Literatura eta Kultura» Topalekueetan, Ramon Saizarbitoriak, baina, batez ere, Bernardo Atxagak esandakoak bazterrak harrotu zituen, euskararen geroaz egindako adierazpenekin. Ildo berean, Felipe Juaristik ere ardura azaldu du oraingo egoeraz, eta literatura urbanoa aldarrikatu du gazteentzat (*Egan*, 2001, 3/4). Jon

Alonsok nobelaren zentzua kolokan jarri du, eta zilborrari begira egotea egotzi dio (*Nabarra*, martxoak 12). Bestalde, literatura gaur egun arkeologia dela eta nobela anakronikoa dela esan du, eta zalantzan jarri du ea merezi duen horren alde egitea (*Deia*, 2001eko azaroak 9).

Hausnarketa heldutasun seinale dela nioen orain, eta horrela dela uste dut. Heldutasun pertsonala eta kolektiboa sumatzen da. Letrak lurgorri uzteak, beraz, ez du antzutasunik adierazten, umotu sasoia baizik.

Irastortza, zorionak

Euskal Idazleen Elkartean martxoan gauzatu da errele-bua, eta bost urteren ostean, Andolin Eguzkitzak lekukoa eman dio Tere Irastortzari, batzuetan oztopo lasterketa bihurtzen den, eta beti ere maratoi itxura duen literatura-ren ekinean. Eguzkitzak egindako lana handia izan da, eta lehenengoz ikusi izan dugu epe luzerako plangintza osoa, kanpo eta barne beharrianez zuzenduta, 2001-2004 Plan Estrategiko izena daramana.

Edonola ere, eta Elkartearen ezagutzen dugun guztiok ongi asko dakigu gaur egungo lorpenak gauzaezinak izango zirela aurretik egin den lan eskergea egin izan ez balitz. Andu Lertxundik (1982-85) jarritako oinarriak, Jose Mari Velez de Mendizabalen (1985-89) izerdi eta nekeak, Patri Urkizuk (1989-93) emandako aurrerapausoak, Joxerra Garziak (1993-97) eskainitako ilusioa eta Andolin Eguzkitzaren (1997-2002) egite ona ezinbestekoak izan dira EIEren oraingo egoera ulertzeko orduan. Baina lehendakariaren lana hutsaren hurrengoa da lantalderik ezean. Maite Gonzalez Esnal (18 urtez elkartean), Begoña Andonegi, Nagore Atela eta sartu berri den Ana Urkizak eguneroko lana eskaini dute bertan, eta garaian garaiko Zuzendaritza batzordekideen lanak ere, ia anonimoa izan arren, garrantzia izan du EIEren historian.

Orain Te re Irastortza dugu lehendakari andrea *jauna*, (izendapenaren egunean egin zitzaion txantxa errepikatuz), eta aurretik ezagutzen dugunok lasai egon gaitezke

izendapen honekin, Elkartea esku onetan dagoelako. Idazgintzaren aldeko lana baina, (etxe barruan eta kanpoaldean euskal literatura ezagutzera ematea, besteak beste), ez da bakar batzuen kontua, idazten dugun guztiona baizik. Zeren ez baitago pasaporte hoberik kalitatezko produkturik eskaintzea baino. Eta literatura ona egitea ez da elkartearen lana, idazleena baizik.

Martxoaren 8a

Emakume idazleak pozik egon daitezke. Aurten ere beren eguna izan dute.

Erdal idazleak

Martxoaren 18, 19 eta 20an Bilbon burutu da Blas de Oterori buruzko nazioarteko kongresua, hainbat ikertzaile eta idazleren partaidetzaz.

Kongresu honetaz profitatu nahi nuke gure artean gutxitan aipatzen den gaiaz aritzeko. Inoiz ez dugu jakin izan nola jokatu euskal hiritarrak diren erdal idazleekin. Euskal idazleak izan ez direla ongi dakigun arren («erdaraz idatzitako euskal literatura ez da existitzen. Ezinezkoa da, euskaraz ez dakien norbait euskalduna ezin izan daitekeen modu berean (...) Euskal Herritarrak Euskal Herriko biztanleak dira, eta euskaldunak, berriz, euskaraz mintzo direnak. Hain zaila al da ulertzea? Nola esan daiteke, beraz, erdaraz idatzitako euskal literatura badenik ere?», Gari Berasaluze, *Gara*, 2001eko ekainaren 23a), zehatz-mehatz zer diren ez dakigu. Idazle espainolak? Idazle baskoak? Norekin konpartitzen dituzte erreferente kulturalak? Zer esan hizkeraz euskaldunak izanik, idazkeraz erdaldunak diren idazleez?

Kasuistika gero eta zabalagoa da, gero eta gehiago baitira Euskal Herriko plazetara ateratzen ari diren idazle erdaldunak.

Inoiz ez dugu jakin izan trataera egokia ematen Miguel de Unamuno, Pio Baroja eta Blas de Oterori besteak

beste, baina horiek hilik daude finean, eta esku-liburuetan baino ez ditugu tratatu behar. Baina nola jokatu bizi-rik dauden Pablo de Antoñana edo Miguel Sanchez Ostiz nafarrekin? Nola jokatu Felix de Azuarekin?

Zein da Robert Laxalt idazleari ongien doakion definizioa? Zein ataletan sartzen da Elias Amezaga bera, bai eta berak bildutako milaka erdal idazle baskoak ere?

Norbaitek galdetzen digunean Laura Espido Freire (Laudio) eta Lucia Etxeberria (Valentzia/Bermeo, 1966, Nadal Saria 1998) ea idazle baskoak diren, poker aurpegia ipini behar izaten dugu, edo azalpen luzeak eman, haria galdu arteraino.

Idazle hauetariko batzuk, gainera, euskal hiztunak dira, baina idazkera-hizkuntza gaztelania aukeratu dute, Pedro Ugarte (Bilbo, 1963) eta Eli Tolaretxipirekin (Donostia, 1962) gertatzen den bezala. Azken honek, gainera, Saizarbitoriaren lana itzuli izan du euskaratik gaztelaniara.

Beste alde batetik, euskal idazletzat jotzen ditugunetan ere, batek baino gehiagok erabaki du zuzenean gaztelaniaz idaztea, aurretik *euskal bertsoia* egin gabe. Pili Kaltzadak poema liburu elebiduna argitaratu zuen, jatorriz euskaraz eta gaztelaniaz sorturiko poemak tartekatuz. Iban Zalduak bost liburutatik bi gaztelaniaz eman ditu: *Veinte cuentos cortitos* idatzi zuen aspaldian, eta orain gutxi *La isla de los antropólogos y otros cuentos* eman du argitara.

Bernardo Atxagak bi aldiz bereganatu du Euskadi Saria, behin euskaraz egindako lanagatik, eta beste behin gaztelaniazko liburu batekin, *Lista de locos y otros alfabetos*, 1999an.

Zein izen eman behar zaie Felix Maraña, Alvaro Bermejo eta Iñaki Ezkerra idazleei? Euskal idazlea ez bada ere, zer da Euskal Herriko historia, geografia eta kulturaz buru-belarri aritzen den Toti Martínez de Lezea (*La Herbolaria*), eta gai berberak erabiltzen dituen Arantzazu Amezaga (*Veinticinco cartas para una guerra*), erdi aroa, karlistadak eta ahaide nagusiak ahotan dituzten idazleak?

Esan bezala, azken garaian barra-barra ari dira azaltzen gaztelaniaz aritzen diren idazle gazteak, aurretik liburu ugari dituztenekin batera. Fermin Goñi nafarrak bere

zazpigarren liburua argitaratu du (*Las mujeres siempre dijeron que me querían*). Daniel Sarasola bilbotarrak, aldiz, lehena (*Lejos de Panamá*). Eta J.M. Isasi Urdangarinek (Bilbo, 1970, *Variaciones Julen Guerrero* eta *Un mundo de Sastre*) eta Enrique Gutierrez Ordorikak (Santurtzi, 1959, *Grünmland* eta *El guardián de la tristeza*) bina liburu dituzte.

Egia esan, kopurua ederra da, eta produkzio zabala dute, euskal idazleok oraindik jakin ez dezagun nola deitu idazle hauei. Euskal idazleak ez dira, ados. Onar dezakegu «*escritores vascos*» direla? Eta «*escritores vascos*», nola itzultzen da euskarara?

Ariketa polita filologoentzat, baina kontu filologikoa baino sakonagoa dela uste dut. Idazlearen kosmogoniaren kontuan sartu beharko baikenuke, bai eta beste eztabaida sakonagoetan ere, hala nola zer-nolako harremana duen hizkuntzak ezagupena bereganatzearekin, edo zer den aurretikoa, munduarekiko ikuskera edo ikuskeraren berbalizazioa.

Euskal eskultore ezagunenak, euskal idiosinkrasia hutsunearen inguruan gorpuztu duten horiek, ordea, ez dira euskaradunak.°



Lur bat haratago euskararen garabideetan

Egileen haserrea pizteko arriskuaz jabetuta ere, bi liburu-
ren izenburuekin eman diot hasiera saio honi: Joan Mari
Irigoienen *Lur bat haratago* (Elkarlanean, 2000) eleberr
i mardul eta ederrarenarekin eta Jesus Rubioren *Euskararen
garabideak* (Alberdania, 2002) saiakera iradokitzailearena-
rekin. Izan ere, bi lan horiek arras desberdinak badira,
funtsean kezka bera dute komun: hainbat arlotan euskara
idatzian egun erabiltzen den eredu sintaktikoaren egoki-
tasuna.

Lerro hauek idazten dituen ez da seguru asko arazo
hauetaz arduratzeko egokiena, ez; halere, eta irakurleari
barkamena alde aurretik eskatuta, kezka bera sentitu izan-
nak eman dit adorea ur sakon horietan oinak —orkatila-
raino baino ez— sartzeko.

Aipaturiko nobela historikoa egin berria zuenean, is-
torio hori lapurteraz idaztera bultzatu zuen zioa azaltzen
zuen Irigoienek, eta, buruz ari banaiz ere, bere ideien har-
ria hauxe zen: estiloez arduratzen diren askok euskaraz
idazterakoan esaldi laburrak gomendatzen dituztela, ho-
rrela eginda eduki ulerkorragoa lor daitekeelakoan. Iri-
goienek, aldiz, tradizio idatziak (Axularrenak, hain zuzen)
eskaintzen zuen irtenbideari erreparatuz, esaldi luzeko
idazkeraz baliatzeko erronkari aurre egin nahi izan zion,
ahalegin horretarako lapurtera tradizionala hautatuta.

Hemen hizpide dugun gaiari begira, hauxe dugu az-
pimarragarria: Joan Mari Irigoienek, hau da, goi mailako
idazle batek estilo ulerkor eta aberatsaren premia sentitu
zuen, gaur egun erabili ohi den estiloarekin guztiz bat ez
zeterrelako.

Gailur literarioetatik arto xeheagoetara jaitsita, bestal-
de, euskarazko idazkera administratibo nahiz zientifikoaz
duen kezka azaltzera etorri zaigu Jesus Rubio ere, Irigoie-
nen idazlana kaleratu baino bi urte beranduago: «Euskaraz

idea konplexuak era informatiboan idazteko zailtasun ugari direla esaten du Jesus Rubiok» (*Euskaldunon Egunkaria*, 2002-03-23). Eta, hona hemen, irakasle honen liburua kaleratu duen sailaren zuzendariak, Joxerra Garziak, aurkezpen saioan mahaigaineraturikoa: goi mailako guneetan erabiltzen den euskara ulergaitza da, ez da funtzionala, bere hizkuntz eredua desegokia delako. Areago, «[euskara idatzia] (...) modu funtzionalean ez bada erabiltzen, luzarora gabe, ez dagoela etorkizunik» ohartarazten zuen Garziak.

Baliteke kezka horien oinarrian arazo sendoa izatea, zeren asko baikara idazterakoan —edo beste batzuek idatzia irakurtzerakoan— ideia konplexuak azaltzeko —edo ulertzeko— zailtasun handia sentitu izan dugunok. Hala-koetan, mugak norberarenak direla pentsatu ohi dugu batzuek; baina hainbat euskal idazleren artean ere antzeko bi-zipenak pairatu direla jakiteak norberak duen muga baino arazo sakonagoa izan daitekeelako susmoa pitzen du.

Dena den, arazoaz garaiz konturatuz gero, gaitz erdi!... baldin eta konponbidea aurkitzeko erkidego euskaldunak (edo horretaz dakitenek) behar besteko kemenik badu(te).

Hizkuntzaren erabilera-esparru publikoak eta pribatuak

Duela hamarkada batzuk, hau da, euskararen normal-kuntzarako politikak eta aldeko neurriak abian jartzen hasi baino lehenago, gure hizkuntzak gehienbat esparru pribatuan —familiar— aurkitu zituen erabilera-eremua eta babesa, gaztelania eta frantsesa beste gizarte-funtzio gehienez jabetzen ziren bitartean. Esparru pribatu horretan oinarritu da euskal hiztunen komunitatearen iraupea, ez erabat eta soilik, baina bai modu berezian.

Gaur egun, berriz, familiaren eremu pribatuak duen garrantzia ez da iraganean zuen bestekoa; familiak aurreko mendeetan betetzen zituen funtzio batzuk galdu egin ditu, hezkuntza sistemaren mesedetan, adibidez. Familiak euska-

ra rentzat bete duen babesleku-funtzioa ere, etxe-muineta-raino sartzen diren erdarazko aurrerapen teknologikoek higitu dute: irratiak, telebistak, internetek...

Pisua galduz doan euskararen aldeko eremu pribatu familiarra, ordea, ez dute normalkuntza planek bereziki landu; ez familia, ezta gainerako esparru pribatu gehienak ere. Gune publikoak izan dira bereziki hizkuntz politikaren helburuak: hezkuntza, ikus-entzunezko komunikabide eta erakunde publikoak, adibidez. Dimentsio pribatu batzuetan oraintsu egindako ahaleginak ere ez baditugu ahantzi behar (lan munduan hirurogei bat enpresen normalkuntza-planak, besteak beste), betiere askoz apalagoak izan dira, salbuespenak salbuespen.

Egia da hizkuntz normalkuntza esparru pribatuetan ezartzea zaila dela, interbentzio zuzenerako aukera gutxi dagoelako eta gizabanakoaren askatasuna urra daitekeelako. Baina, aipaturiko zailtasunak ez ezik, badaude bestelako arrazoiak ere; zientziari dagozkionak, esaterako. Marce Masa-k salatzen duen bezala, gizarte zientziek ez dute esparru pribatua aintzakotzat hartu; ez, dagokion neurrian, bederen:

Este habitual desdén analítico por las socialidades insertas en el escenario no-público desemboca en menospreciar su riqueza al considerarlas como si fuesen fenómenos de orden menor o de baja intensidad.

Kezka teoriko hori argitzeko Simmel nahiz Giddens-ek landutako *«egunerokotasunaren etenik gabeko egituraketa»* kontzeptutik abiatu da Masa (*Inguruak* 28: 154-156).

Gauzak horrela, zer gertatzen da euskararen plangintza esparru publikoetan soilik ezarriz gero? Erantzuna, hauxe da: gure hizkuntz normalkuntza koloka egongo dela. Zergatik? Batetik, eremu pribatua eta publikoa harreman estuetan daudelako:

Y en el caso concreto de las categorías de lo privado y lo público, si se produce su contextualización en el ámbito de lo cotidiano nos encontramos con que es más preciso hablar de la existencia de una relación de «tándem» entre ellas, (...) de coexistencia a la postre que permitiría

entenderlas interrelacionadamente: privado/público. (...) no ha de perderse la perspectiva holística (...) (*Inguruak* 28: 155).

Are gehiago, Masak dioenez, euskal biztanleriak bere egunerokotasunaz duen pertzepzioaren erdigunean dimentsio pribatua kokatu eta, ondorioz, lehenesten du, arlo publikoa bigarren mailan utzita:

(...) desde la perspectiva de los actores/sujetos-en-la-sociedad vasca, puede decirse que éstos estructuran su cotidianeidad a partir de una «jerarquía de prioridades» que determina una específica articulación de lo privado/público. (...) en la periferia se encuentran las lógicas de lo político-institucional, y en el centro se localizarían las socialidades replegadas en el escenario doméstico-familiar y aquellas otras desplegadas con los amigos o de forma independiente en los escenarios del consumo y el ocio, esto es, fuera del escenario laboral, si bien este escenario posea la máxima centralidad en la estructuración de lo cotidiano si se le entiende instrumentalmente, como empleo (*Inguruak* 28: 157)

Hariari eutsiz, hona hemen lan munduko adibide sendo bat: enplegu pribatu eta publikoaren pisu demografikoari erreparatuz, Eustatek Euskal Autonomia Erkidegoko datu ezin adierazgarriagoak eskaintzen dizkigu: '16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, lanbide-egoerari jarraiki' izeneko taularen arabera, ehun alokatu edo soldatapekotik 14,1 baino ez dira sektore publikokoak (Euskal Urtekari Estatistikoa 99: 62). Begi bistakoa da, beraz, horrenbeste zaintzen den arlo publikoak ez duela —lan munduan, bederen— proportzio berdineko garrantzirik.

Ondorioz, euskarak zenbait eremu publikotan lekua oraintsu berreskuratu arren, gizartean nagusitzen den esparru pribatuetako hizkuntza erdara izanez gero, joera indartsua egongo da azken hizkuntz hori eremu publikoetz ere jabetu dadin. Hizkuntzaren normalkuntzak errealitate osoaz arduratu behar du, ez gutxiengo soziala den esparru publikoetz soil-soilik.

Gure hizkuntza normaltzeko gehien landu diren esparru publikoak, ikuspuntu soziologikotik nahiz garrantzi

kuantitatibotik begiratuta, gizartearentzat ez dira garrantzitsuenak. Horren arabera, euskarak ezingo du normaltasun osoa erdietsi bigarren maila baino ez duten eremu publikoetan soilik erabiltzen bada, hizkuntz normalkuntzak protagonismo handiko eta osoko kokapena eskatzen duelako.

Hizkuntz normalkuntzaren jomuga


Aurrekoaren harira, hizkuntz normalkuntzaren jomuga fokatzeko lagungarri suerta daitekeen ideia luzatu nahi dugu ondoren, betiere apaltasun osoz.

Simmel eta Giddensen «*egunerokotasunaren etenik gabeko egituraketa*» kontuan izanda eta hizkuntza, gizabanako gertakizuna ez ezik, batez ere gizarte mailako fenomeno dela jakinda, zera bururatzen zaigu: egunero eta etenik gabe sortzen ari diren gizarte sare berrietan gauzatu beharko litzatekeela hizkuntz normalkuntza. Izan ere, euskarak aurrera egingo badu, gune berri horietan izan behar du lekua (gutxienez, erdararen parekoa); eta ez esparru publikoan soilik, baizik eta gizartean horren aurretik dagoen eta bere osagarria den mundu pribatuan ere bai.

Kontuan izan, meneko hizkuntza batek beharrezkoa dituela bere aldeko aldarrikapena eta ageriko legitimazioa, bestela gizartean meneratzailea den hizkuntzak leku osoa hartzen diolako. Hau da, etenik gabe eratzen ari diren enpresa, erakunde, zerbitzu, elkarte eta gizarte-gune berri guztietan meneko hizkuntzaren aldeko aldarrikapenik egin ezean, harreman-hizkuntza erdara izango da, eta alferrik arituko gara familian eta ikastetxeetan neska-mutikoak euskalduntzen.

Are gehiago; zinezko hizkuntz normalkuntzaren bidean gaudenetz jakiteko, urtez urte sortzen diren elkarte, enpresa, talde eta abarrek euren funtzionamenduan hautatutako hizkuntza aztertu baino ez dago. Harreman sare berri horietan, hizkuntz definiziorik egiten ez dutenak (edo erdara hutsezkoa dutenak) euskararen hautua egiten dutenak baino gehiago badira, euskarak atzera egingo du.

Gizarte gune berrien hizkuntza euskara (soilik edo erdararen parean) izatean datza euskararen zinezko normalizazioa, eta horretara zuzendu beharko lirateke normalizazioa plangintzaren ahaleginik handienak. Izan ere, hizkuntz ohiturak finkatu gabe dagoen gizarte talde berri batean askoz errazagoa da euskara ezartzea, abian dagoen (erdarazko) beste batean ohiturak aldatzea baino. Lehenik eta behin, gizartean nagusitzen den esparru pribatuaren pisu handia ahaztu gabe.^o



Euskadi Informazio Gizartean: letra txikiaren ordua

Nafarroak eta Euskal Autonomi Erkidegoak badute jadanik plan ofizial bana, Informazio Gizartearen erronkari nork bere indarrez erantzun ahal izateko. Ez dira, ordea, hutsetik hasten, Foru Gobernuak (2001) zein Eusko Jaurlaritzak (2002) euren asmoak egituratu eta aurkeztu orduko tokian tokiko hiritarrek, enpresek eta herri-administrazioek oinarritzko bide dezente jorratua baitzuten aldez aurretik edota aldi berean behinik behin. Famili-baitango Internet lotura-datuei (EGM) bagagozkie, EAEn lautik batek (%25,1) zerbitzua zuen 2001eko udazkenean eta Nafarroan ia bostetik batek (%17,3). Nafar prozesua geldoago gertatzen ari da, 1997tik (%4) honako lau urteotan lau bider gehitu baita, EAEn ordutik (%2,5) hona hamar aldiz biderkatu den bitartean. Jauzi nabarmen honetan zerikusi handia izan dute Eusko Jaurlaritzak (%58) eta aurrezki kutxek (%42), «Konekta Zaitetz» programa dela-eta, eskainitako 30,36 milioi €ren dirulaguntzek.

Auskalo gero zer gertatuko ote den hurrengo lauzpabost urteetan, egitarau ofizialak ez baitira berez aski hiritarren ohiturak, enpresen erabilpenak eta funtzionarioen jarrerak besterik gabe irauli ahal izateko, nahiz eta, itxuraz behintzat, asmo horretan nahiko diru eralgi. Hain zuzen ere, herriz herri banda zabala hedatzeko indarrean jarririk behar izango den 130 milioi €ren ekintza publiko-pribatuaz gainera, Eusko Jaurlaritzak 433,5 milioi € xahutuko ditu 2002tik 2006ra bitartean, Nafar Gobernuak 2001etik 2004ra ia 58 milioi jarriko dituen artean. Beraz, Nafarroan 10,50 € biztanleko lau urtez eta Euskal Autonomi Erkidegoan 20,60 € biztanleko, bost urtean.

Dena den, plana plan eta dirua diru, letra txikiaren ordua da. Mundu guztiak aho betez iragartzen zuen iraultza digitala heldu da dagoeneko, Javier Echeverriak

aldarikatzen duen hirugarren ingurunea alegia, eta ba-koitzak jakingo du gero zer arraio egin beharko duen behingoz, datorkigun erronkari ahalik eta aproposen aurre egiteko. Barrena hamar urte daramatzagu gauza beretsuak esaten eta berresaten. Titular ponpoxoei utzi eta letra txikiari heltzeko ordua da.

Hiru urte barrurako helburu zehatzak

Euskadi Informazio Gizartean planak konpromiso politikoaz, eraldaketa ekonomikoaz, etorkizun digitalaz eta urratu beharreko ildoez hainbat abiapuntu biltzen ditu, baina baita lortu nahi diren helburu kuantitatibo zehatz-mehatzak adierazi ere, etxean, enpresan zein hezkuntzan izango den bilakaera proposatuz.

Hona, hiru taula. 2001eko egoera Eustaten datuak dira eta helburuak, berriz, planak 2005erako aurreikusten dituenak:

<i>HIRITARREN ERABILPENA</i>	2001eko egoera	2005erako helburua
<i>Ekipamendua</i>		
Etxean ordenagailua duten familiak	%43,5	%65
Etxean telefono mugikorra duten familiak	%69,2	%80
Etxean Internetera sartzeko aukera duten familiak	%24,1	%60
<i>Erabilera</i>		
Interneten erabiltzaileak	%29,2	%65
Posta elektronikoa duten Interneten erabiltzaileak	%49,0	%60
Merkataritza elektronikoan jarduten dutenak	%16,9	%35

<i>ENPRESA ARLOA</i>	2001eko egoera	2005erako helburua
<i>Enpresak (10 langile edo gehiagokoak)</i>		
Internerako sarrera duten enpresak	%76,6	%92
Posta elektronikoa erabiltzen duten enpresak	%74,3	%91
Webgunea duten enpresak	%29,1	%70
<i>Mikroenpresak (<10 langile)</i>		
Internerako sarrera duten enpresak	%23,1	%50
Posta elektronikoa erabiltzen duten enpresak	%20,1	%45
Webgunea duten enpresak	%2,6	%8
<i>Informazio eta Ezagutza Teknologien Sektorea</i>		
Langileak (1999)	24.952	40.000

HEZKUNTZA ARLOA	2001eko egoera	2005erako helburua
<i>Ekipamendua: Internet banda zabaleko konexioa</i>		
Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	%14,8	%100
Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak	%81,4	%100
LH eta Unibertsitate ikastetxeak	%100	%100
<i>Edukiak</i>		
Lehen eta Bigarren Hezkuntzako edukiak Interneten	%5	%40
LH eta Unibertsitateko edukiak Interneten	%5	%40

Esan bezala, 2001eko datuak direnak dira, Eustatek gaur egun eskuartean dituenak. Helburuak, ordea, Europarekiko konbergentziaranzko bidean planak proposatzen dituenak. Izatez, estimazioak baino ez dira, nekez segurta baitezake inork hiritarren joerak nondik abiatuko diren eta, gainera, auskalo ipar europarren bidetik nahitaez abiatu beharko luketen ere. Alferrik da eskandinabiar herriak eredutzat jotzea baldin klimaz, izakeraz, lagun-giroz eta, nolabait esateko, kalezaletasunez ere euskaldunak arras desberdnak bagara.

Administrazioak ezin sarearen edukiei erantzun

Euskadi Informazio Gizartean deritzan plana dezente ondo hartua izan da, egia esan. Oro har sektore guztiek, edo gehienek behintzat, harrera ona egin diote, segurutik eurretatik askok plana egituratu, burutu eta aurkeztu aurretik neurri batez zein bestez parte hartzeko edo iritzia emateko aukerarik izan duelako.

Izan ere, alderdirik kritikatuena ez dira izan planaren aurretikako diagnostikoa, proposatzen dituen jardueraildoak edota agintzen dituen aurrekontuak, abiapuntu honetan Euskal Administrazio Publikoak azaltzen dituen webgune eta pegorak baizik, edukiak agertarazteko eta eguneratzeko orduan Administrazioa ez baita batere asmatzen ari.

Planari bagagozkio, azaleko-edo kritika honek ez du lar garrantzirik, mamiari baino itxurari datxekio-eta, baina oihartzun handia du eguneroko erabiltzaileen artean,

plan handi-mandien gainera eta milioika euroren aurrekontuen azpitik pantaila aurrean «bizi» direnek pantailaren onurak eta malurak bertatik bertara bizi baitituzte beste ezer baino lehen.

Administrazio Publikoari webgune onak eskatzen zaizkio internautaren aldetik eta erakundeak lotsaz eta ezinez dira, sarri, internautaren aurrean. Baina arazoa zuzena izanik, eztabaida okerrekoa da. Administrazio Publikoak ez baitu barne-egiturarik behar bezainbateko eduki ganorazkorik eskaintzeko eta, hasieran, diruaren diruz, itxurak egin ditzakeen arren, luzera irtenbideak ekintza pribatuaren bitartez etorri beharko baitu, ezin bestean etorri ere.

Administrazio Publikoak behingoz ulertu behar du Internet —lehenago multimedia, irrati-telebista, zinema edo prentsa bezalaxe— eduki aproposak eskaini behar dituen beste komunikabide-mota berri bat baino ez dela, eta ekintza publikoari, zuzenean behintzat, horrelako bature kudeaketarik ez dagokion bezalaxe, Internet ere ekintza pribatu gisako enpresen esku utzi behar dela. Zentzu honetan, ez da gero kasualitate hutsa Kataluniako Generalitateak Internet-esparrua TV3ri luzatu nahi izatea.

Eusko Legebiltzarra, Finlandiara

Hurrengo ekainean Finlandiara joateko asmotan ari da Eusko Legebiltzarraren Industria Batzordea, hango Informazio Gizartearen planak zertan diren ikusi ahal izateko. Finlandia munduko herrialderik aurreratuenetakoa da Informazio Gizartearekiko teknologietan eta, teoriari behintzat, eredu ona da esparru hau garatu nahi duen edonorentzat.

Finlandiako Informazio Gizartearen Fundazioa Legebiltzarraren egiturapean dago, Jaurlaritzaren ardurapean egon beharrean. Horrez gainera, Legebiltzarrak berak *Etor-kizun Batzordea* du, hurrengo hamabost urterako egitasmoak eta ikertzen, aurreikusten edo asmatzen aritu ohi dena.

Informazio Gizartearen arlo honetan ospetsua da Tampereko Parke Teknologikoa, non, besteak beste, e-Business Zentro Teknologikoa, Informazio eta Ezagutza Teknologien Expertise Zentroa eta Nokia multinazionala kokaturik dauden.

Telekomunikabideen liberalizazioaren zailtasunak

Europe 2002 deritzan ekintzaren helbururik nabarienetakoa ahalik eta Internetik azkarren, merkeen eta seguruena eskaintzea da. Helburu hau lortzeko beharrezkotzat jo da telekomunikabide-sektorearen liberalizazioa, lehendanik dirauten monopolioak gainditu eta zerbitzu anitza erakar dezakeen merkatu-lehia bideratzeko. Hala ere, liberalizazioak ez du orain arte lehiakortasun nabarmenik erakarri eta europar merkatuan nagusi izaten jarraitzen dute historian zehar monopolio izandako operadoreek, besteak beste ondoko arrazoiak tarteko:

- Demasak dira operadore berriek egin beharreko inbertsioak.
- Zorrotzak, merkatuan sartzeko baldintzak.
- Operadore historikoen dituzten sareak monopolio garaian zabalduak dira, lehiarik gabe eraikiak eta oraingoz amortizatuak.

Ondorioz, tarifak murriztu eta lehiakideen kopuru a gehitu arren, egoera ezer gutxi aldatu da liberalizazioa indarrean jarri zenetik hona, eta honetaz jabetzeko oraintsu arteko operadore monopolistek mantentzen duten merkatu-kuota ikusi besterik ez dago: Belgikan, %98; Espainian, %92; Holandan, %88; Italian, %85; Frantzia, %81; Euskal Autonomi Erkidegoan, %68; Erresuma Batuan, %65 eta Alemanian, %61. Beraz, praktikan, azken hiru inguruneotan baino ez dago egiazko konpetentziarik.

Horrez gainera, europar merkatuan nagusi izaten jarraitzen duten operadore monopolista-ohiek ez dute banda zabalean Europako Batasunak itxaro zuen besteko inbertsiorik egin, aldi berean XDSL teknologia berria agertu

baita (betidaniko kobre-parez baliagarri dena), gaur egun eskain daitezkeen zerbitzuetarako aski dena.

Egoera hau Telekomunikabideetako europar ministroek aztertu zuten orain hurrengo Gasteizen eraturako bileran (otsailaren 20 eta 21ean). Bilduen ustez, nekez esan daiteke liberalizazioak egiazko konpetentziarik erakarri duenik eta, XDSL teknologiaren «errazkeriak», banda zabalaren hedapena atzeratu ez ezik, hiritar guztientzako Internet unibertsalaren atzerapena eragin omen dezake luzera.

Euskal zinemak industria izan nahi eta ezin

Angel Amigok idatzia da:

Imagino un audiovisual, como me imagino Euskadi en el futuro: plurilingüe, muy abierto al mundo, con raíces profundas en nuestra personalidad, produciendo o coproduciendo todo tipo de historias populares, elitistas, simples, pero existiendo industrialmente. Algo que no tengo claro que pueda ocurrir. Siempre habrá vascos haciendo cine, pero eso no es industria (*Veinte años y un día*, Donostia, 2001).

Zinema ia betidanik izan da industria Iparramerikan, eta European, aldiz, kultura, bart iluntzera arte. Orain dela 70 urte Franklin Rooseveltek eragin zuen «New Deal» delako ituna (1933-1939) AEBetako ekonomia sustatzeko eta, indartu beharreko industri-sektore estrategikoen zerrendan, zinemagintza sartu zuen. Europako Batzordeak, aldiz, industria eta kulturaren arteko desberdintasuna arautu beharra sumatu berri du oraindik orain (Brusela, 2001-09-26).


Gaur egun ez da inondik ere zalantzarik ikus-entzunezko sektorea industria denik. Eta industria galanta gainera, 2000 urtean 1.922 milioi €ren ekoizpenak fakturatzeko gauza izan baitzen Espainiar estatuan bakarrik, zinema, telebista, bideo, DVD eta bideojokoen artean. Sektorea jabetu da, noski, bere garrantziaz eta kulturatik industriara migratzen hasia da, Kulturaren subentzio-esparrutik Industriaren laguntza-egitarauetara alegia. Prozesu hau

Europa guztian gertatzen ari da eta baita, jakina, Euskal Herrian ere, Industriaren diru-iturriak Kulturarenak baino oparagoak direlakoan, besteak beste. Baina lehiatila al-daketa hori ez da horren automatikoa.

Europako Batzordeak sektorea ikertu zuen iaz eta bere baitan biltzen diren industria eta kultur-helburuak bereiztu eta arautu. Batzordeak begi onez ikusi ditu tokian tokiko kultur-nortasuna sustatzeko bertoko Administrazio Publikoak eskain ditzakeen dirulaguntzak, baina beti ere kultur-alderdia bera suspertzeko soilik eta ez merkatuan ari diren ekoiztetxeen lehiakortasuna kulturaren atxakiaz desorekatu eta baldintzapetzeko.

Frantziak 1998an aditzera emandako irizpideen arabera, Industriaren laguntza-egitarauak inbertsioa, lanpostuak edo teknologia berriak areagotzeko izan beharko dute, ekoizpenak era batekoak zein bestekoak izan. Kulturaren subentzioak, oster, edukiak, hizkuntza edo kultur-ondarea babesteko izango dira, industri-azpiegitura indartu ez arren.

Hau da, gure eremu hurbilean ulergarri izan daitezkeen bi adibide aipatuko baditugu, ETBk eta IBAIA Euskal Ekoizleen Elkartek hiru urterako sinaturiko 270 milioi €ren ituna Kulturari dagokio eta REC Grabaketa Estudioak Donostiako Zuatzu Enpresa Parkean egindako 820.000 €ren inbertsioagatik jasotako 140.000 €, Industriari. Beraz, diru-eskabidea egiteko lehiatilik lehengo lepotik burua. ¶



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax. 943.21.82.07
jakin@jalgi.com